Osakidetza




# *LANEKO MEDIKUNTZAREN FAKULTATIBO ESPEZIALISTA*

## GALDERAK

**1.- Osalaneko Kontseilu Nagusiari dagokionez, adierazi zein den erantzun ZUZENA:**

a) Gizarte-eragileen partaidetza-organoa da.
b) Kideak Herri Administrazioko Kontseilukidearen aginduz izendatuko dira.
c) Osalaneko zuzendari nagusia da kontseilu horretako presidentea.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduerak arautzen dituen 306/1999 Dekretuan ezarritakoari dagokionez, zein da erantzun ZUZENA?**

a) Prebentzioko eta Lehen Mailako Arretako Zerbitzuek lagundu egiten dute gaixotasun arruntaren tratamenduan eta errehabilitazioan.
b) Lan-harremana amaitzean, laneko historia klinikoaren kopia bat emango zaio langileari, behar bezala zenbakituta.
c) Oinarrizko Osasun Unitatea (OOU) laneko edo enpresako mediku batek eta enpresako erizain batek osatzen duten giza baliabideen eta baliabide materialen multzoa da, eta urtean 60 minutuko eskaintzen dizkio langile bakoitzari.
d) Laneko historia klinikoan ez dira sartuko lan-baldintzak aztertzean hautemandako arriskuak.

**3.- Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren arabera, gaixotasun profesionalagatiko behaketa-aldiek iraupen hau izango dute:**

a) 3 hilabete.
b) 3 hilabete, beste hiru hilabetez luzatzeko aukerarekin.
c) 6 hilabete.
d) 6 hilabete, beste sei hilabetez luzatzeko aukerarekin.

**4.- Aldi baterako ezintasunari dagokionez, zein da erantzun ZUZENA?**

a) Bajaren gehieneko aldia 365 egunekoa da, eta ezin da luzatu. Epe horretan, birgaixotzeak eta behaketa-aldiak kontatuko dira.
b) Alta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko (GSIN) ikuskatzaileek eman badu, institutu horretako ikuskatzaile medikoak dira beste baja bat emateko eskumena duten bakarrak, arrazoia edozein dela ere.
c) GSINk emandako medikuaren altaren ebazpenaren aurkako erreklamazio-epea 4 egun baliodunekoa da, eta interesdunak Osasun Zerbitzu Publikoaren ikuskaritzan egin beharko du.

d) Ikuskaritza medikoak 15 egun balioduneko epea du erreklamazio horri erantzuteko, eta epe horretan alta medikoa ondoriorik gabe geratuko da.
GSINk emandako medikuaren altaren ebazpenaren aurkako erreklamazio-epea 4 egun baliodunekoa da, eta interesdunak Osasun Zerbitzu Publikoaren ikuskaritzan egin beharko du.

**5.- Adierazi Gizarte Segurantzaren Mutua Laguntzaileei (MUCOSS) buruzko erantzun ZUZENA:**

a) Enpresaburuen elkarte publikoak dira, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren baimenaren bidez eratuak.
b) Juridikoki, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren mende daude.
c) Ez dute eskumenik kontingentzia arruntek eragindako aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoa kudeatzeko.
d) Bere jardueren artean dago minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeko prestazioaren kudeaketa.
Enpresaburuen elkarte publikoak dira, Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren baimenaren bidez eratuak.

**6.- Zer hartuko da lan-istriputzat?**

a) Lan baten ohiko jardunaren ondoriozko zuhurtziagabekeria profesionalaren ondorio diren istripuak, baita horrek sorrarazten duen konfiantzaren ondorio direnak ere.
b) Salbamendu-egintzan gertatutakoak, lanarekin lotura dutenean.
Lankide baten erruduntasun zibil edo kriminalaren pilaketaren ondorio direnak.
c) Aipatutako kasu guztiak lan-istriputzat hartuko dira.
d) Lan baten ohiko jardunaren ondoriozko zuhurtziagabekeria profesionalaren ondorio diren istripuak, baita horrek sorrarazten duen konfiantzaren ondorio direnak ere.

**7.- “Guía de criterios de aptitud para trabajadores del ámbito sanitario” gidaren arabera, bere lanpostuko edo kategoriako funtsezko zereginak egin ditzakeen langile batek, lan oso zehatzak eta espezifikoak erabat edo partzialki egiteko debekua duenak, zer kalifikazio jasoko du?**

a) Gai, muga pertsonalekin.
b) Gai, lan-muga egokigarriekin.
c) Gai, lan-mugak murriztaileekin.
d) Gai, behaketarekin.

**8.- Alderdi hauetako zein dagokio “inplementazioa eta eragiketa” atalari, OHSAS 18.001 estandarraren arabera?**

a) Prebentzioko-helburuak eta -programak.
b) Egiaztapena.
c) Prestaketa eta erantzuna larrialdien aurrean.
d) Zuzendaritzak berrikustea.

**9.- Adierazi zein den erantzun ZUZENA "Ez gai" kalifikazioa emateari dagokionez, Osakidetzako lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sisteman oinarrituta:**

a) Langileak lanpostuari esleitutako oinarrizko zereginak arrazoizko neurriekin egin ezin dituenean ematen da.
b) Osasun azterketa egiten duen laneko medikuak ematen du kalifikazio hori, eta dagokion zuzendaritzari jakinarazten zaio.
c) Langileak bere espedientea berrikusteko eska liezaioke Erakundeko Zuzendaritza Gerentziari, zeinak ezgai agiria ematen baitu.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**10.- Adierazi zein inguruabarretan diren nahitaezkoak aldez aurreko osasun-azterketak Osakidetzako langileentzat:**

a) A kategorian sailkatuko diren erradiazio ionizatzaileen eraginpean dauden langileak badaude.
b) Formaldehidoaren eraginpean dauden langileak badaude.
c) Zitostatikoen eraginpean dauden langileak badaude.
d) Aldez aurreko osasun-azterketak ez dira nahitaezkoak osasun-arloan.

**11.- Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzko 21/2015 Dekretuaren arabera, hondakin hauetako zein sailkatuko da hondakin sanitario espezifikoen II. taldean?**

a) Eskularruak, maskarak eta odolez zikindutako gazak, zeinak langile sanitarioek egindako sendaketetatik datozen.
b) Fluxu edo korronte laminarreko kanpaietatik datozen eraginkortasun handiko iragazkiak.
c) Medikamentu zitostatikoen hondarrak.
d) Formolean kontserbatutako hondakin anatomikoak.

**12.- Nola deitzen zaio erradiazio ionizatzaileen eraginpean dagoen eremu bati, zeinean 6 mSv/urteko dosi ofiziala baino gehiago edo kristalinorako, azalerako eta gorputz-adarretarako dosien 3/10 dosi baliokidea baino gehiago jaso daitekeen?**

a) Sarrera debekatuko eremua.
b) Kontrolpeko eremua.
c) Egonaldi mugatuko zaintzapeko eremua.
d) Zaintzapeko eremua.

**13.- Sentikortasun kimiko anizkoitzaren kasuaren definizioa honako ezaugarri hauetan oinarritzen da, SALBU ETA:**

a) Sintomek sistema organiko bat baino gehiago ekartzea.
b) Sintomak eragin toxikologiko desberdineko substantzia kimikoekiko esposizioak eragitea.

c) Ez egotea sintomak azal ditzakeen proba funtzional organiko bakarrik.
d) Hori garatzeko, esposizioek TLVaren antzekoak edo handiagoak izatea.

**14.- Lan-asmaren osasun-zainketarako protokolo espezifikoaren arabera, adierazi zein den erantzun OKERRA aire-bideetako disfuntzio-sindrome erreaktiboaren (RADS) irizpide diagnostiko hauei dagokienez:**

a) Aurretik arnas gaixotasunik ez izatea.
b) Arnas proba funtzionaletan buxadura-koadroa egoteko aukera.
c) Sintomekin hastea gas, ke edo lurrun kontzentrazio txikiekiko esposizio kronikoak izan ondoren.
d) Metakolina duen probokazio-proba positiboa.

**15.- Lan-asmaren osasun-zainketarako protokolo espezifikoaren arabera, langile sanitarioak alergeno hauen eraginpean egon daitezke:**

a) Pisu molekular handiko alergenoak, latexezko partikulen eraginpean egoteagatik.
b) Pisu molekular txikiko alergenoak, anatomia patologikoko laborategi eta zerbitzuetan.
c) Pisu molekular txikiko alergenoak, penizilinak edo zefalosporinak bezalako antibiotikoekiko esposizioagatik.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**16.- Zein da Osakidetzako barne-auditore izateko baldintzetako bat, OHSAS 18001 estandarrean?**

a) LAPean prestakuntza espezifikoa izatea (LAPeko goi mailako teknikaria, laneko medikua edo enpresa, laneko erizaina edo enpresa).
b) OHSAS 18.001 auditoretzen barne- edo kanpo-ikastaro bat egitea.
c) Osakidetzako lantaldekoa izatea, gutxienez urtebetez.
d) a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**17.- Adierazi agente biologiko hauetako zein ez dagoen 4. taldean sailkatuta:**

a) Ebola birusa.
b) Krimea-Kongoko Sukar Hemorragikoaren birusa
c) E hepatitisaren birusa.
d) Marburg-en birusa.

**18.- Zeren bidez egiten da correos edo beste mezularitza zerbitzu baten bitartezko laborategien arteko agente biologikoen manipulatzea, garraioa eta bidalketa?**

a) Produktu horientzat erabili ohi den garraio moduaren bidez, zeinak gordailua segurtasun-tentengailuetan jasotzen duen.
b) Ihesak edo isuriak eragozten dituen edukiontzi hermetiko baten bidez, segurtasun-tentengailuetan.

c) Bi geruzako ontzi baten bidez: lehena hermetikoa da eta material xurgatzailez eta bilgarriz inguratuta dago, eta kanpokoan substantzia infekzioso edo biologikoaren etiketatzea ageri da.

d) Hiru geruzako ontzi baten bidez: lehena iragazgaitza da eta material xurgatzailez eta bilgarriz inguratuta dago; bigarrena ere iragazgaitza da, eta hainbat lagin daude, eta kanpoko geruzan substantzia infekzioso edo biologikoaren etiketatzea ageri da.

**19.- Adierazi zein den GEZURRA, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzko 21/2015 Dekretuaren arabera:**

a) Tarteko biltegiratze-aldiak 24 ordutik beherakoa izan behar du.
b) II. taldeko hondakin espezifikoak poltsetan uzten badira, poltsak gorriak izan beharko dira.
c) Eragile bizi indargabetuen txertoak eta objektu zorrotz eta ziztakariak ez bezala, II. taldeko hondakin sanitarioak zentro barruan biltegiratzeko gehieneko epea ez da astebetetik gorakoa izango, salbu eta tenperatura 4. mailatik behera mantenduko dela bermatzen duten hozte-mekanismoak badaude; kasu horretan, hilabetekoa izango da.
d) Elementu zorrotz eta ziztakariak zentro barruan biltegiratzeko gehieneko epea ez da 3 hilabetetik gorakoa izango.

**20.- Txertoak emateari dagokionez, adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) Birus bizien bi txerto parenteral eman behar badira, aldi berean edo gutxienez 2 asteko tartearekin eman behar dira.
b) Kortikoide dosi esanguratsuko tratamenduak dituzten pertsonek (20 mg prednisona/egun) ez dute txerto bizi indargabeturik jaso behar.
c) Oro har, germen biziak dituzten txertoak kontraindikatuta daude haurdunaldian.
d) Berriki immunoglobulinak ematea txertoak emateari buruzko kontraindikazio bat da.

**21.- Adierazi erantzun OKERRA, Osakidetzako LAPeko kudeaketa-sistemaren txertaketa eta kimioprofilaxi protokoloaren arabera:**

a) Ez dago justifikatuta elgorriaren *screening* serologikoa, jasota badago haurtzaroan bi txertaketa-dosi hartu zituela.
b) Barizelaren aurkako txertoa kontraindikatuta dago GIBak eragindako infekzioen kasuan edo immunitate-urritasun zelularrak dituzten pertsonen kasuan.
c) Barizelaren aurkako txertoa duen langile sanitarioari jakinarazi behar zaio txertoa eman eta hurrengo hiru hilabeteetan haurdun geratzea ekidin behar duela.
d) Prebentzio-neurri egokirik gabeko nahi gabe barizela kasu baten eraginpean egonez gero, edo Ac negatibo edo ezezagunaren determinazio baten eraginpean, gomendatzen da barizela-zoster immunoglobulina ematea eraginpean egondako langileei.

**22.- Haurdun dagoen (5 aste) larrialdietako mediku bat prebentzioko oinarrizko unitatera (POU) joan da, eta jakinarazi du aurreko egunean ahoz ahoko bizkortze-maniobrak egin zizkiola paziente bati, eta susmoa duela meningitis meningokozikoa duen. Pazientea ZIUn ingresatuta dago. Adierazi zer jarduketa gomendatu beharko lukeen POUk:**

a) Kimioprofilaxia hastea, 12 orduro 600 mg errifanpizina hartuz, bi egunez.
b) Ahotik 500 mg-ko ziprofloxazino dosi bat ematea, dosi bakarrean.
c) Langileari adieraztea laborategiak baieztatu arte itxaron behar dela zehazteko kimioprofilaxia egin behar den.
d) Jarduketa bat bera ere ez da zuzena, ez baitago kimioprofilaxirik haurdun daudenentzat.

**23.- Lehen urteko pediatriako egoiliar bat joan da POUra. Zer txerto-multzo agintzea gomendatzen da, txerto-kartillan jasota ez badaude?**

a) B Hep, A Hep, C Hep, Tetanos-Difteria Kukutxeztula, Hirukoitz birikoa, Barizela eta Gripea.
b) B Hep, A Hep, Tetanos-Difteria Kukutxeztula, Hirukoitz birikoa, Barizela eta Gripea.
c) B Hep, Tetanos-Difteria Kukutxeztula, Hirukoitz birikoa eta Barizela.
d) B hepatitisa, hirukoitz birikoa eta Barizela.

**24.- Adierazi erantzun ZUZENA tuberkulinaren probari dagokionez:**

a) Birus biziekin berriki egindako txertaketek negatibo faltsuak eragin ditzakete probetan.
b) Aldez aurretik ezagutzen ez den mantouxaren kasuan, langile sanitarioentzat positibotzat jotzen da 15 mm-ko edo gehiagoko tuberkulina-proba egitea.
c) Mikrobiologiako laborategiko langileen kasuan (mikobakterioen unitateak), proba positibotzat jotzen da, 5 mm-ko edo gehiagoko indurazioarekin egiten bada.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**25.- Erizain bat POUra joan da, istripu biologiko bat izan duelako muskulu barneko orratz huts batekin eta BHB-CHB eta GIBaren koinfekzioa duen paziente batekin. Egun horretan lehen erauzketa bat egin zen, eta historia klinikoa kontsultatu ondoren, 10 mUI/ml HBren aurkako antigorputz izan zituen, txertaketa-ziklo baten ondoren. Adierazi jarduteko jarraibide ZUZENA:**

a) B hepatitisaren IG dosi bat jartzea, B hepatitisaren txertaketaren bigarren zikloari ekitea, eta zidobudina zein lamibudina bidezko erretrobudinaren aurkako tratamendua agintzea; jarraipena 2-6-12 eta 24 asteetan egingo zaio.
b) B hepatitisaren txertaketaren bigarren zikloari ekitea, eta zidobudina zein lamibudina bidezko erretrobudinaren aurkako tratamendua agintzea; jarraipena 2-6-12-24 eta 52 asteetan egingo zaio.
c) Trubada (tenifibir eta emtrizitabina) eta isentress (erraltegrabir) bidezko tratamendua agintzea eta jarraipena 2-6-12 eta 24 asteetan egitea programatzea.




d) Trubada (tenifibir eta emtrizitabina) eta isentress (erraltegrabir) bidezko tratamendua agintzea eta jarraipena 2-6-12-24 eta 52 astetan egitea programatzea.

**26.- Haurdunaldirako arriskuagatiko prestazioari dagokionez, Osakidetzako LAPeko kudeaketa-sistemaren arabera, prestazioa 24. astetik aurrera eman daiteke, baldin eta arrisku ziurtatu hau badago:**

a) Guardiak eta gaueko lana.
b) Zamak eskuz manipulatzea.
c) Agente kimikoak.
d) Bipedestazio luzatua.

**27.- Kargak eskuz manipulatzen dituzten langileen osasun-azterketari dagokionez, adierazi zein den erantzun ZUZENA:**

a) Phalen-en proba positibo batek nerbio kubitalaren neuropatia adierazten du.
b) Tinelaren zeinuak nerbio medianoaren lesioa adierazten du.
c) Schöber-en zeinuak aldakaren errotazio-maila neurtzen du.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**28.- MAPO metodoa sektore sanitarioan erabiltzen da, pazienteak manipulatzeagatiko arriskua ebaluatzeko. Adierazi faktore hauetako zein ez den sartzen metodo horren analisian:**

a) Autonomoak ez diren pazienteen proportzioa, langile bakoitzeko.
b) Lanbide arteko lankidetza-faktorea, pazienteak mobilizatzerako orduan beste langile batzuen lankidetza aztertzen duena.
c) Gurpil-aulkien faktorea, haien kopuruaren nahikotasuna aintzat hartuta.
d) Prestakuntza-faktorea.

**29.- Txandaka lan egiteari dagokionez, zein da erantzun ZUZENA?**

a) Goizeko txandan lo paradoxikoa eta, beraz, errekuperazio fisikoa laburtzen dira.
b) Gaueko txandan, loaren/esnaldiaren erritmoa aldatzen denez, loaldi sakona murrizten da, eta, ondorioz, zailagoa da neke psikikoa berreskuratzea.
c) Txanden antolaketari dagokionez, gaueko eta arratsaldeko txandak goizekoak baino luzeagoak ez izatea gomendatzen da; izan ere, ahal dela laburragoak.
d) Txandatze-ziklo laburrek eragiten dute erritmo zirkadianoaren alteraziorik handiena.

**30.- Honako faktore hauek gaueko lanarekiko tolerantzia-faktoretzat hartzen dira, SALBU ETA:**

a) Gorputzaren ziklo termikoa zabaltzea.
b) Nortasun-faktoreak.
c) Faktore sozialak.
d) Txandaketa aldakorrak.

**31.- FPSICO metodoaren faktore psikosozialen ebaluazioan, nola definitzen da lanpostuaren funtzioen parte ez diren baina horiei gehitzen zaizkien zeregin eta erantzukizunen esleipena?**

a) Rolaren argitasuna.
b) Roleko jarduna.
c) Rol-gatazka.
d) Rol-gainkarga.

**32.- FPSICO ebaluazio-metodoaren faktore psikosozialean, alderdi hauetako zein EZ da sartzen "lan karga" dimentsioan?**

a) Denbora-presioak.
b) Denbora-autonomia.
c) Arreta jartzeko ahalegina.
d) Zereginaren kantitatea eta zailtasuna.

**33.- Osakidetzako langile batek eraso bat jasan du bere lanpostuan. Laneko indarkeriaren protokoloak berehalako agintearen zenbait funtzio ezartzen ditu. Adierazi zein den OKERRA:**

a) Berehala laguntza eskaintzea erasotuari.
b) Kaltetuarekin batera gertatutakoari buruzko txosten xehea egitea.
c) Gerentziarekin elkarlanean aritzea egokitzat jotzen diren jarduketetan.
d) Langile erasotua Prebentzio Unitatera laguntzea, erasoaren berri emateko.

**34.- Osakidetzako LAPeko kudeaketa-sistemak langileen erasoei buruz ezartzen duenari dagokionez, zein da ZUZENA?**

a) Orientazio juridikoko gida Prebentzioko Oinarrizko Unitateko langileek emango die erasoak jasan dituzten edo lesioak eragin dituzten langileei.
b) Langile sanitarioen aurkako erasoak agintaritzaren aurkako erasotzat hartzen dira, eta, beraz, salaketa jartzea gomendatzen da beti.
c) Hala eskatzen duten Osakidetzako langileek letraduaren laguntza izango dute salaketa aurkezten den bitartean eta ondoren epaiketa egiten denean.
d) Zuzendaritza-taldearen jarduketen artean sartzen da erasoa jasan duen langileari berehala laguntzea eta egin diren jarduerei buruzko informazioa ematea.

**35.- Adierazi zein den GEZURRA Enpresako Lan-arriskuen Prebentziorako Planari dagokionez:**

a) Prebentzio-zerbitzuak onartu behar du.
b) Enpresaren antolaketa-egiturak bere gain hartu behar du.
c) Enpresaren prebentzio-antolaketa mota ezarri behar du, eta aukeratutako modalitateak azaldu behar du.
d) Zer baliabide tekniko, material eta ekonomiko izango dituen adierazi behar du.




**36.- Euskal Autonomia Erkidegoko autobabes-betebeharrak arautzen dituen 277/2010 Dekretuan ezarritakoari dagokionez, zein da erantzun OKERRA?**

a) Enpresa batek Autobabes Plana egitea segurtasun-buruaren edo eginkizun hori eskuordetu zaion pertsonaren erantzukizuna da.
b) Autobabes Plana Euskadiko autobabes-planen erregistro orokorrean aurkeztu behar da.
c) Autobabes Planak arriskuen identifikazioa eta ebaluazioa jaso behar ditu.
d) Autobabes Planak prebentzio-jarduerak zein larrialdiei erantzutekoak jaso behar ditu.

**37.- Osakidetzako LAPeko kudeaketa-sistemak prebentzio-zerbitzuko pertsonentzat ezartzen dituen funtzioen artean, zein EZ dago?**

a) Langileen prestakuntza.
b) Langileen osasuna sustatzeko programak egitea.
c) Suteen aurkako planak egitea.
d) Lanpostuak irizpide ergonomikoekin diseinatzea.

**38.- Osakidetzako LAParen kudeaketa-sistemaren eskuliburuak erantzukizunak ezartzen dizkie agente hauei, SALBU ETA:**

a) Osakidetzako Antolakundeen Gerentzia.
b) Prebentzio-ordezkariak.
c) Mantentze-zerbitzuak.
d) Praktiketako langileak.

**39.- LAPeko Kudeaketa-sistema Osakidetzan. Zer arrisku mailatarako (AM) ezartzen da "beharrezkoa dela arriskua murrizteko ahaleginak egitea, eta zehaztea behar diren inbertsioak eta ezarpen epeak"?**

a) 2 AM, Txikia.
b) 3 AM, Moderatua.
c) 4 AM, Garrantzitsua.
d) 5 AM, Onartezina.

**40.- Lan-epidemiologiari dagokionez:**

a) Zeharkako azterlanak interes gutxikoak dira aldizkako osasunaren zaintzan.
b) Zeharkako azterlanek kausazko hipotesiak erraz probatzeko aukera ematen dute.
c) Zeharkako azterlanak, oro har, ekonomikoki oso garestiak dira.
d) Zeharkako azterlanak esposizioari eta gaixotasunari buruzko informazioa aldi berean lortzen delako bereizten dira.

**41.- Zeharkako azterketa batean:**

a) Esposizioaren ezagutzatik abiatzen da, eta gaixotasuna bilatzen da.
b) Gaixoak detektatu ondoren, osasuntsu daudenak bilatzen dira, eta bi taldeetan esposizioa aztertzen da.
c) Gehienetan egiten da, luzetara.
d) Esposizio mota bakarra azter daiteke.

**42.- Lan-epidemiologian, zein da langile osasuntsuaren eragina?**

a) Hautaketa-alborapena.
b) Langileen segurtasuna eta osasuna babesteko modu bat.
c) Bitxikeria bat laneko azterlan epidemiologikoetan.
d) Ezabagarria da denborarekin kohorte batean.

**43.- Ikerketa batean X konposatuarekiko esposizioa eta E gaixotasuna agertzea aztertu ditugu. Arrisku erlatibo bat aurkitu da, 1 mailaren baliokidea. Aipatutako produktuaren eraginpean egon ez diren pertsonei dagokienez, zer esan nahi du?**

a) Korrelazio perfektua dago, eta X produktuaren kontzentrazioa handitu ahala, E gaixotasunaren kasuen kopurua handitu egiten da.
b) Definizioz, ez da posiblea.
c) E gaixotasunak X konposatuaren eraginpean daudenen eta ez daudenen artean duen eragina berdina da.
d) Horrelako azterlan batean ezin da arrisku erlatiboa kalkulatu.

**44.- 2017an ospitale batean izandako lan-istripuak (LI) aztertuta, lan egindako 1.000 orduko 10,5eko LI indizea kalkulatu dugu. Zer da zifra hori, ikuspegi epidemiologikotik?**

a) Prebalentzia-tasa bat.
b) Intzidentzia-dentsitate bat.
c) Aukera-arrazoi (Odds ratio) bat.
d) Ehuneko bat.

**45.- Enpresa batean, arnasbideetako infekzio jakin bat duten pertsonen datuak aztertzen dira, bi sekziotan. Ikusi duzu A sekzioak 3ko arrisku erlatiboa duela B sekzioaren aldean. Horrek zer esan nahi du?**

a) A sekzioak B sekzioak baino % 30 infekzio gehiago dituela.
b) A sekzioak B sekzioak baino % 3 infekzio gehiago dituela.
c) A sekzioak B sekzioak baino 3 aldiz infekzio-intzidentzia handiagoa duela.
d) Aurreko erantzun guztiak baliagarriak dira.

**46.- Kargak manipulatzea arrisku nagusi duen zerbitzu batean, erakundeak oso sistema eraginkorra du osasun-arrazoiengatik lekualdatzeko, lunbalgietarako. Ikuspegi epidemiologikotik, zein da osasun-arrazoiengatiko lekualdatze-sistema?**

a) Sailkapen-alborapena.
b) Nahasmendu-faktore bat.
c) Hautaketa-alborapena, datuak aztertzeko fasean kontrola daitekeena.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**47.- Lanean, osasunaren-zaintzan genero ikuspegia sartzeko, zer jaso behar da?**

a) Sexua aldagaia ezagutzea nahikoa da.
b) Aldagai soziodemografikoak ez dira beharrezkoak.
c) Genero-kontzeptuan eragina duten aldagai guztiak jaso behar dira, ez soilik sexua.
d) Erizaintza bezalako kolektibo feminizatuetan ikuspegi hori ez da beharrezkoa.

**48.- Ospitale bateko bi zerbitzuren arteko lunbalgia-intzidentziari buruzko azterlan baten barruan, arrisku erlatibo bat dugu. Arrisku hori 1 mailakoa da adinaren arabera estandarizatutako tasak erabiltzen badira, eta 3 mailakoa estandarizatu gabeko tasak erabiltzen badira. Zer esanahi izan lezake?**

a) Ezin liteke tasa estandarizatuen arrisku erlatiboa txikiagoa izatea.
b) Ezin liteke tasa estandarizatuen arrisku erlatiboa handiagoa izatea.
c) Estandarizatu gabeko intzidentzia-tasa txikiena duen zerbitzua leku egokia da osasun-arrazoiengatik lekualdatzeko.
d) Esposizioa ziurrenik antzekoa da, eta langileen adinak desberdinak (zaharragoa).

**49.- Osakidetzako LAPeko kudeaketa-sistemaren lan-istripuen prozeduraren arabera, nola deitzen zaie lan-istripu bat gertatzeko esku har dezaketen lanpostuari, inguruneari edo materialei egotz dakizkiekeen inguruabarrei?**

a) Gorabeherak.
b) Ekintza ez-seguruak.
c) Baldintza ez-seguruak.
d) Ustekabeko alderdiak.

**50.- Zein da biosegurtasuna kudeaketa-sisteman integratzearen helburu nagusia?**

a) Ospitaleetako produktibitatea hobetzea.
b) Osasun-kostuak soilik murriztea.
c) Prebentzioa antolaketa-prozesu guztietan txertatzea.
d) Protokolo idatzien kopurua handitzea.

**51.- Zer faktore da funtsezkoa biosegurtasun-gailuen eraginkortasunean?**

a) Kostu txikia.
b) Langileek behar bezala erabiltzea.
c) Ebakuntza-gelan soilik erabiltzea.
d) Diseinu estetikoa.

**52.- Zein da langile sanitarioen arrisku biologikorik ohikoena?**

a) Aerosolak arnastea.
b) Ukipenik gabeko larruazaleko kontaktua.
c) Odolarekiko eta gorputz-jariakinekiko esposizioa.
d) Ingurunearen kutsadura.

**53.- Zer da ezinbestekoa biosegurtasuneko oinarrizko prestakuntzak barne hartzea?**

a) Arriskuak eta prebentzio-neurriak
b) Esposizioaren osteko jarduketa.
c) Arriskuak, prebentzio-neurriak eta esposizioaren osteko jarduketa.
d) Azken ebaluazioa bakarrik.

**54.- Biosegurtasunean zer prestakuntza mota da egokiena?**

a) Prestakuntza guztia *online*.
b) Prestakuntza guztia aurrez aurre.
c) Mistoa: teoriko-praktikoa.
d) Autoikaskuntza-prestakuntza.

**55.- Zein da prestakuntza ebaluatzearen helburua?**

a) Kostua justifikatzea.
b) Prestakuntza-orduak gehitzea.
c) Istripuen murrizketan duen eragina neurtzea.
d) Kostuen murrizketan duen eragina neurtzea.

**56.- Zer sartzen da neurri estandarretan?**

a) Eskularruak behar bezala erabiltzea.
b) Paziente guztiei aplikatu beharreko neurriak.
c) Paziente infekziosoei aplikatu beharreko neurriak.
d) Ebakuntza-gelan aplikatu beharreko neurriak.




**57.- Osasunaren arloko profesionalentzako Biosegurtasun Gidan (Osasun Ministerioa, 2015), zehazki, zer txerto gomendatzen da?**

a) COVID-19ren kontrakoa.
b) Gripearen kontrakoa.
c) B hepatitisaren kontrakoa.
d) Tetanosaren kontrakoa.

**58.- Zein da esposizio biologikoaren osteko lehen jarduketa?**

a) Gainbegiraleari jakinaraztea.
b) Tratamendua edota txertaketa hastea.
c) Esposizioaren osteko berehalako jarduketa.
d) Gorabeheraren erregistroa.

**59.- Esposizioaren osteko profilaxiarekin (EOP) lotutako jarduerei dagokienez, adierazi zein den erantzun ZUZENA:**

a) Istripua izan duena ez bazegoen txertatuta, jarraipen serologikoa egin behar da esposiziotik 6 aste eta 3 eta 6 hilabetera.
b) Istripua izan duena ez bazegoen txertatuta, jarraipen serologikoa egin behar da esposiziotik 3 aste eta 3 eta 6 hilabetera.
c) Istripua izan duena ez bazegoen txertatuta, jarraipen serologikoa egin behar da esposiziotik 6 aste eta 4 eta 6 hilabetera.
d) Istripua izan duena ez bazegoen txertatuta, jarraipen serologikoa egin behar da esposiziotik 3 aste eta 4 eta 6 hilabetera.

**60.- Zein agente EZ da garrantzitsutzat jotzen EOPn?**

a) GIBa.
b) BHB.
c) CHB.
d) EHB.

**61.- Biosegurtasun pasiboko gailuei dagokienez, adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) Erabiltzaileak ez du ekintza espezifikorik egin behar segurtasuna aktibatzeko.
b) Prozeduran ez da aldaketarik egin behar segurtasuna aktibatzeko.
c) Ez dira hain eraginkorrak ziztada bidezko lesioen prebentzioan.
d) Segurtasuna goiz aktibatzea ahalbidetzen dute.

**62.- Biosegurtasunaren oinarrizko prestakuntzaren barruan, zer sartuko da osasun-gailuak behar bezala erabiltzeko prestakuntzan?**

a) Biosegurtasuneko materialen aurkezpen teorikoa.
b) Lantegi praktikoak langileari materialarekin ohitzen laguntzeko.
c) Biosegurtasun-materialaren fabrikatzaileen edo banatzaileen parte-hartzea.
d) Horiek denak.

**63.- Nola deitzen zaio gaixotasuna patogeniaren aurreko aldian gertatzeko probabilitatea murriztera bideratutako neurrien multzoari?**

a) Lehen mailako prebentzioa.
b) Bigarren mailako prebentzioa.
c) Hirugarren mailako prebentzioa.
d) Horietako bat bera ere ez.

**64.- Nola esaten zaie gaixotasuna dagoeneko azaldu denean aplikatutako neurri guztiei, zeinak gaixotasunaren bilakaera atzeratu nahi duten?**

a) Lehen mailako prebentzioa.
b) Bigarren mailako prebentzioa.
c) Hirugarren mailako prebentzioa.
d) Horietako bat bera ere ez.

**65.- Zer eginkizun dute fabrikatzaileek biosegurtasun-prestakuntzan?**

a) Bat bera ere ez.
b) Ospitaleko gerenteen prestakuntza babestea.
c) Eraginpean dauden langileen prestakuntza-lantegiak babestea.
d) Eraginpean dauden langileen prestakuntza egokia gainbegiratzea.

**66.- Zer ebaluatu behar da biosegurtasun-prestakuntzaren ondoren?**

a) Prestakuntzaren estaldura.
b) Prestakuntzaren estaldura eta horrek duen eragina prozedura-betetzearen atxikimenduan.
c) Prestakuntzak duen eragina prozedura-betetzearen atxikimenduan.
d) Prestakuntzaren estaldura eta horrek duen eragina prozedura-betetzearen atxikimenduan eta istripuak murriztean.

**67.- Zein talde da biosegurtasun-prestakuntzaren xede-populazioaren parte?**

a) Medikuak.
b) Erizainak.
c) Eraginpean dauden langile sanitario guztiak.
d) Teknikariak bakarrik.

**68.- Zer espezialitatek behar dute prestakuntza espezifikoa?**

a) Kirurgikoek.
b) Horiek guztiek, arriskuaren arabera.
c) Laborategiak bakarrik.
d) Larrialdietako unitateak bakarrik.

**69.- Odolak garraiatzen dituen mikroorganismo guztiei dagokienez, nola esaten zaio lan-arriskua prebenitzeko praktiken multzoari?**

a) Neurri estandarrak.
b) Neurri espezifikoak.
c) Neurri unibertsalak.
d) Horietako bat bera ere ez.

**70.- Eskuen higienea neurri estandar izateari dagokionez, zein da erantzun OKERRA?**

a) Odola edo fluido biologikoak ukitu ondoren egin behar da.
b) Eskularruak kendu eta berehala egin behar da, paziente baten eta bestearen artean, eta hala agintzen denean pazienteen arteko kutsadura saihesteko.
c) Mikrobioen aurkako xaboia erabili behar da eskuak ohiko moduan garbitzeko.
d) Baliteke paziente bera artatzean lanen artean garbitu behar izatea, infekzio gurutzatuak saihesteko.

**71.- Biosegurtasunari dagokionez, adierazi zein den GEZURRA:**

a) Maskarak aurpegiaren gainazalera ondo egokituta jarri behar dira, sudurra eta ahoa erabat estalita.
b) Eraginkortasun handiko maskara, oro har, erizaintzako langileek erabili behar dute.
c) Mantala erabili behar da larruazala babesteko, odol- edo fluido-zipriztinak egon daitezkeen jardueretan.
d) Eraginkortasun handiko maskara hala erabiltzea eskatzen duten egoera jakin batzuetan baino ez da erabiliko.

**72.- Biosegurtasunari dagokionez, hauetako zein ez da neurri unibertsal bat?**

a) Txertaketa.
b) Norberaren higienerako arauak.
c) Esterilizazioa.
d) Horiek guztiak dira.

**73.- Biosegurtasunari dagokionez, adierazi zein den ZUZENA:**

a) BHB da osasunaren arloan sarrien kutsatzen den odol-birusa.
b) AHB da osasunaren arloan sarrien kutsatzen den odol-birusa.
c) GIBa da osasunaren arloan sarrien kutsatzen den odol-birusa.

d) Bat bera ere ez da zuzena.

**74.- Adierazi zein den GEZURRA, BHBren aurkako txertaketari dagokionez:**

a) Helduei muskulu barnetik ematen zaie, deltoidean.
b) Osasunaren arloan, lanbide-kategoria guztiei aplikatzen zaie.
c) Lehen mailako arretaren eta arreta espezializatuaren eremuak zein larrialdi-zerbitzuak barne hartzen ditu.
d) Helduetan muskulu barnetik ematen da, larruazalpetik.

**75.- Adierazi zein den ZUZENA, BHBren aurkako txertaketari dagokionez:**

a) Immunizazio-pauta 3 dosikoa da 0,1 eta 6 hilabetera.
b) Immunizazio-pauta 3 dosikoa da 0,1 eta 4 hilabetera.
c) Immunizazio-pauta 3 dosikoa da 0,1 eta 5 hilabetera.
d) Horiek guztiak BHBren aurrean immunizatzeko pauta zuzenak dira.

**76.- Zein egoeratan EZ litzateke aplikatuko BHBren aurkako txertaketa azkartuaren pauta?**

a) Esposizioaren osteko egoeretan.
b) Txertatu gabeko langile sanitarioetan.
c) Nazioarteko bidaietan.
d) Hemodializatuetan.

**77.- Nola esaten zaio BHBren aurkako txertaketa-serie oso 1 edo 2 eman ondoren txertoaren osteko serobihurketa bat garatzen duen pertsonari?**

a) Bihurtzaile.
b) Serobihurtzaile.
c) Erantzule.
d) Ultrabihurtzaile.

**78.- Adierazi zein den erantzun ZUZENA arrisku biologikoaren eraginpean dauden langile sanitarioen osasunaren zaintzari (OZ) dagokionez:**

a) OZ esposizioa baino lehen eskaini beharko da.
b) OZ tarte erregularretan eskaini beharko da langileak eskatzen duenean.
c) OZ 12 hilean behin eskaini beharko da.
d) Guztiak zuzenak dira.

**79.- Zer helburu du biosegurtasunak?**

a) Produktibitatea handitzea.
b) Agente biologikoekiko esposizioa saihestea.
c) Kostuak murriztea.

d) Instalazioak hobetzea.

**80.- Hauetako zein EZ da osasun-azterketaren helburu bat osasun-langile batentzat?**

a) Egin beharreko lanerako gaitasuna baloratzea.
b) Lanerako ezgaitzen duten gaixotasunak egotea baztertzea.
c) STIak egotea baztertzea.
d) Ebaluatzea ea lana egitean garatu edo larriagotu daitekeen aurretiko jokabiderik edo gaixotasunik dagoen.

**81.- Adierazi zein den erantzun OKERRA Osakidetzako langile sanitarioen aldizkako osasun-azterketari dagokionez:**

a) Langile finkoei aplikatuko zaie protokolo espezifikoak ezartzen duen aldizkakotasunarekin, arriskuaren arabera.
b) Aurreko osasun-azterketatik lanpostu berean aritu diren behin-behineko langileei aplikatuko zaie, protokolo espezifikoak ezartzen duen aldizkakotasunarekin, arriskuaren arabera.
c) 1. eta 2. mailako prebentziora bideratuta dago.
d) 3. mailako prebentziora bideratuta dago.

**82.- Adierazi zein den erantzun OKERRA Osakidetzako langile sanitarioei EZ gai bat helarazteari dagokionez: Noiz ematen da?**

a) Langilea laneko bajan dagoenean aldi baterako ezintasunagatik.
b) Langileak ezin dituenean bere lanak aldi baterako egin, erakundeak egokitze-neurriak hartu arren.
c) Aurkikuntza kliniko batzuk daude, aldi baterako bateraezintasuna duten behaketak edota tratamenduak egitera behartzen dutenak lanpostuko zereginak egiteko.
d) Izangaiak mugak dituenean eskainitako lanpostu bateko oinarrizko zereginak betetzeko.

**83.- Honako baldintza hauek guztiak bete behar dira etxebizitzatik lantokira lekualdatzean (edo alderantziz) gertatutako istripu bat "*in itinere*" lan-istriputzat hartzeko, bat IZAN EZIK. Zein?**

a) Ohiko ibilbidea ez da nahita aldatu edo eten.
b) Langileak ez du inoiz irten behar lantokitik teorian txanda-amaitzen duen ordua baino 15 minutu geroago.
c) Denbora-tartea ohiko mugen barruan dago.
d) Lanera joateko eta lanetik itzultzeko erabilitako ibilbidea logikoena eta zentzuzkoena da.

**84.- Lan-istripuarekin lotutako definizio hauetako zein da GEZURRA?**

a) Baldintza ez-seguru bat langilearen beraren inguruabarra da, eta esku har dezake lan-istripu baten sorreran.
b) Baldintza ez-seguru bat langileaz kanpoko inguruabarra da, eta esku har dezake lan-istripu baten sorreran.
c) Ekintza ez-seguru bat langilearen beraren inguruabar, ekintza edo jokabidea da, eta esku har dezake lan-istripu baten sorreran.
d) Bajarik gabeko lan-istripua gertatzen da gorputzeko lesioak ez dionean eragozten ohiko lanean jarraitzea.

**85.- Adierazi zein den erantzun OKERRA langile sanitarioen lan-istripuetako asistentzia sanitarioari dagokionez:**

a) Istripua izan duena bere erreferentziako ospitaleko Prebentzioko Oinarrizko Unitatean arta daiteke.
b) Istripua izan duena haren lehen mailako arretako medikuak arta dezake.
c) Istripua izan duena bere erreferentziako ospitaleko Larrialdi Zerbitzuak arta dezake.
d) Istripua izan duena haren lan-istripuen mutualitateak arta dezake.

**86.- Adierazi zein den erantzun ZUZENA lan-istripuen (LI) maiztasun-indizearen definizioari dagokionez:**

a) Bajadun LIen kopuruaren eta lan egindako orduen kopuruaren arteko zatidura x 1.000.000 da.
b) Bajadun LIen kopuruaren eta lan egindako orduen kopuruaren arteko zatidura x 1.000 da.
c) Galdutako lanaldien kopuruaren eta lan egindako orduen kopuruaren arteko zatidura x 1.000.000 da.
d) Galdutako lanaldien kopuruaren eta lan egindako orduen kopuruaren arteko zatidura x 1.000 da.

**87.- Adierazi zein den erantzun ZUZENA, aldi baterako ezintasunagatiko bajaren gehieneko iraupenari dagokionez:**

a) 365 egunekoa da, eta beste 180 egunez luza daiteke, luzapen-aldi horretan langileak sendaketagatiko alta medikoa jaso dezakeela uste bada.
b) 365 egunekoa da, eta beste 180 egunez luza daiteke, langilea sendatu egingo delako alta medikoa hartuko duela aurreikusi edo ez.
c) 365 egunekoa da, eta beste 365 egunez luza daiteke, luzapen-aldi horretan langileak sendaketagatiko alta medikoa jaso dezakeela uste bada.
d) 365 egunekoa da, eta beste 365 egunez luza daiteke, langilea sendatu egingo delako alta medikoa hartuko duela aurreikusi edo ez.

**88.- Adierazi erantzun ZUZENA gaixotasun profesionalagatiko (GP) behaketa-aldiari dagokionez.**

a) Gaixotasun profesionalen behaketagatiko bajak 365 eguneko iraupena izango du gehienez.
b) Gaixotasun profesionalen behaketagatiko bajak 180 eguneko iraupena izango du gehienez.
c) Gaixotasun profesionalen behaketagatiko bajak 180 eguneko iraupena izango du gehienez, eta beste 180 egunez luzatu ahal izango da, GPen azterketarako eta diagnostikorako beharrezkotzat jotzen denean.
d) Gaixotasun profesionalen behaketagatiko bajak 365 eguneko iraupena izango du gehienez, eta beste 180 egunez luzatu ahal izango da, GPen azterketarako eta diagnostikorako beharrezkotzat jotzen denean.

**89.- Adierazi zein den erantzun ZUZENA Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorraren (GSEO) arabera, aldi baterako ezintasuneko egoeran dagoen prestazio ekonomikorako eskubideari dagokionez.**

a) Gaixotasun arruntaren (GA) kasuan, gertaera eragilearen aurretik 180 egun kotizatu dituela egiaztatzea eskatzen da.
b) GAren kasuan, ez da aldez aurreko kotizazio-aldirik eskatzen.
c) Lan-istripuaren kasuan, gertaera eragilearen aurretik 180 egun kotizatu dituela egiaztatzea eskatzen da.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**90.- Hauetako zein ez da ezintasun iraunkorreko maila bat, 8/2015 EDren arabera?**

a) Ezintasun iraunkor partziala.
b) Ezintasun iraunkor osoa.
c) Ezintasun iraunkor orokorra.
d) Ezintasun iraunkor absolutua.

**91.- Snook-en eta Cirello-ren tauletan erabiltzen diren aldagaiei dagokienez, zeinak kargak eskuz bultzatzeko, arrastatzeko eta garraiatzeko eragiketak ebaluatzeko erabiltzen diren (GSINen aplikazioan jasotakoak), baieztapen hauetako zeinek deskribatzen du zuzen aldagai horien aplikazioa eta neurketa, gomendatutako muga-balioak zehazteko?**

a) Eskuen altuera xehetasunik gabe neurtzen da, eragiketa mota kontuan hartu gabe; egindako distantziak ez du eraginik epe luzera metatutako nekean, eta taulak gizonezko langileen % 50 soilik babesteko diseinatuta daude.
b) Gehieneko indar onargarria zehazteko, kontuan hartzen dira eskuen altuera (indarra aplikatzeko puntua), karga garraiatuz edo bultzatuz egiten den distantzia, ekintzaren maiztasuna eta biztanleriaren pertzentila (ezarri ohi den helburua biztanleriaren % 90 babestea da).
c) Bultzada eta arrasteko postuen diseinu segururako gomendatutako biztanleriaren pertzentila 10 da. Horrek esan nahi du kalkulatutako mugako indarrak soilik langile indartsuen % 10ek bakarrik lortu ahal izango dituztela.

d) Zereginaren maiztasuna orduko ekintzetan soilik neurtzen da, aldi laburretako errepikakortasun handiko zereginak alde batera utzita, eta egindako distantzia garraioari bakarrik aplikatzen zaion aldagaia da, ez bultzadari eta arrasteari.

**92.- 1142 POTaren arabera, zein dira Dotte-ren metodoaren hiru oinarri metodologikoak?**

a) Ergonomia, biomekanika eta fisioterapia.
b) Desplazamendu espontaneoa, ergomotrizitatea eta ergonomia.
c) Gorputz-jarrera seguruak, laguntza teknikoak eta errehabilitazioa.
d) Antropometria, psikomotrizitatea eta mantenua.

**93.- Txandakako eta gaueko lanari lotutako osasunaren zaintzaren eta arriskuen prebentzioaren esparruan, LSOINren irizpide teknikoen eta haren prebentzio-ohar tekniko aplikagarrien (POT) arabera, baieztapen hauetako zein da zuzenki langileen erritmo biologikoen eta osasunaren alterazioak arintzeko funtsezko printzipio ergonomikoa eta antolaketazkoa?**

a) Alderantzizko txanda birakariek (goizez/gauez/arratsaldez) egokitzapen biologiko azkarragoa errazten dute, barneko erloju zirkadianoa hobeto egokitzen delako fasearen aurrerapenera fasearen atzerapenera baino.
b) Osasun-azterketa espezifikoa eta aldizkakoa nahitaezkoa da gaueko langile guztientzat, eta arreta berezia jarri behar zaie urdail-hesteetako, nerbioetako eta loaren nahasmenduei, intolerantzia-adierazle gisa.
c) Txanden prebentziozko diseinuaren ikuspegitik, txandakatze ziklo luzeak (15 edo 30 egunean behin txanda aldatzea) ziklo laburrak baino hobeak dira beti (2 edo 3 egunean behin aldatzea), erritmo zirkadianoa gaueko ordutegira egokitzea eta erabat egonkortzea ahalbidetzen dutelako.
d) Espainiako legediak zehatz-mehatz debekatzen du 55 urtetik gorako langileek gaueko lanaldiak edo gaueko txandak egitea, adinarekin erritmo zirkadianoak naturalki gainbeheran joaten dira eta.

**94.- Datuak bistaratzeko pantailekin (DBP) lan egiteak eta lan-esposizioaren eraginpean dauden langileen osasuna zaintzeak dakartzan arriskuei dagokienez, baieztapen hauetako zein da ZUZENA?**

a) DBPak erabiltzen diren lanetan, osasunaren zaintzak lehentasunez nahasmendu oftalmologiko objektibagarriak detektatzean oinarritu behar du, horregatik, nahasmendu muskulueskeletikoak eta neke mentala lanpostuaren ebaluazio ergonomikoaren mende baino ez daude.
b) 488/1997 Errege Dekretuak ezartzen du DBPak erabiltzen dituzten langileen osasunaren zaintzak berariaz jaso behar dituela ikusmen-arriskuak, nahasmendu fisikoak eta karga mentala, eta zaintza hori esposizioa hasi aurretik eskaini behar dela, baita zaintza hasi ondoren aldizkakotasun egokiarekin eta lanarekin lotutako alterazioak agertzen direnean ere.
c) DBPen “langile erabiltzaile” izateak eskatzen du egunean gutxienez 6 orduko esposizio jarraitua izatea pantailaren aurrean, eta, beraz, hori baino txikiagoak diren esposizioak osasunaren zaintzako betebehar espezifikoetatik kanpo geratzen dira.

d) DBPak dituzten lanpostuetako prebentzio-neurriak behar bezala ezarrita daudela uste da langileak altzari ergonomiko homologatuak dituenean, eta ez da beharrezkoa izango etenaldiak edo jarduera aldaketak ezartzea, aurretik sintomatologia klinikorik ez badago.

**95.- Osasunaren arloko arrisku psikosozialeko faktoreei eta lanpostuko indarkeriari dagokienez, baieztapen hauetako zein da ZUZENA?**

a) Sektore sanitarioari aplika dakizkiokeen ebaluazio psikosozialeko metodo orokorrak antolaketa-adierazle kuantifikagarrietan oinarritzen dira lehentasunez; beraz, pertzepzio indibidualeko galdetegiak gehitzeak balio osagarria baino ez du, eta ez du prebentzio-garrantzi autonomorik.

b) Sektore sanitarioan laneko indarkeria prebentziozkotzat hartzeko, beharrezkoa da nahita egindako jokabide bat izatea, ikus daitekeen emaitza kaltegarria duena. Ez daude horien barne hitzezko larderia edo kontaktu fisikorik gabeko mehatxuak.

c) Osasunaren arloko arrisku psikosozialeko faktore-konbinazio aitortuak dira eskakizun emozional handiak, karga mental handia, txandakako lana eta erabiltzaileen edo hirugarrenen indarkeriazko jokabideak aldi berean jasatea. Horiek baliozkotutako tresnen bidez, hala nola COPSOQ-ISTAS21, ebaluatu daitezke.

d) Zentro sanitarioetan ebaluazio psikosozialerako metodologia espezifikoak erabiltzeko, aldez aurretik, osasun-kalteak identifikatu behar dira adierazle epidemiologikoen edo osasunaren zaintza kolektiboko emaitzen bidez.

**96.- Arrisku psikosozialak ebaluatzeko COPSOQ (ISTAS21/PSQCAT21) metodoari dagokionez, adierazi baieztapen ZUZENA:**

a) COPSOQ metodoak nahitaez bete beharreko esposizio psikosozialeko muga-balioak ezartzen ditu, zeinak homogeneoak diren jarduera sektore guztietarako, eta higiene industrialean erabilitako ingurumeneko muga-balioekin aldera daitezkeen.

b) COPSOQ metodoak emaitzen interpretazioa soilik puntuazio indibidual agregatuetan soilik oinarritzen du, analisi-unitate bereizirik eta kanpoko biztanleria-erreferentziarik gabe.

c) COPSOQ metodoak eredu teorikoak, hala nola eskaria-kontrola-laguntza soziala eta ahalegina-saria, biltzen ditu, galdetegi estandarizatuak erabiltzen ditu eta biztanleriaren erreferentziak jasotzen ditu faktore psikosozialekiko esposizioan hobekuntza-arloak identifikatzeko.

d) COPSOQ metodologia 25 langile baino gehiago dituzten erakundeetan bakarrik aplika daiteke, beharra dagoelako aztertutako dimentsio psikosozial guztietan behar besteko ordezkaritza estatistikoa bermatzeko

**97.- LSOINren 477 POTaren arabera, kargak eskuz altxatzeko berrikusitako NIOSH ekuazioaren asimetria-faktoreari (AM) dagokionez, baieztapen hauetako zein da ZUZENA?**

a) Asimetria-faktorea adierazpen honen bidez kalkulatzen da: $AM = 1 - (0{,}032A)$, A enborraren biraketa-angelua izanik

b) Biraketa-angelua 90º-tik gorakoa denean, AM balioa 0tzat hartu behar da.

c) POTek ezartzen du, hitzez hitz, biraketa-angelua 135º-tik gorakoa bada, AM = 0 hartuko dugula.

d) Altxaketa batez besteko plano sagitaletik kanpo amaitzen denean bakarrik hartzen da kontuan mugimendu asimetrikoa.

**98.- Erakunde sanitarioetan lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistemei eta prebentzio-integrazioaren printzipioari dagokienez, zein da baieztapen ZUZENA?**

a) Prebentzioa enpresa sanitarioaren kudeaketa-sistema orokorrean integratu dela jotzen da erakundeak prebentzio-jarduera espezializatuak teknikoki bere gain hartzen dituen kanpoko prebentzio-zerbitzu bat duenean.

b) Erdi-mailako arduradunei eta asistentzia-arduradunei prebentzio-eginkizunak esleitzeak salbuetsi egiten du osasunaren arloko enpresaburua prebentzio-sistemaren ezarpen eraginkorra zaintzeko eta kontrolatzeko betebeharretik.

c) Prebentzioa integratzeak esan nahi du prebentzio-jarduerak erakunde sanitarioaren maila hierarkiko guztietako jarduera eta erabakietan txertatzen direla, prebentzio-arloko erantzukizunak eta eginkizunak esleitzearen bidez.

d) Zentro sanitarioetan, protokolo asistentzia-klinikoak eta asistentzia-kalitateko sistemak egoteak prebentzio-kudeaketa integraturako mekanismo espezifikoak ezartzeko betebeharra ordezten du.

**99.- Osasunaren arloko lan-baldintzak aztertzeari dagokionez eta arriskuen identifikazioan, ebaluazioan eta kontrolean duten aplikazioari dagokionez, bereziki sentikorrak diren langileen babesa eta amatasuna barne, adierazi baieztapen ZUZENA:**

a) Arrisku jakin batzuekiko bereziki sentikorra den langilearen izaera osasun-kalte kliniko bat agertu ondoren baino ezin da ezarri, eta osasunaren zaintza da hori zehazteko bitarteko baliodun bakarra.

b) Osasunaren arloan amatasuna babestea lanpostua egokitzera soilik mugatzen da, eta ezin da eskatu funtzioak aldatzea, ezta lanpostua aldatzea ere, salbu eta aldi baterako ezintasuneko kasuetan.

c) Arriskuen ebaluazioak (AE) langilearen ezaugarri indibidualak hartu behar ditu kontuan, eta, beraz, sentikortasun berezi edo haurdunaldia dagoenean, enpresaburuak prebentzio neurriak hartu behar ditu, besteak beste, lanpostua egokitu, funtzioak aldatu edo beste lanpostu bateragarri bat esleitu, prebentzio jarduketaren hierarkiaren arabera.

d) Bereziki sentikorrak diren langileak identifikatzeak lanpostua berriro ebaluatzeko betebeharretik salbuesten du, uste baita banakako ebaluazioak arriskuen hasierako ebaluazioa ordezten duela.

**100.- LSOINren 1211 POTaren arabera, istripu-tasaren kontrol estatistikoaren metodoaren aplikazioari dagokionez, kasu hauetako zeinetan lan-istripuek "jarraitzen dute Poisson-en banaketa"?**

a) Kontuan hartutako aldian lan egindako orduen kopurua 10.000tik beherakoa denean, eta segidan aldiak metatu behar direnean metodoa aplikatzeko.

b) Lan egindako orduen kopurua 1.200.000 baino handiagoa denean eta istripu-banaketa banaketa arruntera hurbiltzen denean.
c) Lan egindako orduen kopurua 10.000 baino handiagoa denean baina 1.200.000 baino gutxiago.
d) Ikasketa-aldirako espero den maiztasun-indizea 50 edo handiagoa denean.

**101.- NTP 1211ren arabera, muga-lerroen metodoari dagokionez, zerk ahalbidetzen du maiztasun-indizearen (MI) bilakaera detektatzea?**

a) Maiztasun-indizearen aldaketak banaketa normalaren ondoriozko desbideratze estandarrei bakarrik erantzuteak.
b) Izandako aldaketak ausazko fluktuazio baten edo lan-baldintzak aldatu ahal izan dituen faktore berri baten sarreraren ondorio izateak.
c) Metatutako intzidentzia-indizeak laneko istripuen larritasunerako ezarritako muga estatistikoak gainditzeak.
d) Benetan lan egindako orduek urteko espero den indizearekiko desbideratze esanguratsuak izateak.

**102.- LSOINren 1211 POTaren arabera, zer baldintza bete behar du indize estatistiko batek enpresen, aldien edo sektoreen arteko konparazio baliodunak egin ahal izateko?**

a) Aztertutako aldian gertatutako baja eragindako istripuen kopuru absolututik abiatuta soilik kalkulatu behar da.
b) Magnitude homogeneoak lotu behar ditu, konparazioa ahalbidetuko duen erreferentzia-oinarri komun baten bidez.
c) Laneko intzidentziaren eta larritasunaren ehuneko metatuen bidez bakarrik adierazi behar da.
d) Bajen maiztasunaren, larritasunaren eta batez besteko iraupenaren adierazleak barne hartu behar ditu aldi berean.

**103.- 629 POTaren arabera, OCRA metodoaren bidez ebaluatutako arrisku-faktore osagarriei dagokienez, egoera hauetako zein jotzen da espezifikoki arrisku-faktore osagarritzat?**

a) Lanaldiko zeregin errepikakorren eta administrazio-zereginen arteko txandakatze sistematikoa.
b) Errekuperazio-etenaldiak egotea, benetako laneko bi ordutik behin modu homogeneoan banatuta.
c) Eskuaren eta besoaren arteko bibrazioa egoteak (bibrazio horren eraginpean egonez gero) eragina du arriskuaren estimazioan, eta puntuazio desberdina ezartzen da bibrazioaren magnitudea arina/moderatua edo bizia izan.
d) Ekintza teknikoen kopurua murriztea, ekoizpen prozesuaren automatizazio partzialaren bidez.

**104.- Jendaurreko zentro batean, hainbat langilek erabiltzaileen irainak eta ahozko mehatxuak jasan dituzte, batez ere lan-karga handiko uneetan. Enpresak bezeroaren arretako prestakuntza indartzea baino ez du erabaki, antolaketa aldatu gabe eta arriskua ebaluatu gabe. LAPari buruzko 31/1995 Legearen eta LSOINren irizpideen arabera, zein baieztapen da ZUZENA?**

a) Prestakuntza prebentzio-neurri nahikoa da, kanpoko indarkeria ez baita lan-arrisku ebaluagarritzat hartzen.
b) Enpresak behar bezala jokatzen du eraso fisikorik ez badago.
c) Enpresak kanpoko indarkeriaren arrisku psikosoziala ebaluatu behar du, eta antolaketa- eta prebentzio-neurri gehigarriak hartu.
d) Langileek gertakari bakoitza banaka salatzen dutenean bakarrik da nahitaezkoa jardutea.

**105.- Pazienteak eskuz mobilizatzen dituzten langile sanitarioen karga fisikoaren analisian, zer irizpide jotzen da egokientzat praktikan zereginari lotutako arrisku ergonomikoa zenbatesteko, LSOINren Prebentzio-ohar Teknikoen (POT) arabera?**

a) Langilearen gorputz-masaren indizea eta adina.
b) Langilearen energia-kontsumo basala.
c) Energia-kontsumoa ebaluatzea bihotz-maiztasunaren, oxigeno-kontsumoaren edo lanaren estimazio metabolikoaren bidez.
d) Esfortzuaren pertzepzio subjektiboa neurketa fisiologikorik gabe.

**106.- Zein aldagai fisiologiko erabiltzen da gehien karga fisiko dinamikoa kalkulatzeko?**

a) Gorputz-tenperatura.
b) Bihotz-maiztasuna.
c) Tentsio arterial basala soilik.
d) Glukosaren maila.

**107.- Datuak bistaratzeko pantailak (DBP) dituzten ekipamenduak erabiltzearen ondoriozko arriskuak ebaluatzeko eta prebenitzeko LSOINren Gida Teknikoaren arabera, zer baldintza bete behar da langile bat 488/1997 Errege Dekretuaren aplikazio-eremuaren barruan dagoela jotzeko?**

a) Lanaldian zehar noizbehinka datuak bistaratzeko pantailak erabiltzea.
b) Normalean eta bere lanaren zati garrantzitsu batean bistaratzeko pantaila duen ekipamendu bat erabiltzen duen edozein langile.
c) Ordenagailu eramangarriekin lan egitea, erabilera-denbora edozein dela ere.
d) Pantailak erabiltzea soilik informazioa noizean behin kontsultatzeko.

**108.- DBPren ergonomiari eta lanpostuan kontuan hartu beharreko faktoreei dagokienez:**

a) Langilearen gaitasunak eta mugak hartu behar dira kontuan, baina ez faktore fisikoak, hala nola, antropometria.
b) Langilearen gaitasunak eta mugak hartu behar dira kontuan, baina ez faktore fisikoak, hala nola, biomekanika.
c) Diseinu ergonomikoak lortu beharko du sistemako elementuek osotasun koherente bat osatzea, gizabanakoaren eta ingurune osoaren arteko elkarrekintza kontuan hartuta.
d) Langilearen gaitasunak eta mugak hartu behar dira kontuan, baina ez faktore fisikoak, hala nola, antropometria. Faktore biomekanikoak ere kontuan hartu behar dira, baina ez mentalak.

**109.- Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionalaren (LSOIN) arabera, zein da erantzun onargarriaren gutxieneko tasa edo erantzun-ezaren gehieneko tasa onargarria ebaluazio psikosozialeko galdetegiak erabiltzen direnean?**

a) LSOINk irizpide orokor gisa ezartzen du % 70eko gutxieneko erantzun-tasa, azterlanaren balio estatistikoa bermatzeko.
b) LSOINk onargarritzat jotzen du % 60ko gutxieneko tasa, betiere lagina ebaluatutako kolektibo guztien adierazgarria bada.
c) LSOINk ez du gutxieneko erantzun-tasarik finkatzen; aitzitik, ebaluazioaz arduratzen diren pertsonek balioetsitako erabakia izan behar duela uste du.
d) LSOINk ezartzen du % 80tik beherako tasek automatikoki baliogabetzen dituztela ebaluazio psikosozialean lortutako emaitzak.

**110.- LSOINren FPSICO 4.1 metodoari dagokionez (arrisku psikosozialeko 9 faktore ebaluatzen ditu 44 galdera eta 89 itemen bidez), adierazi zein aukerak dituen tresna horretan sartutako faktoreak soilik:**

a) Lan-denbora – Eskari psikologikoak – Presentzia bikoitza – Kontratu-segurtasun eza
b) Lan-karga – Parte-hartzea/Gainbegiratzea – Langilearekiko interesa/Konpentsazioa – Rola betetzea
c) Eskakizun emozionalak – Autonomia – Antolaketa-justizia – Nagusien laguntza
d) Lan-erritmoa – Rolaren argitasuna – Kanpoko indarkeria – Lana eta familia gatazka

**111.- LSOINren FPSICO 4.1 metodoak faktore psikosozialen ebaluazioan dituen aplikazioei dagokienez, adierazi zein den aukerarik ZUZENENA:**

a) Hainbat unetan lortutako emaitzen arteko konparazioaren helburu nagusia da kalte psikologiko sendoturik dagoen zehaztea eta esku-hartze kliniko espezifikoak justifikatzea.
b) Arazoen iturriak aurkitzeko, metodoak aukera ematen du arazo hori sortzen ari den eremuetako batzuk identifikatzeko eta, horrela, ondoren egin beharreko ekintzak bideratzeko.

c) Metodoa erakundeko "tenperatura-hartualdi" gisa aplikatzeak berekin dakar, nahitaez, galdetegia aldian-aldian errepikatzea, emaitzek prebentziozko balioa izan dezaten.

d) FPSICO 4.1 delakotik eratorritako jardueren lehentasuna ebaluatutako faktoreen intentsitate kuantitatiboaren mende baino ez dago, eragindako kolektiboa edo antolaketa-testuingurua edozein dela ere.

**112.- "Lanarekiko mendekotasuna" 759 POTaren esku-hartzeko estrategien atalaren arabera, neurri hauetako zein dago esplizituki sailkatuta bigarren mailako prebentzioaren barruan?**

a) Lanpostua birdiseinatzea eta erakundearen kulturan aldaketak ezartzea.

b) Langileari laguntzeko entrenamenduaren (LLE) programa bat garatzea, tratamendu klinikora bideratuta dagoena.

c) *Coaching*a, kontsulta eta ibilbide-plangintza.

d) Gizarte-laguntza sustatzea, familiako eta laneko bizitza bateragarri egiteko politika orokorren bidez.

**113.- Arrisku jakin batzuekiko bereziki sentikorrak diren langileak babesteari dagokionez, eta Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen (LAPL) 25. artikuluaren arabera, baieztapen hauetako zein da juridikoki ZUZENA, enpresaburuaren betebeharrei dagokienez?**

a) Enpresaburuak berariaz bermatu behar du beren ezaugarri pertsonalengatik edo egoera biologiko ezagunagatik lanaren ondoriozko arriskuekiko bereziki sentikorrak diren langileen babesa. Ebaluazio horietan, belaunaldiaren edo adin aurreratuaren faktoreak sartzen dira, oro har, lantalde osoarentzat.

b) Enpresaburuak ebaluazioetan kontuan hartu beharko ditu ugaltze-prozesuan ondorio mutagenikoak edo toxikoak izan ditzaketen agente fisiko, kimiko eta biologikoekiko esposizioagatik ugaltze-funtzioan eragin dezaketen arrisku-faktoreak, beharrezko prebentzio-neurriak hartzeko.

c) Arriskuen ebaluazioek bereziki sentikorrak diren langileak hartu beharko dituzte kontuan, baina enpresaburuak babes-neurri espezifikoak hartu beharko ditu, soilik langileak berak egokitzapen hori formalki idatziz eskatzen badu.

d) Enpresaburuak langilea bereziki sentibera egiten duten ezaugarri pertsonalak edo egoera biologikoa urteko nahitaezko azterketa medikoen emaitzen bidez baino ez ditu ezagutuko.

**114.- Zein kokapen anatomiko erasaten du gehien nahasmendu muskuloeskeletikoak (NME) osasun-langileen artean?**

a) Orkatila.

b) Gerrialdea.

c) Ukondoa.

d) Belauna.

**115.- NIOSHren ekuazio berrikusiaren arabera, zer adierazten du 1etik gorako altxaketa-indizeak (AL)?**

a) Arrisku arbuiagarria.
b) Ergonomikoki onargarria den egoera.
c) Gerrialdearen osasunerako arriskua areagotu daiteke.
d) Nahitaez aldi baterako ezintasuna izatea.

**116.- Begien eta pantailaren artean gomendatutako distantzia bisuala, gutxi gorabehera, non kokatzen da?**

a) 10–20 cm.
b) 25–30 cm.
c) 40–70 cm.
d) 1 metro baino gehiago.

**117.- Knauth-en eta Folkard-en arabera, zein da fisiologikoki ondoen toleratzen den txandaketa?**

a) Ordutegiaren aurkakoa edo atzeranzko txandaketa.
b) Ausazko txandaketa.
c) Ordutegiaren araberako txandaketa naturala edo aurreranzkoa.
d) Iraupen aldakorreko txandak.

**118.- Zeri dagokio pazienteek langile sanitarioen aurka eragindako indarkeria?**

a) I. motako indarkeriari.
b) II. motako indarkeriari.
c) III. motako indarkeriari.
d) IV. motako indarkeriari.

**119.- Inferentzia estatistikoaren ikuspegitik, zer esan nahi du I. motako akats bat egiteak?**

a) Baliogabeko hipotesi bat onartzea, egiaz faltsua denean.
b) Baliogabeko hipotesi bat baztertzea, izatez egia denean.
c) Ezarritako esanahi maila baino p handiagoa lortzea.
d) Ondorioztatzea ez dagoela estatistikoki esanguratsua denik desberdintasunik, nahiz eta hala egon soilik lagin txikientzat.

**120.- LSOINren Laneko Osasunaren eta Segurtasunaren Entziklopediaren arabera, zer da nahasketagatiko alborapen bat?**

a) Ondorioaren estimazioaren distortsioa, esposizioa aztertutako emaitzarekin lotutako beste faktore batzuekin lotzearen ondorioz.
b) Konparatutako taldeen artean informazioa biltzean dauden desberdintasun sistematikoengatiko errorea.

c) Ausazko aldagaia, zoriari eta aztertutako laginaren tamaina eskasari egotz dakiekeena.
d) Azterlanaren helburua ezagutzean, parte-hartzaileek erantzunak aldatzeko duten joera.

**121.- LSOINren Laneko Osasunaren eta Segurtasunaren Entziklopediaren arabera, zer hartzen da "langile osasuntsuaren eragin"-tzat?**

a) Dituztenak baino sintoma gutxiago deklaratzeko langileen joera, laneko ondorioak saihesteko.
b) Fenomeno horren arabera, langileek, oro har, biztanleria orokorrak baino heriotza-tasa txikiagoak dituzte, gaixotasun larriak edo desgaitasunak dituzten pertsonak enplegutik kanpo egoten direlako.
c) Langilearen gaitasun funtzionala pixkanaka murriztea, lan-arriskuekiko esposizio luzeen ondoren.
d) Gaixotasunarekin lotutako arrazoiengatik azterketa uzten duten langileen jarraipena galtzearen ondoriozko alborapena.

**122.- Glutaraldehidoaren lurrunek (% 2ra) eragiten duten toxikotasun handia (lan-asmaren eta dermatitisaren eragilea) dela eta, laneko segurtasunaren eta elkarte zientifikoen egungo gomendioek lehentasuna ematen diote ospitaleko endoskopia-zerbitzuetan hori ordezkatzeari. Adierazi zein den gaur egun gehien erabiltzen den goi mailako desinfektatzailea (GMD), gluteraldehidoarekin alderatuta dituen abantaila nagusiengatik (aplikazio-denbora gutxiago, esporizida-ekintza eta toxikotasun txikiagoa langileentzat):**

a) Azido perazetikoa % 10ean.
b) Ortoftaladehidoa (OPA) % 0,55ean.
c) Hipoklorito sodikoa 5.000 pul./min-era.
d) Formaldehidoa % 4ra.

**123.- Adierazi zein den gomendatutako argiztapena osasun-zentro bateko bezeroarentzako arreta-eremu baterako, kontuan hartuta zereginaren eskakizun-maila handia dela:**

a) 100 lux.
b) 200 lux.
c) 500 lux.
d) 1000 lux.

**124.- Elektrizitate estatikoaren arriskua dagoen lantokietan, hezetasun erlatiboak zeren artean egon behar du?**

a) % 20-50.
b) % 30-50.
c) % 40-% 70.
d) % 50-% 70.

**125.- Muga-balio biologikoei (MBB) dagokienez, adierazi erantzun ZUZENA:**

a) Ingurumen-kontrolaren osagarritzat hartu behar dira.
b) Esposizioaren ondorio kaltegarrien neurri gisa erabiltzen dira.
c) Gaixotasun profesional bat diagnostikatzeko erabiltzen dira.
d) A) eta b) zuzenak dira.

**126.- Amiantoaren eraginpean dauden langileen osasuna zaintzeko protokolo espezifikoaren arabera, amiantoaren eraginpean 10 urte baino gehiago daramatzan 40 urtetik gorako langile batentzat, zein izango da toraxaren erradiografiaren maiztasuna?**

a) Urtean behin.
b) Bi urtean behin.
c) Hiru urtean behin.
d) Ez da maiztasunik ezarri, aurkikuntza klinikoen arabera egingo baita.

**127.- Adierazi aukera ZUZENA:**

a) Kutsatzaile kimikoen toxikomekazetikak kutsatzaileak organismoan eragiten duen prozesuen multzoari egiten dio erreferentzia.
b) Toxiksuketikaren faseak adsortzioa eta iraizpena dira.
c) Xenobiotikoaren metabolismoa organismoan sartu den unetik aurrera gertatzen da.
d) a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**128.- Nola esaten zaio osasunerako esposizioa eta arriskua ebaluatzeko lantokian dauden agenteen edo haien metabolitoek jariakinetan edo botatako airean dituzten neurketari eta balorazioari?**

a) Arriskuen ebaluazioa.
b) Esposizioaren ingurumen-kontrola.
c) Kontrol biologikoa.
d) Laginketa higienikoa.

**129.- Hautatu erantzun ZUZENA:**

a) Iraupen laburreko ingurumen-balio mugaturako (IBM-EL) erreferentzia-aldia 15 minutukoa da.
b) Eguneroko ingurumen-balio mugaturako (IBM-EI) erreferentzia-aldia 7 ordukoa da.
c) Esposizio terminoak beti adierazi behar du berariaz esposizio hori arnasketakoa, larruazalekoa edo digestiokoa den.
d) Iraupen laburreko esposizio-mugak (IBM-EL) toxikotasun kronikoa garatzen duten substantziei aplikatzen zaizkie.

**130.- Osakidetzako ospitale bateko Anatomia Patologikoko Zerbitzuan, laborategiko teknikari espezialistek xilenoa (xilola) erabiltzen dute laginak eta histologia prozesatzeko argitze-agente gisa. LSOINren "Agente Kimikoentzako Esposizio Profesionalaren Mugak Espainian 2026" dokumentuaren arabera, zein adierazle biologiko eta haren Muga-balio Biologiko (MBB) ofizial erabiltzen dira konposatu horren barne-esposizioa kontrolatzeko?**

a) Azido mandelikoa gernuan / 2 ug/g kreatinina.
b) Azido metilhipurikoa gernuan / 1 g/g kreatinina.
c) 50 mg/L azido fenilmerkapturiko gernuan.
d) 40 pul./min azetona botatako airean.

**131.- LSOINren "Agente Kimikoentzako Esposizio Profesionalaren Mugak Espainian 2026" dokumentuaren arabera, Muga-balio Biologiko berriak sartu dira eta indarrean daude datozen urteetarako. Adierazi zein den adierazle biologiko ofizial berria eta zer parametro dagokion etilbentzenoa kontrolatzeko.**

a) Azido mandelikoa eta azido feniloxilikoa gernuan / 60 mg/g kreatinina.
b) Azido mandelikoaren eta azido feniloxilikoaren batura gernuan / 700 mg/g kreatinina.
c) 15 pul./min etilbentzeno botatako airean.
d) Odoleko azido feniliko askea /1,5 mg/L.

**132.- Zein daude eragin genotoxikoa izan dezaketen agenteekiko esposizioa aztertzeko erabiltzen diren teknika zitogenetikoen artean?**

a) Aberrazio kromosomikoen azterketa.
b) Ahizpa kromatidoen trukea.
c) Kastogenoen azterketa
d) a) eta b) zuzenak dira.

**133.- Zein dira bereziki EGOKIAK genotoxikoen ondorioak aztertzeko?**

a) Linfozitoak.
b) Monozitoak.
c) Hematieak.
d) Plaketak.

**134.- Agente kantzerigenoekiko esposizioa egonez gero enpresaburuak aplikatu beharreko norbera babesteko neurrien artean honako hauek sartzen dira, SALBU ETA:**

a) Langileek lan-eremuetan jan dezaten tokiak gaitzea.
b) Laneko edo babeseko arropa eta kaleko arropa gordetzeko lekuak bereizita egotea.
c) Langileek lanpostutik irten aurretik 10 minutu izango dituzte lanaldiaren barruan norberak bere burua garbitzeko.

d) a) b) eta c) enpresaburuak hartu beharreko neurriak dira.

**135.- Adierazi medikamentu hauetako zein ez dagoen medikamentu arriskutsuen zerrendan, Laneko Osasunaren eta Ongizatearen Institutu Nazionalak argitaratutako 87:1:6 gidaren arabera:**

a) Pentamidina.
b) Fenitoina.
c) Azenokumarola.
d) Warfarina.

**136.- Medikamentu arriskutsuei buruzko Niosh-en sailkapenari dagokionez, zein da GEZURRA?**

a) 1. taldean medikamentu antineoplasikoak sartzen dira.
b) 2. Taldean, ondorioak, hala nola kartzinogenizitatea edo teratogenizitatea, eragin ditzaketen medikamentu ez-antineoplasikoak sartzen dira.
c) 3. taldean, gizonen eta emakumeen ugalketarako toxikoak izan daitezkeen medikamentuak sartzen dira.
d) 4. taldean, ondorio genotoxikoak eragin ditzaketen medikamentu ez-antineoplasikoak sartzen dira.

**137.- Medikamentu arriskutsuak prestatzeko eta emateko neurriei dagokienez, zein da erantzun ZUZENA?**

a) Babes kolektiboko ekipamenduen artean, IIb motako segurtasun biologikoko kabinek (SBK) babes handiagoa ematen dute IIa motako SBKek baino.
b) I motako SBK egokia da medikamentu esterilak prestatzeko.
c) Botika batzuk prestatzeko gomendatutako NBEa maskara kirurgikoa da.
d) Zitostatikoak prestatzeko kabinak 10 minutuz jarri beharko dira martxan, produktuak prestatzen hasi aurretik, eta garbitu baino 10 minutu lehenago piztuta eduki beharko dira, behin lana amaitu ondoren.

**138.- Adierazi zein den kontaktu-indize zitotoxikoa kalkulatzeko erabiltzen den formula:**

a) Zitostatikoen prestakuntza-kopuruaren arteko ehunekoa, denbora-tarte batean emandakoen kopuruarekin biderkatuta.
b) Zitostatikoen prestakuntza-kopuruaren arteko ehunekoa, denbora-tarte batean emandakoen kopuruarekin zatikatuta.
c) Zitostatikoen prestakuntza-kopuruaren arteko ehunekoa, gehi denbora-tarte batean emandakoen kopurua.
d) Zitostatikoen prestakuntza-kopurua, gehi denbora-tarte batean emandakoen kopurua.

**139.- Farmazia zerbitzuko langile baten osasuna zaintzean, kontaktu zitotoxikoko 4. indizea lortzen da. Adierazi osasunaren zaintzaren maiztasuna, emaitza horien arabera.**

a) Sei hilean behin.
b) Urtean behin.
c) Bi urtean behin.
d) Hiru urtean behin.

**140.- Adierazi elementu hauetako zein EZ den zitostatikoen isuriak biltzeko kitaren parte.**

a) Latexezko eskularruak.
b) Gomazko eskularru lodi iragazgaitzak.
c) Maskara kirurgikoa.
d) Babes-betaurrekoak, alboak estalita.

**141.- Osakidetzako lan-gatazka edo jazarpen moraleko egoeretako kontziliazio edota ikerketa protokoloari dagokionez, adierazi erantzun ZUZENA:**

a) Adiskidetze-fasea esaten zaio gatazka bat aitortzen den eta erakundeak gatazka konpontzea lortzeko esku hartzen duen aldiari.
b) Kontziliazio fasea gatazka helarazi dioten Prebentzioko Oinarrizko Unitateko medikuak hasi behar du.
c) Ikerketa-faseari bide emateko, ikerketa-talde bat eratu behar da, Langileen zuzendaria buru duena.
d) Langileen parte-hartzea bermatze aldera, ikerketa-fasearen parte izango dira erakundean izendatutakoen arteko 2 prebentzio-ordezkari.

**142.- 31/1995 Legearen 21. artikuluan deskribatutako arrisku larri eta berehalakoaren egoerari dagokionez, adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) Langileak eskubidea izango du bere jarduera eteteko eta lantokia uzteko, baldin eta uste badu jarduera horrek arrisku larria eta berehalakoa dakarrela bere bizitzarako edo osasunerako.
b) Enpresaburuak ez dituenean neurri egokiak hartzen edo ez duenean uzten halakorik hartzen, langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko, langile horien lege-ordezkariek erabaki dezakete, kideen gehiengoarekin, arrisku horrek eragindako langileen jarduera geldiaraztea.
c) Langileen ordezkariek jarduera geldiaraztea erabakitzen badute, berehala jakinaraziko zaie enpresari eta lan-agintaritzari, eta azken horrek, hogeita lau orduko epean, adostutako geldialdia bertan behera utzi edo berretsiko du.
d) Enpresaburuak ez dituenean neurri egokiak hartzen edo ez duenean uzten halakorik hartzen, langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko, legez izendatutako edozein prebentzio-ordezkarik erabaki dezake langileen jarduera gelditzea.




**143.- Adieraz ezazu zein den GEZURRA, 31/1995 Legeak osasunaren zaintzari buruzko 22. artikuluan ezarritakoari dagokionez.**

a) Probetan errespetatu egingo dira langilearen intimitate- eta duintasun-eskubideak, bai eta haren osasun-egoeraren gaineko informazio osoaren konfidentzialtasuna ere.
b) Langileen osasuna zaintzen duten medikuek eta, hala eskatzen badute, lan-administrazioko agintariek soilik izango dute aukera informazio mediko pertsonala eskuratzeko.
c) Langileen ordezkariek txostena egin ondoren, osasunaren zaintzaren borondatezko salbuespenak egon daitezke, baldin eta azterketak egitea ezinbestekoa bada lan-baldintzek langilearen osasunean dituzten ondorioak ebaluatzeko.
d) Langileen ordezkariek txostena egin ondoren, osasunaren zaintzaren borondatezko salbuespenak egon daitezke, baldin eta azterketak egitea ezinbestekoa bada egiaztatzeko langilearen osasun-egoera arrisku izan daitekeen langilea berarentzat, gainerako langileentzat edo enpresarekin lotutako beste pertsona batzuentzat.

**144.- Adierazi zein den erantzun OKERRA, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalari (egungo LSOIN) esleitzen dizkion funtzioei dagokienez.**

a) Laguntza teknikoa eta lankidetza Laneko Ikuskatzailetzarekin eta Gizarte Segurantzarekin, azken horren eginkizunak egin daitezen.
b) Laguntza tekniko espezializatua ziurtapenaren, saiakuntzaren eta akreditazioaren arloan.
c) Erreferentzia nazionaleko zentro gisa jardutea Europar Batasuneko erakundeentzat.
d) Estatuko Osasun Sistemaren Lurralde arteko Kontseiluaren Osasun Publikoaren Batzordeko idazkari izatea.

**145.- Enpresaburuak langileei kontsultatzeko betebeharrari du gai hauen inguruan erabakiak hartzeko, batean izan ezik, gezurra baita. Zein da GEZURRA?**

a) Teknologia berriak erabiltzen hastea.
b) Osasuna babesteko jarduerak antolatzea eta garatzea.
c) Larrialdi-neurriez arduratuko diren langileak izendatzea.
d) Enpresaburuak langileen ordezkariei kontsultatu behar die adierazitako hiru kasutan.

**146.- Lan-arriskuen prebentzioari buruzko 31/95 Legean eta langileen parte-hartzeari eta kontsultari buruzko Osakidetzaren araudian ezarritakoari dagokionez, adierazi zein den erantzun ZUZENA:**

a) Osakidetzak zentro arteko Segurtasun eta Osasun Batzorde bat du, eta bertan hartzen dira batzordea osatzen duten antolakunde guztiei eragiten dieten erabakiak.
b) Enpresaburuak kontsultatu egin beharko du segurtasunaren gaineko funtsezko ondorioak izan ditzakeen beste edozein ekintza, baina ez langileen osasunaren gainekoak.
c) Legez izendatutako prebentzio-ordezkariek hilean 7 orduko ordu-kreditua izango dute beren eginkizunak betetzeko.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**147.- Osasunaren zaintzari buruzko dokumentazioa zaintzeari dagokionez, arrisku hauen eraginpean dauden langileen historia medikoak esposizioa amaitu eta 40 urtera arte mantendu beharko dira, SALBU ETA:**

a) Produktu kimikoen eraginpekoak badira.
b) Kantzerigenoen eraginpekoak badira.
c) Amiantoaren eraginpekoak badira.
d) Egungo metodoekin diagnostikatu ezin diren infekzio iraunkorren edo ezkutuko infekzioak eragin ditzaketen agente biologikoen eraginpekoak badira.

**148.- Lan-arriskuen prebentzioari buruzko 31/95 Legeak ezarritakoaren arabera, adierazi zein den erantzun ZUZENA enpresaburuak prestakuntzaren arloan dituen betebeharrei dagokienez:**

a) Enpresaburuak bermatu behar du langile bakoitzak prebentzioaren arloko prestakuntza nahikoa eta egokia jasoko duela kontratatzen den unean, edozein dela ere kontratuaren modalitatea edo iraupena.
b) Prestakuntza langile bakoitzaren lanpostuan edo eginkizunean ardaztu beharko da berariaz, eta beti errepikatu beharko da aldian-aldian.
c) Prestakuntza lanaldiaren barruan eman beharko da.
d) Hiru erantzunak zuzenak dira.

**149.- Markatu erantzun ZUZENA:**

a) Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziak erreferentziazko zentro nazionalen sare bat du, erabiltzaileekiko funtsezko lotura duena.
b) Europar Batasuneko zuzentarauak EEAOn (Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean) argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean Europar Batasuneko estatuetan.
c) Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziaren misioa da Europako lantokiak seguruagoak, osasungarriagoak eta produktiboagoak izatea.
d) Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko LANEren 160 hitzarmena aplikatzen dute hori berresten duten estatu kideek.

**150.- Osakidetzaren Lan-arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren Osasuna Zaintzeko Protokolo Espezifikoaren arabera, adierazi osasun-azterketeta hauetako zein egingo den urtean behin.**

a) Agente anestesiko inhalatzaileen eraginpean dauden langileena.
b) Aire-transmisioko agente biologikoen eraginpean dauden langileena, 3. arrisku maila badute.
c) EAEPI (esposizioa aurrez ezartzen duten prozedura inbaditzaileak) egiten dituzten odol-transmisioko agente biologikoen eraginpean dauden langileena.
d) 3. arrisku maila duten zarataren eraginpean dauden langileena.

**151.- Erradiazio ionizatzaileen instalazioetan hondo zuriaren gainean hirusta gris urdinxka baten seinaleztapenak zer esan nahi du?**

a) Egonaldi mugatuko Eremu Kontrolatua.
b) Egonaldi arautuko Eremu Kontrolatua.
c) Sarrera debekatuko eremua.
d) Zaintzapeko eremua.

**152.- Non sailkatzen da agente biologiko bat gizakiari gaixotasun bat eragin badiezaioke, arrisku bat izan badaiteke langileentzat, probabilitate gutxi badago gainerakoengana zabaltzeko eta, oro har, profilaxi edo tratamendu eraginkor bat badauka?**

a) 2. taldean.
b) 3. taldean.
c) 4 taldean.
d) 5. taldean.

**153.- Oro har, ospitale-zerbitzu hauetako zein sartzen da agente biologikoekiko esposizioari buruzko 664/1997 Errege Dekretuaren aplikazio integratuan, nahita agente biologikoak manipulatzeko asmoa dakarrelako?**

a) Mikrobiologiako laborategia.
b) Anatomia patologikoko laborategiak eta autopsia-eremuak.
c) Hematologiako eta biokimikako laborategiak.
d) Osasun-zerbitzuei aplikatu behar zaie Errege Dekretu horren aplikazio osoa.

**154.- Laborategiei, animalientzako lokalei eta industriei buruzko neurrien inguruko 664/1997 Errege Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, adierazi zein den ZUZENA, lan-eremuetako nahitaezko gutxieneko euste-mailei dagokienez:**

a) 2. taldeko agente biologiko bat manipulatzea dakarten jarduerak behin-behinean egin ahal izango dira 1. euste-maila duten eremuetan, baldin eta II. motako segurtasun biologikoko kabinak badaude.
b) 3. taldean katalogatutako agente biologiko bat manipulatzen denean, jarduerak gutxienez 3. euste-mailari dagozkion lan-eremuetan bakarrik egingo dira.
c) Diagnostiko orokorreko laborategietan nahikoa da identifikatuko dela susmatzen den agente biologikoaren arrisku-taldea baino txikiagoa den berehalako euste-maila ziurtatzea.
d) 4. taldeko agente biologikoak manipulatzen dituzten jarduerek 3. euste-maila onartzen dute, baldin eta langileek presio positibo handieneko norbera babesteko ekipamenduak badituzte.

**155.- Nola definitzen dira goi-zuzendaritzak adierazitako laneko segurtasunaren eta osasunaren jarduerarekin lotutako erakunde baten asmoak eta haren zuzendaritza nagusia?**

a) Enpresako prebentzio-plana egin behar du.
b) Laneko segurtasun- eta osasun-politika.
c) Helburuen eta jomugen programa.
d) Enpresaren prebentzio-plangintza.

**156.- Enpresan prebentzioa integratzeari dagokionez, zein da erantzun ZUZENA?**

a) Prebentzio-zerbitzu propioa sortzea eta bertako kide guztiek beren eginkizunak eta erantzukizunak behar bezala betetzea nahikoa baldintza da behar bezala integratzeko.
b) Prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean txertatu behar da.
c) Kalitatea kudeatzeko sistemak, enpresaren kudeaketa-sistema orokorra den aldetik, lan-arriskuen prebentziorako prozedurak jaso behar ditu.
d) Integrazio handia lortzen da Prebentzio Zerbitzuak beste sail batzuek bete beharreko prozedurak diseinatzen dituenean.

**157.- Nola esaten zaio lan egindako mila orduko istripuengatik galdutako lanaldi kopuruari?**

a) Maiztasun-indizea.
b) Maiztasun orokorreko indizea.
c) Intzidentzia-tasa.
d) Larritasun-indizea.

**158.- Nola identifikatzen da ehunak ukitzen dituen produktu kimiko bat, ehunetan eragin suntsitzailea izan dezakeena?**

a) Narritagarria.
b) Kaltegarria.
c) Toxikoa.
d) Korrosiboa.

**159.- Langile sanitarioen B hepatitisaren birusa transmititzeko arriskuari dagokionez, adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) Immunizatu gabeko langileen kasuan, BHBk kutsatutako odolaren istripuzko esposizioagatiko transmisio-arriskua % 6tik beherakoa da, baldin eta pazientea AgHBe negatiboa bada.
b) Txertaketa osteko markatzaileen azterketa egitea gomendatzen zaie aurretiazko txertaketa osoa dokumentatuta duten osasun-langile guztiei, ez bazitzaien ebaluazio serologikorik egin txertoa jaso zutenean.
c) Jarraibide osoa eta dokumentatua duten eta aldez aurretik ezagutzen ez den serologiarik ez duten langile sanitarioen kasuan, HBren aurkako antigorputzak 10 mUI/ml-tik beherakoak badira, ez da beharrezkoa dosi gehigarririk ematea, txertoa jarri zenetik 30 urte baino gutxiago badira.

d) HBren aurkako antigorputzen aurkako markatzaileek azken dosia hartu eta 1-2 hilabetera bakarrik balio dute; izan ere, azken dosia hartu eta 5-15 urtera, % 15-50 bitartean negatibo ematen dute.

**160.- Suposizio hauetako zeinetan EZ da positibotzat jotzen ≥ n 5 mm-ko tuberkulina-probaren indurazioa?**

a) Toraxeko erradiografian tuberkulosiarekin (TB) bateragarriak diren irudiak dituzten pertsonetan.
b) GIBaz infektatutako pazienteetan.
c) Silikosia diagnostikatuta duten pertsonetan.
d) Bide parenteraleko droga-erabiltzaileetan.

**161.- Baziloskopia (baar) duen tuberkulosiaren azterketa mikrobiologikoan, zein da ZUZENA?**

a) % 90etik gorako espezifikotasun eta sentsibilitate handia du.
b) Paziente kutsakorrenak identifikatzeko aukera ematen du.
c) Emaitza negatibo batek gaixotasuna baztertzen du.
d) Biriketako TBn, erregularki kentzen dira baziloak, eta, beraz, 2 lagin nahikoa dira diagnostikoa egiteko.

**162.- Tuberkulosi mota hauen artean, zein EZ litzateke esposizio-arrisku handitzat hartuko?**

a) Biriketako tuberkulosia, laringekoa eta aho-barrunbekoa.
b) Aurretik tuberkulosia izatearen ondorioz biriketako hondar-lesioak dituzten pertsonak.
c) Birikaz kanpoko tuberkulosia, abzesu edo lesio irekiekin, organismo edo drainatze zabalen kontzentrazio handia duena.
d) Tuberkulosia duten gaixoen gorpuak (nekropsiak).

**163. Adierazi zein den erantzun ZUZENA, agente biologikoen osasunaren zaintzako protokolo espezifikoaren arabera, odol-transmisioko birusarekiko esposizio-arriskua duten osasun-langileen berariazko azterketa medikoei dagokienez:**

a) Esposizioa aurrez ezartzen duten prozedura inbaditzaileak (EAEPI) egiten dituzten langileentzat, BHB, CHB eta GIBaren aurrean, serologia egitea nahitaezkoa da hasierako osasun-azterketan.
b) Aldizkako osasunaren zaintzaren ondoren, EAEPIak egiten dituen eta CHBren serologia egiteko baimenik ematen ez duen langile baten ondorioa izango da langile hori EAEPIak egiteko Ez-gai gisa hartzea.
c) B hepatitisari buruzko emaitza analitikoek HBs Ag+ eta HBe Ag+ adierazten diguten langile baten osasunaren zaintzaren ondoren ateratzen den ondorioa izango da langilea Ez-gai dela EAEPIak egiteko.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**164.- Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen 486/1997 Errege Dekretuaren III. eranskinean ezarritakoaren arabera, adierazi zein den erantzun ZUZENA:**

a) Lantokietako ingurumen-baldintzak ezin dira, inola ere, langileentzako deserosotasun- edo eragozpen-iturri izan.
b) Lokal itxietan, bulegoetako lan sedentarioak edo antzekoak egiten diren lokaletako tenperatura 17 eta 27 ºC artekoa izango da.
c) Lan arinak egiten diren lokaletako tenperatura 16 eta 22 ºC artekoa izango da.
d) Hezetasun erlatiboa % 40tik % 60ra bitartekoa izango da, elektrizitate estatikoagatiko arriskuak dauden lokaletan izan ezik, horietan gutxieneko muga % 45ekoa izango baita.

**165.- Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalaren agente kimikoen gida teknikoan, adierazi hauetako zein den kimikoen aurreko esposizioak biologikoki kontrolatzeko erabiltzen den dosi-adierazlearen mota edo klase bat.**

a) Esposizio-dosien adierazleak.
b) Dosi erreal edo benetakoaren adierazleak.
c) Metatze-adierazleak.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**166.- Agente kimiko arriskutsu batekin lan egiteko, lan-baldintzek langilearen osasunean dituzten ondorioak ebaluatzeko ezinbestekoa denean, nolakoa izango da haren osasunaren zaintza?**

a) Nahitaezkoa.
b) Kontsultazkoa.
c) Aldakorra kontratu-harreman motaren arabera.
d) Hautazkoa.

**167.- Epidemiologia giza populazioetan gaixotasunak gertatzeko diziplina da. Honako baieztapen hauetatik, zein da GEZURRA?**

a) Populazio dinamikoak banakoen txandaketak dituztenak dira.
b) Kohorteak populazio finkoak dira.
c) Intzidentzia-tasa handia da.
d) Tasa gordinak biztanle guztiei dagozkie beti.

**168.- Morbilitate-adierazleen neurketetan bi neurketa-eskala daude: kategorikoa eta jarraitua. Adierazi aukera ZUZENA:**

a) Aldagai jarraituak segidan tarte berdinak dituzten zenbakien bidez adierazten dira.
b) Eskala nominaletan, kategoriak lotuta daude.
c) Eskala ordinaletan, kategoriak ez daude lotuta.
d) Aurreko guztiak gezurra dira.




**169.- Ikerketa epidemiologikoko mailei dagokienez, adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) Epidemiologia deskribatzaileak ez du elkarteen kausa.interpretaziorik ezartzen.
b) Epidemiologia analitikoak elkarteen kausalitatea ikertzen du.
c) Esku-hartzearen epidemiologia arazo etiologikoak ebazteko aplikatzen da.
d) Epidemiologia deskribatzaileak ez du hipotesiak sortzeko balio.

**170.- Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen helburuari eta eginkizunei dagokienez, adierazi erantzun OKERRA:**

a) Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak langileak dauden jarduera ekonomikoaren adar guztietara zabaltzen du bere jarduera.
b) Administrazio publikoak OSALANen jarduera-eremutik kanpo daude.
c) Lan elkartuko kooperatibetara eta gainerako kooperatibetara zabaltzen du bere jarduera, lan-bazkideei dagokienez.
d) Osalanek arriskuen prebentzioa sustatzeko jarduerak egingo ditu, norberaren konturako langileei dagokienez.

**171.- Arrisku biologikoko istripu batean (ABI), iturburu-pertsonak GIB positiboa eta CHB negatiboa baditu, zein da erantzun ZUZENA?**

a) Kasuaren jarraipena istripua izan duen langilearen GIBaren serologia zehaztean datza, 6 astera, eta 3, 6 eta 12 hilabetera.
b) Serobihurketa gertatzen bada, dagokion espezialistarengana bideratuko da eta lan-istriputzat joko da.
c) Ez da gomendatzen GIBarekiko esposizioaren osteko profilaxia hastea esposiziotik 72 ordu baino gehiago igaro badira.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

**172.- Honako hauetako zein EZ da Prebentzioko Oinarrizko Unitatearen konpetentzia bat, Osakidetzaren "Jarduketa-protokoloa. Indarkeria lanean" protokoloaren arabera?**

a) Asistentzia sanitarioa ematea.
b) Langileari orientazio juridikoaren gida ematea.
c) Erasoa lan-gertakari edo -istripu gisa baloratzea, gertatutakoaren eta jasotako txostenen arabera.
d) Gertakariaren ikerketaren emaitzetatik eratorritako neurri zuzentzaile espezifikoak hartzea.

**173.- Lan-karga eta -erritmoa arrisku psikosozialeko faktoreak ebaluatzeko, dimentsio hauetako zein ez dago faktore horretan sartuta?**

a) Ordutegi oso luzeak edo aurreikus ezin direnak.
b) Denbora-presioa.
c) Epe zorrotzak.




d) Lan karga handiegia edo nahikoa ez dena.

**174.- Arrisku psikosozialekiko bereziki sentikorrak diren langiletzat hartzen dira honako alterazio hauek dituzten pertsonak:**

a) Edozein larritasuneko patologia psikiatrikoaren aurrekariak.
b) Nahasmendu sentsorialak.
c) Edozein motatako patologia kronikoak.
d) Aurreko guztiak.

**175.- Autobabeserako oinarrizko arauaren arabera (NBA), larrialdi-planak, autobabes-planak eta larrialdi-neurriak arautzen dituena, zenbatero ezartzen da berrikusi behar dela autobabeseko plana?**

a) Gehienez hiru urtean behin.
b) Hamar urtean behin.
c) Bost urtean behin.
d) Lau urtean behin.

**176.- Kasu hauetako zeinetan EZ du enpresaburuak prebentzio-zerbitzu propioa eratzeko betebeharrik?**

a) 200 langile baino gutxiagoko enpresa denean.
b) 250 eta 500 arteko enpresa denean eta I. eranskineko jarduerak egiten direnean.
c) 500 langile baino gehiagoko enpresa denean.
d) Kanpoko prebentzio-zerbitzu bat kontratatzen denean, enpresaren ezaugarriak edozein direla ere.

**177.- Bereziki Sentikorrak diren Langileei (BSL) dagokienez, adierazi baieztapen OKERRA:**

a) Lanpostuan dauden arrisku jakin batzuekiko bereziki kalteberak egiten dituzten ezaugarri pertsonalak dituzte.
b) Enpresaburuaren oinarrizko betebeharra da arriskuen ebaluazioa egitea, lan hori egiten duen edo beteko duen langilea BSL dela kontuan hartuta.
c) Desgaitasun bat aitortuta duten pertsona guztiak langile bereziki sentikorrak dira.
d) Legearen ondorioetarako, desgaitasuna duten pertsonatzat hartuko dira % 33ko edo gehiagoko maila aitortu zaien pertsonak.

**178.- 39/1997 EDren 3. artikuluaren arabera, nola deitzen zaio ekidin izan ez diren arriskuen tamaina balioestera bideratutako prozesuari? Horren bidez, enpresariari behar beste informazio ematen zaio hark erabaki dezan ea neurri prebentiborik hartu behar den, eta, hala bada, nolakoak izan behar diren.**

a) Prebentzio-jardueraren plangintza.
b) Prebentzio Plan Orokorra.
c) Arriskuen ebaluazioa.

d) Aurrekoetako bat bera ere ez.

**179.- Laneko segurtasun- eta osasun-seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 485/1997 Errege Dekretuaren 4. artikuluaren arabera, adierazi zein den erantzun ZUZENA:**

a) Maniobra arriskutsu jakin batzuk egiten dituzten langileak orientatzeko edo gidatzeko balio dute.
b) Seinaleztapena babes kolektiboko neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien ordezkotzat har daiteke.
c) Erabili egin behar da, nahiz eta prebentziozko neurri teknikoek eta antolaketa-neurriek arriskuak ezabatu edo behar bezala murriztu.
d) Seinaleztapena langileek laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan duten prestakuntzaren eta informazioaren ordezko neurritzat har daiteke.

**180.- Langileen osasuna eta segurtasuna babesteko, lanean agente kimikoekin jarduteari lotutako arriskuei dagokien apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuaren 2. artikuluak zer definitzen du arriskutzat?**

a) Lantokian agente kimiko bat egotea, eta, ondorioz, hark langilea ukitzea.
b) Agente kimikoen eraginpean egotearen ondorioz langileak kalte jakinen bat izateko aukera.
c) Agente kimiko batek kaltea eragiteko duen berezko gaitasuna.
d) Aurreko guztiak.

**181.- Biztanleriari dagokionez, lotura dago amiantoaren kontsumoaren eta amiantoak eragindako gaixotasunen intzidentziaren artean. Amiantoak eragindako osasun-alterazioen adierazpenak esposizioa gertatu eta zenbat urtera arte ager daitezke?**

a) 20 urtera.
b) 45 urtera.
c) 60 urtera.
d) 75 urtera.

**182.- Hauetako zein ez da zaratagatiko hipoakusiaren ezaugarri nagusietako bat?**

a) Entzumena pixkanaka galtzen da, goiz hasita.
b) Gorreria itzulgarria da, neurosentsoriala.
c) Entzumen-galera aldebikoa eta simetrikoa izaten da.
d) Kaltea 3.000, 4.000 eta 6.000 Hz-ko maiztasunei eragiten dien galera batekin hasi ohi da, eta 8.000 Hz-ra berreskuratzen da.

**183.- Ezintasun iraunkorrari dagokionez, zein da erantzun ZUZENA?**

a) Hiru mailatan sailkatzen da: partziala, osoa eta erabatekoa.
b) Lan-gaitasunaren murrizketaren ehunekoaren arabera sailkatzen da.
c) Murrizketa anatomikoaren ehunekoaren arabera sailkatzen da, baremo bat erabilita.
d) Osasun Zerbitzuetako Ikuskaritza Medikoak zein Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak deklara dezakete.

**184.- Urtarrilaren 17ko 39/1997 EDak, prebentzio-zerbitzuen erregelamenduak, langileen osasuna zaintzeko eta kontrolatzeko eginkizunen artean, zein hartzen du barne? Adierazi erantzun ZUZENA:**

a) Langileen osasunaren zaintzaren emaitzak aztertzea, eta ez da ezinbestekoa langileek jasaten dituzten arriskuen ebaluazioa aztertzea.
b) Langileen osasunaren zaintzaren eta arriskuen ebaluazioaren emaitzak irizpide epidemiologikoekin aztertzea.
c) Prebentzio Zerbitzuko teknikariek egingo dute analisi hori.
d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**185.- Zein da laneko zaintza epidemiologikoaren helburua?**

a) Osasun-arazo espezifikoak (gaixotasunak edo lan-arriskuekiko esposizioak, istripu-lesioak izan ezik) zein maiztasunez gertatzen diren eta langile interesdunen artean nola banatzen diren jakitea.
b) Osasun-arazoek eta arriskuekiko esposizioak denboran jarraitzen duten joera monitorizatzea.
c) Kasuen ustekabeko gehikuntzak detektatzea eta baloratzea epe luzera, bai azaleratzen ari diren prozesuetakoak, bai gaixotasunen gorakadenak edo dagoeneko ezagunak diren arrisku-esposizioenak.
d) Aurreko guztietatik bat bera ere ez da zuzena.

**186.- Metatutako intzidentziari dagokionez (MI), adierazi ZUZENA:**

a) Gaixotasuna denboraldi jakin batean garatzen duten gizabanako osasuntsuen biztanleriaren proportzioa da, hasieran zehaztutakoa.
b) Proportzio bat da, eta probabilitatearen arabera interpreta daiteke.
c) Arrisku-neurri gisa ere interpretatzen da.
d) Guztiak zuzenak dira.

**187.- Epidemiologian asko erabiltzen den asoziazio-neurria da aukera-arrazoia (*ODDS Ratio*). Erantzun hauetako zein da ZUZENA?**

a) Aukera-arrazoiak arrisku erlatiboaren propietate eta interpretazio berberak ditu.
b) Aukera-arrazoia arriskuaren aurrean egon diren eta egon ez diren guztiak ezagutzen diren azterlanetan erabiltzen da.
c) Aukera-arrazoia ezaugarri batean desberdinak diren bi talderen arteko metatutako intzidentzia-tasa (MI) alderatzen du.

d) Aukera-arrazoiaren 1etik beherako balioek adierazten dute osasun-nahasmendua maizago gertatzen dela eraginpean daudenetan eraginpean ez daudenetan baino.

**188.- Azterlan baten emaitzen barne-baliozkotasunari eragiten dioten mehatxu nagusiak hautapen-alborapenari buruzko alborapen edo akats sistematikoak dira. Adierazi zein den erantzun ZUZENA:**

a) Datuen analisian kontrola daiteke.
b) Ezin da kontrolatu zaintza epidemiologikoa diseinatzeko eta gauzatzeko prozesuan.
c) Sartutako errore bat da, aztertutako biztanleriak ez duelako adierazten xede- edo interes-populazioa.
d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**189.- Langile osasuntsuaren eraginari dagokionez, adierazi zein den ZUZENA:**

a) Bizirik dirauen langile osasuntsuaren eragina oso kontuan hartu behar da lan-ingurunean egiten diren zeharkako prebalentzia-azterlanetan.
b) Langile osasuntsuaren eragina bereziki kontuan hartu beharreko alborapena da kohorteen edo kohortearen laginen jarraipenari buruzko azterlan epidemiologikoetan, biztanleria orokorra konparazio-talde gisa edo esposiziorik gabekoen talde gisa erabiltzen bada.
c) Osasun-arazoen, hala nola asmaren edo nahasmendu muskuloeskeletikoen, azterlanek bizirik dirauen langile osasuntsua alboratzeko joera dute, langile horiek esposizio txikiko edo batere esposiziorik gabeko lanpostuetara aldatzen baitira.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**190.- Laneko zaintza epidemiologikoari dagokionez, zein da ZUZENA?**

a) Zaintza epidemiologikoa langile sanitarioen erantzukizun esklusiboko eremua da.
b) Zaintza epidemiologikoa lan-arriskuek osasunean dituzten ondorio kaltegarrien behaketara mugatzen da.
c) Lan-arriskuen prebentzioak etengabeko jarduketak dakartza, lehen mailako prebentziotik hasi eta hirugarren mailako prebentzioraino.
d) a) eta c) zuzenak dira.

**191.- Osakidetzako Lan-arriskuak Prebenitzeko Kudeaketa-sistemaren (LAPKS) Sistema Orokorraren Istripuak/Gorabeherak Kudeatzeko Prozeduraren arabera, zein da ZUZENA?**

a) Istripu larrien, oso larrien, hilgarrien edota 3 langileri edo gehiagori eragiten dieten istripuen ikerketan, Osakidetzako LAPSKren berariazko protokoloan adierazitakoari jarraituko zaio.
b) Gertakari larrietan, ikerketa-taldea osatuko da, ahal dela gorabehera gertatu eta lehen 5 egunetan.
c) Istripu/gorabehera arinak gehienez 1 hilabeteko epean ikertuko dira.
d) POU harremanetan jarriko da istripua izan duen langilearekin eta prebentzio-ordezkariekin ikerketa egiteko.

**192.- Hauetako zein da aldagai diskretoa?**

a) Neurria.
b) Tenperatura.
c) Istripu baten larritasuna.
d) Odol-taldea.

**193.- Segurtasun-arriskua ebaluatzeko LSOINren sistema sinplifikatuaren arabera, ARRISKU TXIKIA hartuko da kontuan. Adierazi zein den ZUZENA:**

a) Kaltea batzuetan gertatzeko PROBABILITATEA, eta gerta liteke osasunerako ONDORIOAK urradurak edo erredurak izatea.
b) Kaltea oso gutxitan gertatzeko PROBABILITATEA, urrunekoa izatea eta osasunerako ONDORIO hauek izan daitezke: azaleko kalteak, ebakiak eta ubeldura txikiak.
c) Kaltea maiz gertatzeko PROBABILITATEA, eta gerta liteke, eta hala gertatzea espero da, osasunerako ONDORIOAK hauek izatea: urradurak edo erredurak.
d) Kaltea batzuetan gertatzeko PROBABILITATEA, eta gerta liteke osasunerako ONDORIOAK izatea gainazaleko kaletak, ebakiak eta ubeldura txikiak.

**194.- Osakidetzaren LAPSKren lantokietara jarraipen-bisitak egiteko prozeduraren arabera, POUk egindako bisiten kasuan, zein da ZUZENA?**

a) Helburua dute lanaren arlo guztietan hobetzeko aukera berriak identifikatzea.
b) Aldaketa esanguratsurik egon bada, POUk eguneratu egingo du bisitatutako lanpostuen AEren data, eta berrikuspen-zenbaki bat igoko da.
c) POUk planifikatu egingo ditu erakundearen laneko arloetarako bisitak, eta bi urtean behin egingo ditu.
d) Bisita egin ondoren, POUk ondoriozko txostenaren kopia bidaliko dio Zuzendaritza Ekonomikoari, neurri zuzentzaileak ezartzeko.

**195.- Osakidetzaren LAPSKren Istripuak/Gorabeherak Kudeatzeko Prozeduraren arabera, ikerketa egin ondoren, POUk informazioa erregistratuko du LAPeko SAP-LAPen, eta ikerketa-txosten bat sortuko da. Txosten horren kopia bat bidaliko da. Zein da OKERRA?**

a) Kopia bat bidaliko zaie gaineko arduradun hurrenari, Langileen Zuzendaritzari eta erakundearen Zuzendaritza Ekonomikoari.
b) Gainetik dagoen arduradunak ikerketa-txostenaren kopia bidali behar dio istripua izan duen langileari.
c) Ikerketaren emaitzak Gizarte Segurantzako hurrengo batzordean aurkeztuko dira.
d) Gainetik dagoen arduradunak, halaber, ahoz jakinaraz diezazkioke langileari ikerketa-txostenaren ondorioak.




**196.- Osakidetzaren LAPSKeko Autobabeserako eta Larrialdietarako Planak Garatzeko eta Ezartzeko Prozeduraren arabera, Osakidetzako autobabeseko eta larrialdietako planak egiteari dagokionez, adierazi OKERRA:**

a) Eraikina, bere tamaina, jarduera edota okupazioa kontuan hartuta, 277/2010 Dekretuaren I. eranskinaren aplikazio-eremuaren barruan badago, nahitaezkoa izango da Autobabes Planaren dokumentua edukitzea.
b) Autobabeserako planen egitura eta gutxieneko edukia 277/2010 Dekretuaren II. eranskinean daude jasota.
c) 277/2010 Dekretuaren I. eranskinaren aplikazio-eremuan sartzen ez diren zentroetan, erakundearen esku geratuko da larrialdiei aurre egiteko ekintza-plan bat borondatez idaztea.
d) Larrialdien aurrean jarduteko plana 277/2010 Dekretuaren 6. kapituluan adierazitako puntuen arabera egingo da, zentroaren ezaugarrietara egokituta.

**197.- Osakidetzaren LAPSKeko Autobabeserako eta Larrialdietarako Planak Garatzeko eta Ezartzeko Prozeduraren arabera, Zerbitzu Erakundeei dagokienez, adierazi ZUZENA:**

a) Zerbitzu Erakunde bakoitzak Autobabes Batzorde bat eratu behar du, eta gutxienez honako hauek osatu behar dute: zuzendari kudeatzaileak, Kudeaketa Ekonomikoko zuzendariak, Zerbitzu Orokorretako buruak/Mantentze-lanetako buruak, POUko kide batek eta zuzendari medikoak.
b) Autobabeserako Batzordeak bilerak egin behar ditu aldian-aldian (gutxienez urtean behin), erakundearen autobabeserako planen edota larrialdi-planen ezarpen-egoera kontrolatzeko.
c) Bere funtzio nagusien artean, lantokietako instalazioetan gertatzen diren aldaketen jarraipena egitea dago, baldin eta zentroko Autobabes Planari edota Larrialdi Planari nabarmen eragiten badiete eta horiek berrikustera behartzen badute.
d) Zerbitzu Erakunde bakoitzeko Gerentziaren ardura izango da Autobabes Planen edota Larrialdi Planen berrikuspenak onartzea.

**198.- Martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuaren arabera, zein taldetan sailkatuko lirateke formolean edo beste produktu kimiko batean kontserbatutako hondakin anatomikoen nahasketak dituzten hondakin sanitarioak?**

a) I taldean.
b) II c taldean.
c) III a taldean.
d) Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo daude.

**199.- Martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuaren arabera, II. eta III. taldeetako hondakinak biltegiratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan. Aukeratu erantzun ZUZENA:**

a) Hondakin sanitarioak kudeatu aurretik biltegiratzeko lokalek aireztapen-sistema egokia izan beharko dute, eta sarbidea ez dago mugatuta.
b) Hondakinak ezin izango dira beste produktu eta material batzuekin batera biltegiratu.

c) Hondakin sanitarioak bitarteko biltegiratze-lokaletatik kudeaketa egin aurreko biltegiratze-lokaletara eramateko, zentroak aldizkakotasun bat ezarriko du sortutako hondakinen bolumenarekin eta biltegiratze-ahalmenarekin eta betiere 12 ordutik beherakoa izango da.

d) Biltegiratzeko lokaletako paramentuak erraz garbitu eta desinfektatu daitezkeenak izango dira, eta higiene-baldintza egokietan mantenduko dira. Hondakin likidoak biltegiratzeko lekuek euspen-sistemak izango dituzte isuri edo ontzien hausturentzat.

**200.- Neurketa higienikoaren metodoa Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduko 5.3 artikuluan xedatutakoaren arabera aukeratzen da; horrela, non jasotako metodoak edo irizpideak erabili ahal izango dira, hala baldin badaude?**

a) UNE arauetan jasotakoak.

b) Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionalaren gidetan, Silikosiaren Institutu Nazionalarenetan, eta Osasun eta Kontsumo Ministerioaren gidetan eta protokoloetan jasotakoak, bai eta autonomia-erkidegoetako erakunde eskudunenetan jasotakoak ere.

c) Nazioarteko arauetan jasotakoak.

d) Guztiak zuzenak dira.

**201.- Osakidetzaren LAPSKren "Protocolo Abordaje Integral para Control de Exposición a Contaminantes Químicos" protokoloaren arabera, POUko talde teknikoak egindako higiene-laginketan lortutako emaitzen arabera, zein da erantzun OKERRA?**

a) Desadostasuntzat hartuko da, esposizioa IMBa baino handiagoa denean (EI >1). Kasu horretan, gainditzearen arrazoiak identifikatu behar dira, neurri zuzentzaileak hartu eta esposizioaren ebaluazioa errepikatu, horien eraginkortasuna baloratzeko neurriak hartu ondoren.

b) Adostasuntzat hartuko da esposizioa IMBaren azpitik dagoenean (EI < 1). Esposizioa IMBaren oso azpitik badago, kutsatzaile motaren arabera, eta esposizioa antzera mantenduko dela uste bada, berrebaluazioak egin ala ez baloratuko da, hala badagokio, betiere lan-prozesuaren ezaugarriak eta ingurumen-baldintzen egonkortasuna kontuan hartuta.

c) Adostasuntzat hatuko da esposizioa IMBaren azpitik dagoenean (EI < 1). Ezin bada kalkulatu esposizioa antzera mantenduko dela, lan-prozesuaren ezaugarriak eta ingurumen-baldintzak kontuan hartuta, EI = 0,5 balioa hartzen da neurri edo ekintza zuzentzaile motaren bat hartzeko ekintza maila gisa.

d) Toxikotasun bereziko agenteak direnean (kantzerigenoak, mutagenoak, etab.), EI = 0,2 balioa hartzen da neurri edo ekintza zuzentzaile motaren bat hartzeko ekintza-maila gisa.

**202.- Osakidetzaren LAPSKren "Protocolo para Abordaje Integral para Control de Exposición a Contaminantes Químicos"-en arabera, arrisku kimikoa kontrolatzeko planaren barruan, hainbat kontrol-teknika edo -metodo egongo dira, lehentasun-hurrenkera baten arabera. Adierazi zein den ZUZENA:**

a) 1. lehentasuneko ordenakoetan, helburua izango da arriskua ezabatzea, eta, horretarako, neurri hauek ezarriko dira: produktu kimiko osoa ordeztea arrisku txikiagoko beste batekin, prozesua ordeztea, berez seguruak diren ekipamenduak erabiltzea, sarbidea debekatzea, automatizazioa, robotizazioa eta urruneko kontrola.

b) 2. lehentasuneko ordenakoetan, langileak babestea izango da helburua. Horretarako, hainbat neurri ezarriko dira, esate baterako produktu kimikoaren zati bat ordeztea, produktu kimikoaren forma edo egoera fisikoa aldatzea, prozesu itxia, distantzia handitzea, erauzketa lokalizatuaren prebentziozko mantentzea, diluzio bidezko aireztapena, segurtasun-kabinak, ordena eta garbitasuna, eremuen bereizketa, diluzio naturalaren bidezko aireztapena, su-fokuen kontrola, jardunbide egokiak, gainbegiratzea eta ataza-txandakatzea.

c) 3. lehentasun-ordenari dagokionez, helburua arriskua murriztea/kontrolatzea da, eta, horretarako, neurri hauek ezarriko dira: esposizioa/txandaketa murriztea, manparak edo fokutik bereizteko beste neurri batzuk, sarbidea mugatzea, laneko arroparen eta NBEaren sarrera-kontrola eta antolaketa-neurriak.

d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**203.- Formaldehidoari dagokionez, adierazi erantzun OKERRA:**

a) Kolorerik gabeko gasa da, usain bereizgarria duena. Garratza edo mina da, bai eta narritagarria ere, eta uretan oso disolbagarria. Ur-disoluzioa formola edo formalina izenez ezagutzen da. Soluzio hori, hainbat kontzentraziotan eta, oro har, % 4koa, da zentro sanitarioetan batez ere kontserbatzaile edo finkatzaile gisa erabiltzen den konposatua.

b) Substantzia berriak jakinarazteari eta substantzia arriskutsuak sailkatu, ontziratu, etiketatzeari buruzko martxoaren 10eko 363/1995 Erregelamenduak zein haren ondorengo aldaketek formaldehidoa honela sailkatzen dute: azalarekin ukipenean egotean sentikortasuna eta ukipen-urtikaria immunologikoa sortzeko aukera duen substantzia.

c) 2016ko urtarriletik, formaldehidoa 1B kategoriako kantzerigeno eta 2. kategoriako mutageno gisa sailkatzen da.

d) Formaldehidoak esposizio laburreko muga-balio bakarra du: IBM-EL = 0,6 pul./min (0,74 mg/m3).

**204.- Kontrol biologikoa arauz egitea nahitaezkoa den agente kimiko arriskutsuez gain, kontrol hori egitea bereziki EGOKIA da honako kasu hauetan:**

a) Larruazalaren bidezko xurgapena kuantitatiboki zati gehigarri garrantzitsua izan daiteke inhalazio bidezko esposizioari dagokionez. Antzeko kontsiderazioa baliagarria da digestio-biderako.

b) Ingurumen neurrietan aldaketa batzuk daude, zeinak handiak edo txikiak diren axola gabe, zalantzak eragiten dituzten esposizioaren aldaketak esposizioaren eraginpean dagoen pertsonaren organismoan integratzeko benetako moduaren inguruan.

c) Lanekoa ez den beste esposizio-iturri batzuen existentziari buruzko susmo sendoak egotea eta, printzipioz, ez aitortzea eta nekez identifikatzea.
d) a) eta c) zuzenak dira.

**205.- Ebidentziak erakusten du zarata, disolbatzaileekin batera, arriskutsua dela gizakiaren entzumenarentzat, honako disolbatzaile hau erabiliz gero:**

a) Bentzenoa.
b) Toluenoa.
c) Xilenoa.
d) Metanola.

**206.- 486/1997 EDaren IV. eranskinaren arabera, lantokietako argiztapenak zer bete behar du?**

a) Ohiko zirkulazio-bideetan, gutxieneko argiztapen-maila 25 izango da.
b) Gutxieneko argiztapenaren mailak bikoiztu egin beharko dira erabilera orokorreko eremu edo lokaletan eta zirkulazio-bideetan, haien ezaugarriak, egoera edo okupazioa direla-eta, erortzeko, talka egiteko edo bestelako istripuren bat izateko arrisku nabarmena badago.
c) Erabilera orokorreko eremuetan, argiztapenaren mailak lurzoruaren 95 cm-ko altueran neurtu behar dira; zirkulazio-bideetan, berriz, maila horiek lurzoruaren mailan neurtu behar dira, lurzoruan egon daitezkeen oztopoak edo etenak ikusten direla bermatzeko.
d) Ahal den heinean, lantokiek argi naturala izango dute eta argi artifizialarekin osatu beharko da argi naturalak, berak bakarrik, ikusgaitasun-baldintza egokiak ziurtatzen ez dituenean. Kasu horietan, ahal dela, tokian tokiko argiztapen artifiziala erabiliko da.

**207.- Etilenoaren oxidoari dagokionez, zein da ZUZENA?**

a) Etilenoaren oxidoa TR1A (giza ugalketarako toxikoak direla dakigun substantziak) gisa sailkatzen da LSOINren arabera.
b) LSOINren Esposizio profesionalaren mugen EPM zerrendan larrauzaleko bidea ere aipatzen da, eta adierazten da etileno oxidoarekiko esposizioetan larruazalaren ekarpena esanguratsua izan daitekeela gorputzaren eduki osorako, xurgapena prebenitzeko neurririk hartzen ez bada.
c) Ingurumeneko muga-balioa: Eguneroko Esposizioa IMB-EE: 0,8 pul./min (1,5 mg/m3).
d) Etileno oxidoa, IARCren (*International Agency of Research on Cancer*) arabera, 2. taldean sailkatzen da (ziurrenik kartzinogenoa gizakiarentzat).

**208.- Osakidetzako Lan-arriskuak Prebenitzeko Kudeaketa-sistemaren (LAPKS) Sistema Orokorraren Istripuak/Gorabeherak Kudeatzeko Prozeduraren arabera, istripuak jakinarazi eta erregistratzeari dagokionez, zein da OKERRA?**

a) Gaineko arduradun hurrenak istripuaren edo gertakariaren barne parte bat beteko du tartean dagoen langile bakoitzarentzat.
b) Gertakaria goizeko ordutegian gertatzen bada (08:00etatik 15:00etara), jakinarazpen hori berehala egingo da. Jakinarazpena egintzat emango da, dagokion partea helaraziz.
c) Aplikazio-eremuan jasotako Osakidetzatik kanpoko langileei gertatutako lan-istripuak enpresak Osakidetzarekin duen solaskideari jakinarazi beharko zaizkio, prebentzio-zerbitzuak iker ditzan.
d) Garrantzitsua da istripua izan duen langilearen gaineko arduradun hurrenak istripuaren jakinarazpen-agirian gertakaria eragin duten arrazoiak adieraztea.

**209.- Osakidetzaren LAPSKeko Autobabeserako eta Larrialdietarako Planak Garatzeko eta Ezartzeko Prozeduraren arabera, Osakidetzako Autobabes Plana eta Larrialdietako Plana egiteari dagokionez, adierazi OKERRA:**

a) Autobabes Plana edota Larrialdi Plana Zerbitzu Erakunde bakoitzak egin behar du bere zentro guztietarako.
b) Osakidetzaren titulartasunekoak ez diren zentroetan (udalenak, aldundienak, etab.), Osakidetzako langileek soilik erabiltzen badituzte, zentro propio gisa tratatu beharko dira.
c) Autobabes Plana gaitutako eta akreditatutako teknikari batek idatzi eta sinatu behar du, Segurtasuneko sailburuaren 2016ko irailaren 5eko aginduaren arabera.
d) Larrialdi Planaren kasuan, Zerbitzu Erakundeko Prebentzioko Oinarrizko Unitateko teknikariek idatziko dute.

**210.- PMV (*Predicted Mean Vote*) indizeari dagokionez, adierazi erantzun ZUZENA:**

a) PMV indizeak deserosotasunari edo atsekabe termikoari buruzko informazioa ematen du, eta giro jakin batean beroegi edo hotzegi sentituko diren pertsonen ehunekoa iragartzen du.
b) PMV indizea ez da ezarri baldintza egonkorretarako.
c) PMV indizeak botoek sentsazio termiko orokorraren gainean duten batez besteko balioa islatzen du. Pertsona-talde handi batek emango luke hori, baldin eta inguruneko baldintza termiko beroen eraginpean egongo balira, jarduera fisiko bera egingo balute eta antzeko arropa eramango balute.
d) PMV indizea PPD (*Predicted Percentage of Dissatisfied*) indizetik lor daiteke.




**211.- Segurtasun-koloreak, kopuru txikian (gorria, horia, berdea eta urdina), arreta erakartzeko eta arrisku bat dagoela adierazteko erabiltzen dira, baita horiek azkar identifikatzeko ere. Adierazi kolorearen eta haren esanahiaren arteko lotura ZUZENA:**

a) Gorria: arreta, arriskua.
b) Urdina: geldialdia, debekua.
c) Berdea: segurtasun-egoera, lehen sorospenak.
d) Gorria: betebehar-seinaleak.

**212.- Osasuna erradiazio ionizatzaileen eraginpean egotearen ondoriozko arriskuetatik babesteko arautegia onartzen duen abenduaren 20ko 1029/2022 Errege Dekretuaren 40. artikuluari dagokionez, banakako historial dosimetrikoaren edukiari buruzkoa, zein da ZUZENA?**

a) A kategoriako langileei dagokien historial dosimetriko indibidualean, hileko dosiak eta urte ofizial bakoitzeko metatutako dosiak erregistratuko dira.
b) Historia dosimetrikoan kristalinoaren dosia esleitzen zaien langileen kasuan, urte ofizial bakoitzeko metatutako dosiak ere sartuko dira.
c) B kategoriako langileen historialean, esleitutako edo zenbatetsitako hileko eta urteko dosiak erregistratuko dira.
d) a) eta c) zuzenak dira.

**213.- Langile osasuntsuaren eragina ez da konstantea eta aldatu egiten da honako faktore hauen arabera. Adierazi zein den OKERRA:**

a) Langile Osasuntsuaren Eragina handiagoa da adin-talde gazteenetan, jaitsi egiten da adinean aurrera egin ahala eta desagertu egiten da erretiroa hartu ondoren.
b) Langile Osasuntsuaren Eragina desberdina da heriotza-kausa desberdinetarako.
c) Gizarte-klase altuek Langile Osasuntsuaren Eragin indartsuagoa dute beheko klaseek baino.
d) Langile Osasuntsuaren Eragina indartsua da minbizirako eta ahula arnas gaixotasunetarako eta gaixotasun kardiobaskularretarako.

**214.- Zein EZ da azterlan prospektiboaren onura?**

a) Gaixotasunaren hainbat adierazpen neur daitezke.
b) Neurketa-metodoak estandarizatu egin daitezke eta baliozkotasuna egiaztatu.
c) Emaitzak lortzeko behar den denbora.
d) Neurketa eta azterketa medikoak errepika daitezke.

**215.- Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren arabera, zein da gaixotasun profesionala behatzeko aldia?**

a) Gehienez 3 hilabeteko iraupena dute, eta beste hiru hilabetez luza daitezke.
b) Ez da zenbatuko aldi baterako ezintasunaren gehieneko iraupenaren ondorioetarako.
c) Gehienez ere sei hilabeteko iraupena du, eta ezin da luzatu.

d) Gaixotasun profesionalaren azterketa medikoa egiteko behar den denbora da, behin betiko diagnostikoa atzeratu behar denean.

**216.- Langileak erradiazio ez-ionizatzaileekiko esposiziotik babesteari dagokionez, adierazi erantzun OKERRA:**

a) Eremu elektromagnetikoetatik babesteko norbera babesteko ekipamendu ziurtatuak daude.
b) Langilea iturburu-pertsonatik ahalik eta urrunen egotea ahalbidetuko duten neurriak hartu beharko dira.
c) Blindatzeak ezarriko dira emisioa eta esposizioa murrizteko.
d) Mikrouhin labearekiko gehiegizko esposizioa dagoela jakinez gero, azterketa oftalmologikoa egin beharko da.

**217.- Zer eragiten du erradiazio ultramoreak? (Adierazi erantzun ZUZENA).**

a) Begi-lauso edo kataratak.
b) Erredura kortikalak.
c) Fotoerretinitisa.
d) Erredurak erretinan.

**218.- Erradiazio EZ ionizatzaileei dagokienez:**

a) Giza gorputzaren uretan eragin dezakete eta organismoan lesioak eragin.
b) DNA molekuletan zatiketa eragin dezakete.
c) Taupada-markagailuen funtzionamenduari eragin diezaiokete.
d) Kalteak ondorengo belaunaldietan ager daitezke.

**219.- Datuak bistaratzeko pantailak (DBP) dituzten ekipamenduak erabiltzearen ondoriozko arriskuak ebaluatzeko eta prebenitzeko LSOINren Gida Teknikoan, zer gomendatzen da?**

a) Teklatuaren gainazala distiratsua izatea.
b) Aulkiaren eserlekuaren sakonera finkoa izatea.
c) Bulegoko pantailako laneko zarata-maila 45 dB-tik 55 dB-ra bitartekoa izatea.
d) Aretoaren argiztapenaren maila 1.500 eta 1.800 lux artekoa izatea.

**220.- Hauen arteko zein da gorputz-jarrera DESEGOKIA datuak bistaratzeko pantaila duten lanetan?**

a) Eskua besaurrearen ardatzaren arabera tolestea.
b) Enborra atzerantz izatea, 110-120 º inguru.
c) 20º-tik behera makurtzea burua.
d) 20º-tik beherako ukondo-angelua.

**221.- Osasun Ministerioaren datuak bistaratzeko pantaila duten langileentzako Osasunaren Zaintzako Protokolo espezifikoaren arabera, jarduera hasteko azterketetan, langile guztiei honako proba hauek egin behar zaizkie, SALBU ETA:**

a) Pupilako errefluxuak.
b) Tonometria.
c) Zentzu kromatikoa.
d) Higikortasun estrintsekoa.

**222.- Osasun Ministerioaren datuak bistaratzeko pantaila duten langileentzako Osasunaren Zaintzako Protokolo espezifikoaren arabera, zer barne hartzen du karga mentala baloratzeko inkestak?**

a) Ingurune-faktoreak.
b) Exijentziak.
c) Lan-antolaketa.
d) Guztiak zuzenak dira.

**223.- Arrisku erlatiboari dagokionez:**

a) Ezaugarri batean desberdinak diren bi talde alderatzen ditu.
b) Determinante edo esposizio baten eta gaixotasunaren arteko lotura-indarra adierazten du.
c) Esposizioaren eta gaixotasunaren arteko kausa-ondorio erlazioak aztertzeko balio du.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

**224.- Aukera-arrazoiari dagokionez:**

a) Konparazio-neurri bat da kasuen eta kontrolaren azterlanetarako.
b) 1etik gorako balioek adierazten dute nahasmendua maizago gertatzen zaiela eraginpean daudenei.
c) Aukera-arrazoia zeharkako azterlanetan ere kalkula daiteke.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

**225.- Zein izan liteke langileek substantziak kontsumitzeak ondorioetako bat erakundean?**

a) Lan-istripuen areagotzea.
b) Produktibitatea areagotzea.
c) Errendimendua handitzea.
d) Pertsonen arteko harremanak areagotzea.

**226.- Produktu kimikoei dagokienez, adierazi ZUZENA:**

a) Larruazaleko bidea da sartzeko biderik garrantzitsuena.
b) Airean dauden substantzia toxikoen gehienezko kontzentrazio onargarriak muga zehatz gisa erabil daitezke kontzentrazio seguru eta arriskutsuen artean. Egungo ezagutzetan oinarrituta, uste da langile gehienak egunean 8 orduz eta astean 40 orduz egon daitezkeela eraginpean, haien lan-bizitza osoan, osasunerako ondorio kaltegarririk izan gabe.
c) Substantzia toxikoen gehienezko kontzentrazio onargarriek substantzia baten toxikotasunaren maila zehazteko balio dute.
d) Segurtasun Datuen Fitxa (SDF) bihurtzen da informazioa transmititzeko dokumentu nagusi.

**227.- Higiene industrialaren faseak honako hauek dira:**

a) Aitorpena eta ebaluazioa.
b) Aitorpena, ebaluazioa eta kontrola.
c) Ebaluazioa eta kontrola.
d) Aitorpena eta zaintza.

**228.- Zein metodo erabiltzen dira esposizio-mugak zehazteko?**

a) Azterketa epidemiologikoak.
b) Analogia kimikoa.
c) Animaliekin esperimentatzea.
d) Denak.

**229.- Zein da TLW-TWA atalaseko muga-balioa?**

a) Lanean esposizioaren ezein unetan gainditu behar ez den muga-kontzentrazioa.
b) Langileek denbora-tarte labur batean narritadurarik jasan gabe jasan dezaketen muga-kontzentrazioa.
c) Astean zortzi ordu eta 40 orduko lanaldi arrunt baterako mugako kontzentrazio haztatua, zeinaren eraginpean egon baitaitezke langile gehienak behin eta berriz, ondorio kaltegarririk jasan gabe.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**230.- Agente kantzerigeno edo mutagenoei dagokienez:**

a) Eragin estokastikoak dituzte.
b) Esposizio-atalasea dute, eta horren azpitik efektua ez dela gertatuko ziurtatuta dago.
c) Eragile horientzat, esposizio-ondorio erlazioa onartzen da.
d) Substantzia horietako batzuentzat ezarritako esposizio-mugak osasuna babesteko bermetzat hartu behar dira.

**231.- Medikamentu arriskutsuei buruzko NIOSHren sailkapenaren arabera:**

a) 1. taldeko medikamentuak ugalketa-prozesurako arriskua duten medikamentuak dira.
b) 2. taldeko medikamentuak ez dira antineoplasikoak, eta gutxienez arriskugarritasun-irizpide bat betetzen dute.
c) 3. taldeko medikamentuak antineoplasikoak dira.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**232.- Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionalaren Medikamentu Arriskutsuen Gidaren arabera, medikamentu hauetako zein ez dago NIOSHren I. taldean?**

a) Zisplatinoak.
b) Bleomizina.
c) Azido balproikoa.
d) Karboplatinoa.

**233.- IARCn (*International Agency for Research on Cancer*) sailkapenaren arabera, zeinak substantzia kimikoek gizakiengan duten arrisku kartzinogenikoa zehazten duen, zer da 2B taldean sailkatutako substantzia bat?**

a) Seguruenik gizakiengan kartzinogenoa den agentea.
b) Gizakiengan kartzinogenoa izan litekeen agentea.
c) Agente kartzinogenoa gizakiengan.
d) Seguruenik gizakiengan kartzinogenoa ez den agentea.

**234.- Zer erabaki hartzeko kontsultatu beharko die enpresaburuak behar besteko aurrerapenaz langileei?**

a) Osasuna babesteko jarduerak antolatzeaz arduratuko diren langileen izendapena.
b) Lanaren plangintza, segurtasunari eta osasunari dagokienez.
c) Prebentzio-arloko prestakuntzaren proiektua eta antolaketa.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**235.- Prebentzioko ordezkariei dagokienez, adierazi ZUZENA:**

a) Segurtasun eta Osasun Batzordera joatea ordu-krediturari egotziko zaio.
b) Arrisku larri eta berehalakoak eragindako langileen jarduera geldiaraztea erabaki dezakete, kideen gehiengoa izan gabe.
c) 50 langilera bitarteko enpresetan, langileen ordezkaria izango da prebentzio-ordezkaria.
d) 50 eta 100 langile bitarteko enpresetan bi prebentzio-ordezkari egongo dira.

**236.- Segurtasuneko eta Lan Osasuneko Batzordeari dagokionez, adierazi zein den ZUZENA:**

a) Bertan, ordezkari sindikalek har dezakete parte, hitzarekin eta botoarekin.
b) Enpresatik kanpoko prebentzio-teknikariek parte hartu ahal izango dute, batzordeko ordezkaritzetako batek hala eskatzen badu.
c) 30 langile edo gehiago dituzten enpresa edo lantoki guztietan eratuko da.
d) Hiru hilean behin bilduko da, baita ordezkarietako batek eskatzen duen guztietan ere.

**237.- Hauek guztiak glutaraldehidoarekin lan egiteko gomendatutako Norbera Babesteko Ekipamenduak (NBE) dira, SALBU ETA:**

a) Segurtasun-betaurrekoak.
b) Musuko kirurgikoa.
c) Eskularruak.
d) Mantal iragazgaitza.

**238.- Segurtasun biologikoko kabinei dagokienez, adierazi erantzun ZUZENA:**

a) I. klaseko segurtasun biologikoko kabina gomendatuta dago 3. motako agente biologikoak manipulatzeko.
b) II. klaseko A motako segurtasun biologikoko kabina gomendatuta dago 1. motako agente biologikoak manipulatzeko.
c) II. klaseko B motako segurtasun biologikoko kabina gomendatuta dago 4. motako agente biologikoak manipulatzeko.
d) I. motako segurtasun biologikoko kabina gomendatuta dago 4. motako agente biologikoak manipulatzeko.

**239.- Zein dira prebentzio-politika osatzen duten oinarrizko elementuak?**

a) Espezifikoa izatea.
b) Zehatza izatea.
c) Berrikusita egotea.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**240.- Hauek guztiak Lan-arriskuen Prebentzioko arduradunaren eginkizunak dira, SALBU ETA:**

a) Prebentzio Planaren dokumentuak prestatzea.
b) Prebentzio Plana ezartzea.
c) Prebentzio Planaren ezarpen-maila kontrolatzea.
d) Prebentzio-planeko jardueretatik eratorritako prebentzio-ekintzen eraginkortasuna kontrolatzea.




**241.- Osasun Ministerioaren Osasuna Zaintzeko Protokolo Espezifikoei dagokienez, zein aplikatuko da arlo sanitarioan probabilitate TXIKIENAREKIN?**

a) Laneko asma.
b) Laneko dermatosia.
c) Albeolitis alergiko estrintsekoa.
d) Neuropatiak.

**242.- Haurdunaldiko lan-arriskua baloratzeko laguntza-gidaren 3. edizioaren arabera, zein instalazio erradiologikotan jarrai dezake haurdun dagoen langile batek bere lan jarduera egiten?**

a) Erradiologia interbentzionistako gela batean.
b) Fluoroskopia kirurgikoko ekipamenduekin.
c) Erradiodiagnostiko orokorreko gela batean, egiturazko hesirik gabe.
d) Erradioterapia-zerbitzu batean, brakiterapia geroratuko ekipamendu automatiko bat maneiatzen.

**243.- Kargak Manipulatzeko Protokoloaren arabera, zer proba izan behar ditu kargak manipulatzen dituen langilearen miaketak?**

a) Tinel, Phalen, Lasègue eta Yocum.
b) Tinel, Phalen, Lasègue eta Apley.
c) Tinel, Phalen, Lasègue eta Schöber.
d) Tinel, Lasègue, Bragard eta McMurray.

**244.- Zein izan daiteke kargak manipulatzen dituzten langileen osasun-azterketen aldizkakotasuna?**

a) Urtekoa edo hiru urtekoa.
b) Urtekoa, bi urtekoa edo hiru urtekoa.
c) Urtekoa, bi urtekoa edo hiru urtekoa. Medikuaren irizpidearen araberakoa da, gainera, hiru hilean behinekoa edo sei hilean behinekoa izan daiteke.
d) Sei hilean behin, urtean behin edo hiru urtean behin.

**245.- Zer hartzen da heldualdi ontzat kargak manipulatzeaz ari garenean?**

a) Heldulekurik gabeko karga, eskua kargaren inguruan 90º tolestuz heltzen dena.
b) Heldulekuak dituen kargatu, eskumuturra posizio neutroan dagoela.
c) Besaurreak errotazio-mugimenduak maiz egitea eskatzen duen karga.
d) Heldulekuak dituen karga, ukondoa 30º-ra egotea uzten duena.

**246.- Zer ebaluatzen da NIOSH-en ekuazioaren metodoaren bidez?**

a) Mugimendu errepikakorrak.
b) Behartutako gorputz-jarrerak.

c) Bibrazioak.
d) Zamen manipulazioa.

**247.- Txandakako eta gaueko lanari dagokionez, hauetako zein da GEZURRA?**

a) LANEk 50 urtetik aurrera gaueko lan jarraitua borondatezkoa izatea gomendatzen du.
b) Ahal den neurrian, lan-karga murriztu behar da goizaldeko 03:00etatik 06:00etara.
c) Txanda "naturalen" txandakatzearen zentzua hobea da nekea berreskuratzeko.
d) Langileen artean desberdintasun indibidualak daude kronotipoaren arabera.

**248.- Hauetako zein da aldagai diskreto izenduna?**

a) Odol-taldea.
b) Ebaluazioaren ondoriozko arriskuaren maila.
c) Istripuaren larritasuna.
d) Ikasketa-maila.

**249.- 485/97 EDren arabera, zer esan nahi du segurtasun-seinaleen kolore gorriak?**

a) Ohartarazpen-seinalea da.
b) Betebehar-seinalea da.
c) Debeku-seinalea da.
d) Salbamendu- edo sorospen-seinalea da.

**250.- Hauetako zein EZ da babes kolektiboa babes indibidualaren aurretik jartzeko arrazoi bat?**

a) Babes indibidualak eragina du arriskuak langilearengan eragiten duenean, eta kolektiboak, aldiz, arriskuaren jatorrian eragiten du.
b) Norberaren babesa langilearen borondatearen araberakoa da.
c) Babes kolektiboa beti egongo da erabiltzeko moduan, eta babes indibidualak, berriz, langileak ekipamenduak izatea eskatzen du.
d) Babes indibiduala babes kolektiboa baino eraginkorragoa eta ekonomikoagoa da.

**251.- Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzko 21/2015 Dekretuaren arabera, zein koloretakoak dira II. taldeko hondakinak biltzen dituzten poltsak?**

a) Beltzak.
b) Berdeak.
c) Gorriak.
d) Ontzi zurrunetan joan behar dute.

**252.- Zer hondakin mota hartzen da makinen dialisi-iragazkitzat, GIB positibo duten pazienteentzat gordetako makinetan?**

a) I. taldekoa.
b) II. taldekoa.
c) III. taldekoa.
d) IV. taldekoa.

**253.- Hondakinen kudeaketari dagokionez, zentroak maiztasun bat ezarriko du hondakin sanitarioak bitarteko biltegiratze-lokaletatik kudeaketa egin aurreko biltegiratze-lokaletara eramateko, eta aldi hori hau baino laburragoa izango da:**

a) 72 ordu.
b) 48 ordu.
c) 24 ordu.
d) 12 ordu.

**254.- Euskadiko hondakin sanitarioen kudeaketari buruzko 21/2015 Dekretuaren arabera, zein taldetan sartzen dira eragile bizi indargabetuak dituzten txertoak?**

a) I. taldean.
b) II. multzoan.
c) III. taldean.
d) Dekretu horren aplikazio-eremutik salbuetsita geratuko dira.

**255.- Neurketa-tresna hauetako zein EZ da erabiltzen ingurumen-ergonomiaren arloan?**

a) Luxometroa.
b) Goniometroa.
c) Bibrometroa.
d) Sonometroa.

**256.- 486/97 EDaren arabera, zein da gutxieneko argiztapen-maila ikusmen-eskakizun handiko lanak egiten diren eremuetan?**

a) 100 lux-ekoa.
b) 200 lux-ekoa.
c) 500 lux-ekoa.
d) 1000 lux-ekoa.

**257.- Teklatuari dagokionez, 488/97 Errege Dekretuaren arabera:**

a) Teklatuaren gainazalak matea izan beharko du, islak saihesteko.
b) Teklatuaren gainazalak distiratsua izan beharko du teklak behar bezala bistaratzeko.
c) Teklatuak ezin du oker daitekeena izan.
d) Gainerako ekipamenduekiko teklatu independenteak ez dio eragiten gorputz-jarrera behartuak hartzeari.

**258.- Ataza baten karga fisikoa zehazteko, adierazi zein balorazio-irizpide EZ lukeen kontuan hartuko:**

a) Energia-kontsumoa, langileak garatu beharreko jarduera behatuz.
b) Langileak lanean duen oxigeno-kontsumoa neurtzea.
c) Ezkerreko bentrikuluaren eiekzio-frakzioa kalkulatzea.
d) Bihotz-maiztasunaren analisia.

**259.- Adierazi zein den erantzun OKERRA Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionalaren (lehen LSHIN) funtzioei dagokienez, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen arabera:**

a) Lege-araudia egiteko aholkularitza teknikoa.
b) Lan-arriskuak prebenitzeko arloan, prestakuntza-, informazio-, ikerketa-, azterketa- eta zabalkunde-jarduerak gauzatzea.
c) Nazioarteko erakundeekin lankidetzan aritzen da, eta autonomia-erkidegoek parte-hartzea errazten du.
d) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dela zaintzea.

**260.- Adierazi zein den erantzun ZUZENA haurdunaldian tuberkulosiarekiko lan-esposizioa izateari dagokionez:**

a) Haurdunaldian gaixotasun tuberkulosoa diagnostikatzen bada, tratamendua atzerapenik gabe egingo da.
b) Ezkutuko tuberkulosi-infekzioa diagnostikatuz gero, tratamenduari isoniazidarekin ekitea gomendatzen da.
c) Isoniazidak ez du gainditzen plazenta-hesia.
d) Bularra ematea kontraindikatuta dago, ama ezkutuko infekzio tuberkulosorako kimioprofilaxia egiten ari bada.

**261.- Zein fakultatibok has dezakete gaixotasun profesional posible baten jakinarazpena?**

a) Osasun Sistema Nazionalaren fakultatiboek.
b) Prebentzio-zerbitzuetako fakultatiboek.
c) A eta b zuzenak dira.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**262.- Zeinen lan-esposizioaren eraginez izan dezake langile sanitarioak gaixotasun profesionala?**

a) Pisu molekular txikiko substantziak (metalak eta horien gatzak, zur-hautsak, produktu farmazeutikoak, substantzia kimiko eta plastikoak, gehigarriak, etab.).
b) Pisu molekular handiko substantziak (landare- zein animalia-jatorriko substantziak, mikroorganismoak, eta landare-, animalia- edota mikroorganismo-jatorriko substantzia entzimatikoak).
c) a) eta b) erantzun zuzenak dira.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**263.- Gaur egungo gaixotasun profesionalen koadroan oinarrituta, zer gaixotasun profesional onar daitezke langile sanitarioen artean?**

a) Maskuriko minbizia.
b) Bronkio eta biriketako neoplasia gaiztoa.
c) Azaleko kartzinoma epidermoidea.
d) Sindrome linfoak eta mieloproliferatiboak.

**264.- Asma profesionalaren diagnostikoaren ondoren:**

a) Asma beti desagertzen da asma eragin duen agentea langilearengandik urrundu ondoren.
b) Pisu molekular handiko agenteek hondar-asma eragiten dute esposizioa amaitu ondoren.
c) Komenigarria da lanaren osteko osasunaren zaintza egitea.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**265.- Haurdun dauden langileen eta errubeolaren sentikortasun bereziari dagokionez:**

a) Errubeolaren aurkako serologia negatiboa bada, errubeolaren aurkako txertoa jarri behar zaie.
b) Serologia positiboa badute eta pediatrian lan egiten badute, lanpostutik kendu behar dira.
c) Haurdun dauden emakumeei txertoa jartzea gomendatzea da, berehalako erditze ondokoan.
d) Errubeolarekiko esposizioa badago eta haurdun dagoen langileak serologia negatiboa badu errubeolarekiko, jarraipen klinikoa eta serologikoa egin behar zaio 7 egunez.

**266.- Elgorriaren eraginpean egon daitezkeen sanitarioak langile sentikortzat har daitezke, baldin eta:**

a) Immunitate zelularraren eskasia badute.
b) Haurdun badaude.
c) a) eta b) zuzenak dira.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**267.- Langile sanitarioen kontaktu azterketa batean, langile bat ospitaleratutako paziente baten eraginpean egon da, hura ingresatu eta lau egunetara elgorria diagnostikatu baitiote. Zer egin beharko da?**

a) Kontaktu guztiei txertoa jarri.
b) Elgorria izan dezaketen kontaktu guztiei txertoa jarri, haurdun daudenei izan ezik (esposizioaren ondorengo hiru egunetan).
c) Elgorria izan dezaketen kontaktu guztiei txertoa jarri, haurdun daudenei izan ezik (esposizioaren ondorengo bost egunetan).
d) Gammaglobulina eman, ahal den kontaktu guztiei.

**268.- Norena da Osakidetzan lan-istripuaren barne partea egiteko erantzukizuna?**

a) Istripua izan duen langilearena.
b) Istripua izan duen langilearen bitarteko arduradunarena.
c) Prebentzio-teknikariarena.
d) Prebentzio-ordezkariarena.

**269.- Bereziki sentikorra den langilearen definizioak kontsiderazio hauek jasotzen ditu, bat IZAN EZIK:**

a) Ezaugarri pertsonalak edo egoera biologikoa.
b) Desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala.
c) Lan-arriskuak.
d) Lan-kategoria.

**270.- Azterketa epidemiologiko baten zehaztasunari dagokionez, zerk lagun diezaguke zoriaren zeregina baloratzen?**

a) Emaitzaren batezbesteko aritmetikoak.
b) Emaitzaren medianak.
c) Emaitzaren konfiantza-tarteak.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**271.- Azterlan epidemiologiko baten baliozkotasunari dagokionez, zein da erantzun OKERRA?**

a) Baliozkotasuna akats sistematikoaren araberakoa da.
b) Errore sistematikoari alborapena ere esaten zaio.
c) Ausazko erroreak baliozkotasunari eragiten dio.
d) Barne eta kanpoko baliozkotasunak hartzen ditu.

**272.- Lan-esposizioa eta langilearengan duen eragina baloratzen duen azterlan epidemiologiko baten emaitzek eragina izan dezakete langile osasuntsuaren eraginean:**

a) Azterketa zeharkakoa bada.
b) Azterketa biztanleria orokorra kontrolatzeko talde batekin egindako kohorteena bada.
c) a) eta b) zuzenak dira.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**273.- Ospitale bateko zuzendaritzak bere zentroko enpresa kontratistei aipatutako guztia eskatu behar die, honako hau IZAN EZIK:**

a) Prebentzio-plana.
b) Ospitalera lekualdatutako langileen informazioa eta prestakuntza.
c) Ospitalera lekualdatutako langileen lanpostuetako arriskuen ebaluazioa.
d) Plangintza prebentiboa.

**274.- Langileak lanean agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babesteari buruzko maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuak agente biologikoak lau taldetan sailkatzen ditu, infekzio-arriskuaren arabera. Sailkapen horren arabera, zein litzateke 3. taldeko agente biologiko bat?**

a) Gizakietan gaixotasun larria eragiten duelako langileentzat arrisku handia dakarrena, probabilitate handia duena kolektibitatera hedatzeko. Oro har, ez dago haren kontrako profilaxi edo tratamendu eraginkorrik.
b) Gizakietan gaixotasun larria eragin dezakeena eta arrisku handia izan daitekeena langileentzat. Kolektibitatera hedatzeko arriskua dago, eta, oro har, haren kontrako profilaxi edo tratamendu eraginkorra dago.
c) Pertsonei gaixotasun bat eragin diezaiekeena eta langileentzat arriskutsua izan daitekeena. Ez da oso litekeena kolektibitatera zabaltzea, eta, oro har, badago profilaxi edo tratamendu eraginkor bat.
d) Pertsonei gaixotasun bat eragiteko probabilitate txikia duena.

**275.- Arlo sanitarioko langileei B hepatitisaren birusari (BHB) dagokionez egiten zaizkien osasun-azterketei dagokienez, zer DA EGIA?**

a) Hasierako osasun-azterketak honako hauek jaso behar ditu: historia laneko historia klinikoa zuzenduta, miaketa, hemograma eta biokimika arrisku-taldeko kide izatea baztertzeko eta hepatopatiaren bazterketa, serologia beharrezkoa izan gabe.
b) Aldizkako osasun azterketek ez dute EAEPIak (esposizioa aurrez ezartzen duten prozedura inbaditzaileak) egiten dituzten langileen aldizkako serologia sistematikorik jaso behar.
c) EAEPIak (esposizioa aurrez ezartzen duten prozedura inbaditzaileak) egiten dituzten langileen kasuan, osasun azterketak bi urtean behin egingo dira, eta borondatezkoak izango dira; hala ere, horiei uko eginez gero, emaitza positiboak dituzten langileei aplikatzen zaizkien neurri berberak aplikatuko zaizkie.

d) AEPIak egiten ez dituzten langileen kasuan (esposizioa aurrez ezartzen duten prozedura inbaditzaileak), osasun azterketak bi urtean behin egingo dira, eta txertorik hartzen ez duten langileei nahitaez eskainiko zaio BHBren aurkako txertoa jartzeko, onarpenaren/uko egitearen idatzizko dokumentazioarekin. Txertaketari uko eginez gero, eta horretarako kontraindikazio medikorik ez badago, BHBrekin istripuz kontaktuan egoteak zure osasunean izan ditzakeen ondorio negatiboei buruzko idatzizko informazioa emango zaio.

**276.- Pediatriako solairuan lan egiten duen emakumezko erizaintzako laguntzaile batek prebentzio-zerbitzuari jakinarazten dio haurdun dagoela (bi hilabete). Prebentzio-zerbitzuak serologia bat egiten du, eta NEGATIBO ematen du errubeolarako. Zein jokabide EZ litzateke eduki beharko?**

a) Lanpostutik ez kentzea.
b) Jarraipen klinikoa eta serologikoa 21 egunez.
c) Immunoglobulina emateko aukera.
d) Lehen hiruhilekoan serobihurketa edo infekzioa badago, haurdunaldia etetea baloratu behar da.

**277.- Tuberkulosia hizpide hartuta, langile sanitario baten osasuna zaintzeari dagokionez:**

a) Osasun-azterketak egiteko maiztasuna lanpostuak dakarren arriskuaren araberakoa izango da, eta ez da bi urtetik gorakoa izango PPD proba egin behar duten arrisku handiko eremuetan lan egiten duten langileen kasuan.
b) Infekzioa lehendik ezagutzen duten langileen kasuan, aldizkako osasun-azterketek balorazio klinikoa izango dute, eta gomendatu egingo zaie erradiografiak ohikotasunez egitea.
c) Osasun-azterketa gehigarria aginduko litzateke TBren edozein klinika susmagarriren aurrean, babes egokirik gabeko TB aktiboko gaixo batekin kontaktua izanez gero, tuberkulina-bihurketa detektatuz gero edo sentikortasun berriak agertuz gero.
d) Guztiak zuzenak dira.

**278.- Langileen osasuna eta segurtasuna babesteko, lanean agente kimikoekin jarduteari lotutako arriskuei dagokien apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuan, zeren definizioa da agente kimiko batek mina egiteko duen berezko gaitasuna?**

a) Agente kimikoa.
b) Arriskua.
c) Perila.
d) Agente kimikoekiko esposizioa.

**279.- Nola definitzen da Ingurumen Muga-balioa, langileen osasuna eta segurtasuna babesteko, lanean agente kimikoekin jarduteari lotutako arriskuei dagokien apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuan?**

a) Batez besteko kontzentrazioaren muga-balioa, neurtu edo kalkulatua, lanaldian zeharreko hamabost minutuko edozein alditarako, erreferentziazko aldi laburragoa zehazten zaien agente kimikoen kasuak salbu.
b) Batez besteko kontzentrazioaren muga-balioa, neurtu edo kalkulatua, lanaldian zehar hamabost minutuko edozein alditarako.
c) Batez besteko kontzentrazioaren muga-balioa, neurtu edo kalkulatua, lanaldian zeharreko hogeita hamar minutuko edozein alditarako, erreferentziazko aldi laburragoa zehazten zaien agente kimikoen kasuak salbu.
d) Batez besteko kontzentrazioaren muga-balioa, neurtu edo kalkulatua, lanaldian zehar hogeita hamar minutuko edozein alditarako.

**280.- LSOINren Muga-balio Biologikoei (MBB) dagokienez, zer aipatu behar da agente kimikoen edo horien metabolitoen esposizioa eta osasunerako arriskua ehunetan, jariakinetan, iraizkinetan, botatako airean edo horien edozein konbinaziotan ebaluatzeari dagokionez?**

a) Ondorio kaltegarrien neurri gisa erabiltzeko pentsatuta daude, baina ez gaixotasun profesionalen diagnostikorako.
b) Bereizketa zehatz bat adierazten dute “arriskuko edo arriskurik gabeko” esposizioen artean.
c) Langile baten kasuan, adierazle biologiko jakin baten neurriak dagokion IMB gainditzen duenean, ez da ondorioztatu behar, beste azterketarik gabe, pertsona horrek gehiegizko esposizioa duenik.
d) IMBek beti adierazle biologikoen maila probableenak adierazten dituzte lanean agente kimikoekiko esposizio globala duten pertsona osasuntsuetan, eta, xurgatutako dosiari dagokionez, IMB-EE ordena arnasteagatiko esposizioaren baliokidea da.

**281.- Lanean produktu kimikoen eraginpean egoteko arriskua dutenen zaintza sanitario espezifikoari dagokionez, haurdun dagoen emakume batek GAI kalifikazioa badu:**

a) Langileak osasun-arrazoiengatiko inolako murrizketarik egin gabe bete ahal izango du bere ohiko zeregina.
b) Lanpostuz aldatu beharko da.
c) Lan-baldintzak hobetzeko prebentzio-neurriak ezarri beharko dira.
d) Berekin dakar lan-ingurune osoa edo zati bat langilera egokitzea, bere lanpostuari dagozkion zereginak osorik egiteko eta bere lanpostuko zeregin jakin eta espezifikoak osorik edo partzialki ez egiteko.




**282.- Agente kimikoetarako esposizio profesionalaren mugen ingurumen-muga balioei dagokienez, zer EZ DA EGIA?**

a) Aireko agente kimikoen kontzentrazioetarako erreferentzia-balioak dira, eta kondizio batzuk adierazten dituzte, zeinen eraginpean uste baita –gaur egungo ezagutzetan oinarrituta– langile gehienak egunez egun, lan-bizitza osoan zehar, egon daitezkeela osasunerako ondorio kaltegarririk jasan gabe.
b) Eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta ezartzen dira, eta informazio hori honako hauetatik dator: agente kimikoen analogia fisiko-kimikotik, in vitro azterketetatik, animaliekin esperimentatzeko eta boluntarioekin esposizio kontrolatua izateko azterlanetatik, azterlan epidemiologikoetatik eta industria-esperientziatik.
c) Balioen zerrendan dauden agente kimikoak inhalatzearen ondoriozko arriskuak ebaluatzeko eta kontrolatzeko baino ez dute balio.
d) Guztiak okerrak dira.

**283.- Langileak lanean agente kantzerigenoekiko esposizioarekin lotutako arriskuetatik babesteari buruzko maiatzaren 12ko 665/1997 Errege Dekretuaren arabera, nola definitzen da ugalketarako toxikoa den agente bat, zeinarentzat esposizio-maila seguru bat dagoen, eta, horren azpitik erabiliz gero, ez dagoen langileen osasunerako arriskurik?**

a) Ugalketarako toxikoa den agente atalaseduna.
b) Ugalketarako toxikoa den agentea, muga-balioarekin.
c) Ugalketarako toxikoa den agentea, muga-balio biologikoarekin.
d) Ugalketarako toxikoa den agentea, atalaserik gabe.

**284.- Agente zitostatikoekin lan egiten duen erizain batek prebentzio-zerbitzuari jakinarazi dio haurdun dagoela (bi hilabete). Zein litzateke hartu beharreko jokabidea?**

a) Lan-baldintzen ebaluazio gehigarria egitea.
b) Lanpostuz aldatu beharko zaio.
c) Haurdunaldian arrisku-egoera babestua izateko aukera kontuan hartu beharko litzateke.
d) Ez da ezer egin behar, agente zitostatikoak ez baitira haurdunaldirako arriskutsuak.

**285.- Uste bada substantzia bat gizakiarentzat kartzinogenoa dela frogak egin direlako animaliekin, zein kategorietan sailkatuko litzateke?**

a) 1A kategorian.
b) 1B kategorian.
c) 2A kategorian.
d) 2B kategorian.




**286.- Lanean agente kantzerigeno edo mutagenoekiko esposizioarekin lotutako espazio fisikoetan, zoruen, hormen eta gainerako gainazalen garbiketa erregularrari dagokionez, zer egingo da hautsezko solidoen kasuetan?**

a) Lehorreko ekorketa konbentzionalaren bidez garbitzeko metodoak aukeratuko dira.
b) Aireari putz eginda garbitzeko metodoak aukeratuko dira.
c) Presio handian ura lainoztatzearen bidez garbitzeko metodoak aukeratuko dira.
d) Hezean garbitzeko metodoak eta HEPA iragazkiak dituzten xurgagailuak erabiliko dira.

**287.- Arrisku ergonomikoko faktoreei lotuta amarentzat edota fetuarentzat egon daitezkeen ondorio kaltegarrien artean, zer EZ DAGO BARNE?**

a) Plazenta prebioa.
b) Erditze goiztiarra.
c) Jaioberriaren pisu eskasa.
d) Sortzetiko akatsak.

**288.- UNE-EN ISO 14644-1: 2000 araua oinarri hartuta, eta ebakuntza-geletako infekzio kirurgikoen aurkako prebentzioaren ikuspegitik, nolakoa izan daiteke aireztapena?**

a) A motako ebakuntza-geletan, norabide bakarreko sistema zein turbulentua onartzen dira, baina norabide bakarreko sistema eta gutxienez orduko 20 mugimendu egitea gomendatzen dira.
b) B motako ebakuntza-geletan erregimen zurrunbilotsua onartzen da, eta airearen mugimenduek orduko 35koak izan behar dute; airea % 100 kanpoaldekoa izango da.
c) C motako ebakuntza-geletan, aire-mugimenduek orduko 15ekoak edo gehiagokoak izan behar dute, eta aireak % 100 kanpokoa izan behar du.
d) A motako ebakuntza-geletan ez da onartzen airea birzirkulatzea.

**289.- Osakidetza/EOZeko ordenagailua erabiltzen duten lanpostuetako lehendikako lan-arrisku espezifikoen informazio-eskuliburuari dagokionez, zer da datuak bistaratzeko lanpostu bat?**

a) Datuak bistaratzeko pantaila (ordenagailuaren pantaila), teklatua eta sagua dituen ekipamendu batek osatzen duena.
b) Datuak bistaratzeko pantaila (ordenagailuaren pantaila), teklatua, sagua eta lanerako mahaia dituen ekipamendu batek osatzen duena.
c) Datuak bistaratzeko pantaila (ordenagailuaren pantaila), teklatua, aulkia eta lanerako mahaia dituen ekipamendu batek osatzen duena.
d) Datuak bistaratzeko pantaila (ordenagailuaren pantaila), teklatua, sagua, aulkia eta lanerako mahaia dituen ekipamendu batek osatzen duena.

**290.- Osakidetza/EOZeko ordenagailua erabiltzen duten lanpostuetako lehendikako lan-arrisku espezifikoen informazio-eskuliburuari dagokionez, zein EZ DA Datuak Bistaratzeko Pantailaren (DBP) "erabiltzaile"?**

a) Egunean benetan lan egindako 4 ordu gainditzen dituen langilea.
b) Astean benetan lan egindako 20 ordu gainditzen dituen langilea.
c) Egunean benetako 2 eta 4 ordu bitartean lan egiten duen langilea, ekipamendua ordubete edo gehiagoko aldi jarraituetan erabiltzen badu eta pantaila duen ekipamenduaren mende badago bere lanerako.
d) Astean benetako 5 eta 10 ordu bitartean lan egiten duen langilea, ekipamendua ordubete edo gehiagoko aldi jarraituetan erabiltzen badu eta pantaila duen ekipamenduaren mende badago bere lanerako.

**291.- Osakidetza/EOZeko administrari laguntzaile batek Osasun-zentroko, Anbulatorioko edo Ospitaleko mostradorean pertsonak artatzen ditu, eta normalean ordenagailua erabiltzen du. HAU GUZTIA EGIA DA, SALBU ETA:**

a) Pantaila haren aurrean jartzen saiatu behar du.
b) Pertsonak artatu behar baditu, pantaila 35º baino gehiagora biratuta jarri behar du.
c) UIB monitorearen azpian jartzea saihestu behar du.
d) Teklatua eta sagua eskumuturrak edota besaurreak mahaian behar bezala bermatzeko moduan jarri behar ditu.

**292.- Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa, zeri EZ ZAIO aplikatuko?**

a) Langileen Estatutuak araututako lan-harremana duten langileei.
b) Administrazio Publikoaren zerbitzupeko langileei.
c) Kooperatiba-sozietateetako langileei.
d) Aduanako Polizia, segurtasuna eta zaindariei.

**293.- Zein da administrazio publikoen kide anitzeko aholkularitza-organoa prebentzio-politiken formulazioan? Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko parte-hartze instituzionaleko organoa ere bada.**

a) Laneko Ikuskatzailetza eta Gizarte Segurantza.
b) Laneko Segurtasunaren eta Higienearen Institutu Nazionala.
c) Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionala.
d) Aurrekoetatik batek ere ez.

**294.- Euskal Autonomia Erkidegoko prebentzio-sistemaren barruan prebentzio-zerbitzuen jarduketa sanitarioei eta laneko medikuntzaren gaineko auditoretzak egiteari buruzko ekainaren 20ko 90/2023 DEKRETUAK ezartzen duenez, zein da osasun-baimenak eta prebentzio-zerbitzuei buruzko txostenak emateko erakunde eskuduna?**

a) Laneko Ikuskatzailetza eta Gizarte Segurantza.
b) Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala.
c) Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.
d) Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

**295.- Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalari dagokionez:**

a) Estatuko Administrazio Orokorraren organo zientifiko tekniko espezializatua da, eta beharrezko lankidetza ezarriko du arlo horretan eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetako organoekin.
b) Eginkizun du laneko segurtasun eta -osasun baldintzak aztertzea eta horien analisia egitea.
c) Eginkizun du laneko segurtasun eta -osasun baldintzak hobetzea sustatzea eta babestea.
d) Denak dira egiazkoak.

**296.- Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalak, bere eginkizuna betez, honako eginkizun hauek izango ditu, SALBU ETA:**

a) Aholkularitza teknikoa ematea lege-araudia egiterako eta normalizazioa garatzerako orduan, estatuan zein nazioartean.
b) Sustapena, eta, hala badagokio, lan-arriskuak prebenitzeko arloan, prestakuntza-, informazio-, ikerketa-, azterketa- eta zabalkunde-jarduerak egitea koordinazio eta elkarlan egokiarekin, eta, behar izanez gero, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzarekin, horiek arlo honetan dituzten eginkizunak gauzatzean.
c) Laguntza teknikoa eta lankidetza Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzarekin, administrazio publikoen eremuan zaintza- eta kontrol-eginkizuna betetzeko.
d) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia, bai eta, prebentzioari dagokionez, lan-baldintzetan eragina duten arau juridiko-teknikoak ere betetzen direla zaintzea, nahiz eta lan-araudia ez izan zuzenean, eta, dagokion zehapena proposatzea lan-agintaritza eskudunari.

**297.- Zeri dagokio lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia zaintzearen eta kontrolatzearen eginkizuna?**

a) Laneko Ikuskatzailetza eta Gizarte Segurantzari.
b) Laneko Segurtasunaren eta Higienearen Institutu Nazionalari.
c) Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalari.
d) Aurrekoetako edozeini.

**298.- Zer EZ DA EGIA Lanaren Nazioarteko Erakundeari (LANE) dagokionez?**

a) Administrazio Kontseilua berrogeita hamasei pertsonek osatuko dute.
b) Administrazio Kontseilua lau urtean behin berrituko da.
c) Administrazio Kontseiluak Lanaren Nazioarteko Bulegoaren zuzendari nagusia izendatuko du.
d) Zuzendari nagusiak eta langileek, beren eginkizunak betetzean, ez dute eskatuko ez onartuko inolako gobernuren edo erakundeaz kanpoko ezein agintariren jarraibiderik.

**299.- Zein da Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Agentziaren (EU-OSHA) legezko ordezkaria?**

a) Administrazio Kontseiluko burua.
b) Batzorde Betearazleko burua.
c) Zuzendari exekutiboa.
d) Administrazio Kontseiluaren idazkaria.

**300.- Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak ezartzen duenez, zein kasutan garatu ahalko du enpresaburuak berak prebentzio-jarduera, langileen osasuna zaintzeko jarduerak izan ezik?**

a) Enpresak 500 langile baino gehiago baditu.
b) 250 eta 500 langile arteko enpresa bada, eta kontrolatutako eremuetan erradiazio ionizatzaileekiko esposizioa duten lanak egiten badituzte.
c) Hamabost langile arteko enpresa bada.
d) Enpresak gehienez hogeita bost langile eta lantoki bakarra baditu.

**301.- Osakidetza/EOZeko istripu biologiko baten aurrean, istripuaren iturburu-pazientearekin egin beharreko jarduketak honako hauek hartzen ditu barne, SALBU ETA:**

a) Berehala jardutea: pazienteari istripu bat gertatu dela jakinaraztea eta istripu biologikoa ebaluatzeko beharrezko laguntza eskatzea.
b) Berehala jardutea: odola ateratzeko idatzizko baimena eskatzea, “III. Formatua: Gib-aren zein B eta C Hepatitisaren testak egiteko Baimen Informatua”.
c) Berehala jardutea: odola ateratzea dota POUrekin harremanetan jartzea, odola ateratzeko. Bolantea erreferentziako 11. laborategiarekin adostutakoaren arabera kodetuko da, eta dagokion serologia eskatuko da. “IV. Formatua: Pazientearen Istripu Biologikoaren Serologia Eskatzeko Eredua”.
d) Berehala jardutea**:** Pazienteari serologiaren emaitzak jakinaraztea.




**302.- Osasun-jarduera eta prebentzio-zerbitzuak garatzeko baliabideen antolaketari buruzko oinarrizko irizpideak ezartzen dituen ekainaren 17ko 843/2011 Errege Dekretuaren arabera:**

a) Prebentzio-zerbitzuko osasun-zerbitzuak zuzendari tekniko bat izan behar du, laneko medikuntzako espezialistaren titulua duena.
b) Medikuek ez dute laneko medikuntzan espezialistak edo enpresa-medikuntzan diplomadunak izan beharko.
c) Erizainek ez dute laneko erizaintzako espezialistak edo enpresa-erizaintzan diplomadunak izan beharko.
d) Oinarrizko Osasun Unitatetzat (OOU) hartzen da laneko edo enpresako mediku batek eta enpresako edo laneko erizain batek osatzen dutena, lanaldi partzialean edo osoan.

**303.- Ospitale bateko zuzendaritzak bere zentroko enpresa kontratistei aipatutako guztia eman behar die, SALBU ETA:**

a) Lantokiaren berezko arriskuak, haiek garatutako jarduerei eragin diezaieketenak, eta arrisku horiek prebenitzeko neurriak.
b) Plangintza prebentiboa.
c) Larrialdi-neurriak.
d) Aldi berean gertatzen diren lan-istripuen jakinarazpena.

**304.- Nolakoa izan behar du ospitale bateko langileen osasunaren zaintzak?**

a) Hasierakoa soilik, kontratazioaren unean egitekoa.
b) Hasierakoa eta urtekoa.
c) Arrisku biologikoen, erradiazio ionizatzaileen edota substantzia kimikoen eraginpean dauden langileentzat bakarrik egindakoa.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**305.- Ospitaleko langileen osasuna zaintzearen ondoriozko gaitasun medikoaren txostena:**

a) Langileari baino ez zaio jakinaraziko.
b) Enpresaburuari jakinaraziko zaio.
c) Prebentzio-teknikariei jakinaraziko zaie.
d) Langilearen erdi-mailako arduradunari jakinaraziko zaio.

**306.- Ospitaleko prebentzio-zerbitzuaren jarduerari dagokionez, adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) Aholkularitza eta laguntza ematea, enpresaburuari bakarrik.
b) Langileen segurtasuna eta osasuna behar bezalakoa dela bermatzeko prebentzio-jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabideen eta baliabide materialen multzoa da.
c) Larrialdi-planei buruzko aholkularitza eta laguntza eskaintzen du.
d) Langileen osasuna zaintzen du, lanaren ondoriozko arriskuei dagokienez.

**307.- Ospitale bateko prebentzio-ordezkariei dagokienez:**

a) Lan-arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza izan beharko dute, eta prestakuntza hori enpresaburuak emango die.
b) Ospitaleko langileen osasunaren zaintzearen emaitza medikoak ezagutu ahalko dituzte.
c) Prebentzio-zerbitzuaren kide izango dira.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**308.- Ospitale bateko prebentzioaren arloko langileen prestakuntzari dagokionez:**

a) Kontratazioaren hasieran eman beharko da.
b) Hasierakoa eta urtekoa izan beharko du.
c) Lanaldiaren ordutegian egin beharko da beti.
d) Langileek ordaindu beharko dute.

**309.- Laneko segurtasunaren eta osasunaren kudeaketari buruzko OSHAS ziurtagiriaren metodologia zertan oinarritzen da?**

a) Egitean, egiaztatzean, jardutean eta planifikatzean.
b) Planifikatzean, egitean, egiaztatzean eta jardutean.
c) Egiaztatzean, jardutean, planifikatzean eta egitean.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**310.- Zein da arrisku onargarria OSHAS kudeaketa-sisteman?**

a) Erakundeak onar dezakeen maila batera murriztutako arriskua, kontuan hartuta haren legezko betebeharrak.
b) Erakundeak onar dezakeen maila batera murriztutako arriskua, kontuan hartuta OSHAS sistemaren kontsiderazioak.
c) Erakundeak onar dezakeen maila batera murriztutako arriskua, kontuan hartuta haren legezko betebeharrak eta Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren (LSO) politikak.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**311.- OSHAS sistemaren helburuetako bat segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemaren etengabeko hobekuntza da. Nola definitzen da OSHASentzako etengabeko hobekuntza?**

a) LSOa kudeatzeko sistema optimizatzeko prozesu errepikaria da, LSO globalaren jardunean hobekuntzak lortzeko.
b) LSOa kudeatzeko sistema optimizatzeko prozesu errepikaria da, LSO globalaren jardunean, erakundearen LSOren politikarekin koherentzia mantenduz, hobekuntzak lortzeko.
c) LSOa kudeatzeko sistema optimizatzeko prozesu errepikaria da, LSO globalaren jardunean, erakundearen LSOren politikarekin koherentzia mantenduz, hobekuntzak lortzeko. Hobekuntza horiek aldi berean gertatuko dira jardueraren eremu guztietan.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**312.- OSHASen ustez laneko segurtasunak eta -osasunak zeri EZ dio eragiten?**

a) Aldi baterako langileei.
b) Lantokira doazen bisitariei.
c) A eta b zuzenak dira.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**313.- OSHAS sistemaren plangintzan beharrezkoa da arriskuak identifikatzea, arriskuak ebaluatzea eta kontrolak determinatzea. Kontrolek honako hauek izan behar dituzte, hurrenkera honetan:**

a) Ezabapena, ingeniaritzako kontrolak, seinaleztapena/ohartarazpenak edota kontrol administratiboak, eta norbera babesteko ekipamenduak.
b) Ingeniaritzako kontrolak, seinaleztapena/ohartarazpenak edota kontrol administratiboak, norbera babesteko ekipamenduak, ezabapena eta ordeztea.
c) Ezabapena, ordeztea, ingeniaritzako kontrolak, seinaleztapena/ohartarazpenak edota kontrol administratiboak eta norbera babesteko ekipamenduak.
d) Norbera babesteko ekipamenduak, ezabapena, ordeztea, ingeniaritzako kontrolak eta seinaleztapena/ohartarazpenak edota kontrol administratiboak.

**314.- Goi-zuzendaritzak, azken batean, laneko segurtasunaren eta osasunaren eta laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemaren arduraduna izan behar du OSHAS sisteman. Horretarako, zer egin behar du goi-zuzendaritzak?**

a) Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemari giza baliabide, baliabide teknologiko eta finantza-baliabide nahikoak eman.
b) Erakundeak LSOan erantzukizun espezifikoa duten goi zuzendaritzako kide bat edo batzuk izendatu behar ditu, beste erantzukizun batzuk alde batera utzita.
c) A eta b zuzenak dira.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**315.- Babes-ekipamendu bat erabiltzeko baldintzak, bereziki noiz eraman behar den, zeren arabera zehaztuko da?**

a) Arriskuaren larritasuna.
b) Arriskuarekiko esposizio-denbora.
c) Ekipamenduaren prestazioak.
d) Guztiak zuzenak dira.

**316.- Sektore sanitarioko langileen lan-gaitasuna ziurtatzeari dagokionez, adierazi zein den ZUZENA:**

a) Lan-gaitasuna baloratzeko, ez da beharrezkoa jakitea egin beharreko lan-baldintzek hirugarrenei kalte egiteko arriskua ekar dezaketen.
b) Hasierako osasun-azterketa batean, Gai edo Ez Gai bakarrik eman daiteke.
c) Lanpostuaren funtsezko eginkizunetan mugak dituen Gai bat ematen denean, enpresa behartuta dago langilea lanpostuz aldatzera.

d) Ezinbestekoa da tresna fidagarriak behar bezala erabiltzea lan egiteko gaitasuna ebaluatzen denean; izan ere, askotan, ez dago bat etortzerik gaitasuna baloratzeko proba medikoen interpretazioan eta erabileran.

**317.- C hepatitisaren lan-esposizioari dagokionez, adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) Birus hori modu eraginkorrean transmititzen da, anti VHC-ELISA positiboaren iturburu-pertsonaren odolarekiko lan-esposizioaren bidez.
b) Gaur egun ez dago profilaxi eraginkorrik istripuz CHBarekiko esposizioa izan ondoren.
c) CHBarekiko lan-esposizioaren osteko jarraipenean, kontrol serologiko eta klinikoak gomendatzen dira hilabete batera, 3 hilabetera eta sei hilabetera.
d) Jarraipenean transaminasak igotzen direla detektatzen bada, RNA-VHC edo VHCAg eskatu behar da.

**318.- Aldi baterako ezintasunari dagokionez, zein da erantzun ZUZENA?:**

a) Gehienez ere hirurehun eta hirurogeita bost egun luzaezin irauten du.
b) Birgaixotze-aldiak ez dira zenbatuko aldi baterako ezintasunaren gehieneko iraupenaren ondorioetarako.
c) Aldi baterako ezintasunagatiko sorospen-eskubidea ukatu, deuseztatu edo eten ahal izango da, baldin eta onuradunak, arrazoizko arrazoirik gabe, adierazitako tratamendua baztertzen edo uzten badu.
d) Birgaixotzetzat joko da patologia beragatik edo antzekoagatik beste baja mediko bat gertatzen denean, aurreko altak eragina izan eta hurrengo hirurehun eta hirurogeita bost egun naturalen barruan.

**319.- Eguneko esposizioaren ingurumen-muga balioa esleituta duten agente kimikoei (IMB-EE) dagokienez, zeinak iraupen laburrekoak (IMB-EL) EZ diren:**

a) Ezin da, inola ere, 5xVLA-ED balioa gainditu.
b) Ezin da, inola ere, 4xVLA-ED balioa gainditu.
c) Ezin da, inola ere, 3xVLA-ED balioa gainditu.
d) Ezin da, inola ere, 2xVLA-ED balioa gainditu.

**320.- Hauek guztiak eremu elektromagnetikoekiko esposizioaren ondorioak dira, SALBU ETA:**

a) Bertigoak.
b) Hipergluzemia.
c) Ondorio termikoak.
d) Erretinako fosfenoak.

**321.- Lurralde arteko Kontseiluaren Osasun Publikoaren Batzordearen Erradiazio Ionizatzaileen Osasun Zaintza Espezifikoko Protokoloaren arabera, hauetako bat erradiazio ionizatzaileek eragindako efektu estokastikoa da:**

a) Osteosarkoma.
b) Katarata.
c) Alopezia.
d) Oligospermia.

**322.- Adierazi faktore hauetako zein EZ den kontuan hartzen lantokian kutsatzaile kimiko batekiko esposizioa neurtzen duen adierazle biologiko bat aukeratzeko orduan:**

a) Kutsatzailearen ingurumen-kontzentrazioarekiko korrelazio-maila handia izatea.
b) Lagina zailtasunik gabe lortu eta kontserbatu ahal izatea.
c) Toxikoak ezaugarri duen patologia itzulgarri bat goiz agertzen den alterazio biologikoren batekin lotuta egotea.
d) Ez izatea oso selektiboa.

**323.- Begiak eta aurpegia babesteko ekipamenduak erabili beharko dira gauza guztien aurka babesteko, HONETAZ IZAN EZIK:**

a) Aerosolak.
b) Arrisku mekanikoak.
c) Arrisku elektrikoak.
d) Arrisku termikoak.

**324.- Fetuaren erradiazio arriskuei dagokienez, baieztapen hauetako zein da ZUZENA?**

a) Fetuarentzako arriskuak minimoak dira hirugarren hiruhilekoan, baina arriskuen barne dago adimen-atzeratasun erradioinduzitua.
b) Erradiazioaren arriskuak handiagoak dira haurdunaldiaren hirugarren eta zortzigarren asteen artean.
c) Erradiazioaren arriskuak handiagoak dira haurdunaldiaren 15. astetik aurrera.
d) Ezarpenaren aurreko fasean 100-200 mSv-ko dosi-baliokideek % 30eko hilgarritasuna eragin lezakete.

**325.- Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Kontseilu Nagusiaren eginkizunei dagokienez, adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) Segurtasunaren eta higienearen arloan zuzendaritza nagusiak egiten dituen programak eta jarduketa-planak onartzea.
b) Osasun Sailak proposatutako lan-osasunaren arloko jarduketa-programa jakinaraztea.
c) Zerbitzuen zuzendaritza eta langileen buruzagitza.
d) Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen berezko plangintza- eta programazio-jarduerak sustatzea.

**326.- Langile sanitario batek HBsAg iturriarekiko esposizioa positiboa izan du. Ez dio BHBren aurkako txertaketari erantzun, eta IgHB eman zaio. Zein da erantzun ZUZENA:**

a) IgHBren dosi bakarra eman behar zaio (B hepatitisaren aurkako immunoglobulina), ahal bezain laster.
b) Larruazalean zeharreko esposiziotik zazpi egun baino gehiago igaro ondoren ematen bada, ez da haren eraginkortasuna ezagutzen.
c) BHBren aurkako txertoaren 6 dosi edo gehiago jaso ondoren, antiHBs <20 mUI/ml dituen pertsona ez-erantzulea da.
d) Eraginpeko langilea ahal bezain laster aztertu beharko da, BHB bidezko infekzioa baztertzeko eta esposizioaren ondorengo 3-6 eta 12 hilabeteetan determinazioak errepikatzeko.

**327.- Haurdunaldiari eta lanpostuan GIBaren eraginpean egoteko arriskuari dagokienez, zein da erantzun OKERRA?**

a) Eraginpeko langile bat haurdun egoteak ez du esan nahi arriskurik dagoenik.
b) Haurdunaldiko edozein unetan agindu daiteke GIBarekiko esposizioaren osteko profilaxia, baldin eta esposizio esanguratsua egon bada.
c) Izan daitezkeen bigarren mailako ondorioen eta interakzioen monitorizazioa, gutxienez, bi astean behin egin behar da, GIBarekiko esposizioaren osteko profilaxiak 4 asteak bete arte.
d) Plazentan zeharreko infekzioa sarriago gertatzen da haurdunaldiaren 1. eta 2. hiruhilekoetan.

**328.- Bigarren mailako transmisioa saihesteko gomendio hauen artean, zeinak GIB positiboaren iturri baten eraginpean egon ondorengo jarraipen-aldirako ezarri diren, zein da erantzun OKERRA?**

a) Langileak esposizioa aurrez ezartzen duten maniobrak egiten baditu, lanpostuz aldatzea gomendatzen da.
b) Sexu-harremanetan preserbatiboa erabiltzea gomendatzen da, sexu bidezko transmisioa saihesteko eta haurdunaldia saihesteko.
c) Arrisku handiko esposizioa gertatuz gero, saihestu egin behar da edoskitzea.
d) Ez eman odola, plasma, organoak, ehunak edo semena.

**329.- Odol-transmisioko agente biologikoekiko esposizio-arriskua duten langile sanitarioen kasuan, aldizkako osasuna zaintzeko zein maiztasun gomendatzen da?**

a) Urtean behin langile guztietan.
b) Bi urtean behin, EAEPIak (Esposizioa aurrez ezartzen duten prozedura inbaditzaileak) egiten dituzten langileetan.
c) Hiru urtean behin, EAEPIak egiten ez dituzten langileen kasuan.
d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**330.- GIBarekiko esposizio profesionalaren osteko profilaxian, adierazi zein den erantzun ZUZENA:**

a) Karga birala detektaezina denean, kontuan har daiteke EAEPIrik ez egitea, transmisio-arriskua oso txikia delako.
b) Ez da gomendatzen GIBarekiko esposizioaren osteko profilaxia hastea esposiziotik 48 ordu baino gehiago igaro badira.
c) Arrisku oso handiko istripu-kasuetan, ez da inola ere gomendatzen EAEPIak egitea, karga birala edozein dela ere.
d) Ez da gomendatzen GIBarekiko esposizioaren osteko profilaxia hastea esposiziotik 48 ordu baino gehiago igaro badira.

**331.- Duela bost hilabete baino gehiago ezarritako eta behar bezala egindako tuberkulosi-gaixotasunaren tratamenduan, zer hartzen da porrot terapeutikotzat?**

a) Itzultze bat gertatzen denean eta elkarren segidako bi kultibo positibo agertzen direnean, elkarren segidako bi kultibo negatibo izan ondoren.
b) TB-MDR (tuberkulosi multierresistentea) batean tratamenduaren azken 12 hilabeteetan jasotako 4 kultibotatik 2 edo gehiago positiboak badira edo, azken 3 kultiboetako bat positiboa bada.
c) Ondorio kaltegarriak edo erantzun falta direla eta klinikoki erabakitzen bada hori etetea.
d) Aurreko kasu guztiak porrot terapeutikotzat jotzen dira.

**332.- Ospitaleratze-unitate batean paziente bat ospitaleratu berri dute eta biriketako tuberkulosia duen susmoa dute. Prebentzio- eta kontrol-neurri guztiak hartu ondoren, toraxeko erradiografia eta baziloskopia eskatu dira hasierako proba gisa. Prebentzio-zerbitzuari jakinarazi zaio karkaxan BAAR (bazilo azido-alkohol erresistentea) dagoela, eta erradiografiaren irudiarekin batera, biriketako tuberkulosiaren diagnostikoa berretsi dute. Noiz hasi beharko litzateke langile sanitarioen artean kontaktuak aztertzen?**

a) Biriketako tuberkulosia diagnostikatzen den guztietan, isolamendu-neurriak hartu ala ez.
b) Soilik langile sanitarioek aldez aurretik tuberkulinaren proba negatiboa badute
c) Soilik osasun-langileek aldez aurretik tuberkulinaren proba positiboa badute.
d) Pazientearen eraginpean isolamendu-neurririk hartu gabe egon bada.

**333.- Hauetako zein EZ da negatibo faltsuaren kausa tuberkulinaren proban?**

a) Birus biziak dituzten txertoak: elgorria, polioa, parotiditisa.
b) Diluzio desegokiak.
c) BCGren (Calmette-Guérin-en baziloa) aurkako txertoa duten gizabanakoak.
d) Infekzio bakterianoak: sukar tifoidea, legenarra, bruzelosia, kukutxeztula.

**334.- Ezkutuko tuberkulosi-infekzioaren tratamendu-indikazioei dagokienez, zein da erantzun OKERRA?**

a) Tratamendua infekzio berrirako agintzen da: gaixoen kontaktuak eta tuberkulinaren bihurtzaile berriak.
b) Tratatu gabeko hondar-fibrosiaren irudi-proba iradokitzailea duten pertsonak.
c) Aldez aurretik tuberkulosi aktibo bat dela eta tratatutako pertsonak, tratamendua osatu ez dutenak.
d) GIBaren infekzioa duten pertsonak.

**335.- Osakidetzako arrisku psikosozialak ebaluatzeko protokoloan, hauetako zein da ZUZENA faktore jakin bat arrisku handi gisa lehenesteko?**

a) 1. maila lehenesten da lantaldearen % 25 baino gutxiagori eragiten dionean.
b) 3. maila lehenesten da lantaldearen 2 kategoria baino gutxiagori eragiten dionean.
c) 3. maila lehenesten da lantaldearen % 50 baino gehiagori eragiten dionean.
d) 2. maila lehenesten da lantaldearen % 30i eragiten dionean.

**336.- Arriskua neurri epidemiologiko izateari dagokionez, zein da erantzun OKERRA?**

a) Arriskua pertsona batek denbora jakin batean gaixotasun bat hartzeko duen probabilitatea da.
b) Intzidentzia eta prebalentzia taldeko neurri epidemiologikoak dira, ez gizabanako bakartuenak.
c) Gaixotasun baten metatutako intzidentziaren balioarekin biztanleria horren batez besteko arrisku indibiduala kalkula daiteke.
d) Arriskua probabilitate bat da eta behatu egin daiteke.

**337.- Laneko azterlan epidemiologikoen diseinuari dagokionez, adierazi erantzun ZUZENA:**

a) Luzetarako azterlanek denbora-dimentsioa dute.
b) Zeharkako diseinua azterlanaren oinarriaren ebaki bat da.
c) Problema etiologikoek luzetarako diseinua behar dute.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

**338.- Adierazi erantzun ZUZENA Autobabeserako Oinarrizko Arauari (AOA) buruz:**

a) Autobabeserako Oinarrizko Arauak (AOA) II. eranskinean ezartzen du zein jardueratan den nahitaezkoa arau hori aplikatzea.
b) Larrialdi-planak barne hartzen du Autobabes Plana.
c) Larrialdi Planak langileen antolaketa eta egitura baino ez ditu aipatzen, eta NBAn definituta dago.
d) Autobabeserako Oinarrizko Arauak (AOA) Autobabeserako Planaren gutxieneko edukia ezartzen du haren I. eranskinean.

**339.- Adierazi dimentsio hauetako zeinek EZ duen ebaluatzen Malasch Burnout Inventoryren galdetegia (MBI):**

a) Neke emozionalak.
b) Antsietateak.
c) Despertsonalizazioak.
d) Norberaren errealizazioak.

**340.- Higiene industrialaren legezko alderdiei dagokienez, adierazi baieztapen ZUZENA:**

a) Agente kaltegarriekiko esposizio-mugak gainditzea arau-hauste larritzat sailkatzen du lan-arriskuen prebentzioari buruzko legeak.
b) Arriskuen ebaluazioan langileen ugalketa-funtzioan eragina izan dezaketen arrisku-faktoreak sartu behar dira, bereziki agente fisiko, kimiko eta biologikoekiko esposizioaren ondoriozkoak.
c) Arrisku larri eta berehalakoaren definizioaren barruan sartzen dira ondorio larriak izan ditzaketen esposizioak, nahiz eta ez berehala agertu.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

**341.- Nolanahi ere, osasuna zaintzea nahitaezko baldintza da agente kimiko arriskutsu batekin lan egiteko:**

a) Prebentzio-neurrien eraginkortasuna bermatuta badago.
b) Esposizioa inhalaziokoa ez den beste bide batzuetatik izatea garrantzitsua bada.
c) Esposizioa oso irregularra bada.
d) Osasuna zaintzea nahitaezko baldintza da agente kimiko arriskutsu batekin lan egiteko.

**342.- Osakidetzaren osasuna zaintzeko prozedurak honako irizpide hauek ezartzen ditu istripuaren edo gaixotasunaren ostean osasun-azterketa egiteko. Adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) Aldi baterako ezintasuna eragin duen lan-istripuaren ondoren.
b) Kasu guztietan, aldi baterako ezintasun-egoera baten ondoren.
c) Hiru hilabetetik gorako aldi baterako ezintasunen ondoren.
d) Patologiaren eta lan-arrisku-faktoreen artean lotura badago.

**343.- Arriskuen hasierako ebaluazioa egin ondoren, noiz ebaluatu behar dira berriro lanpostuak prebentzio-zerbitzuen erregelamenduaren 39/1997 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera?**

a) Lan-baldintzak aldatzen direnean.
b) Bereziki sentikorra den langile bat lanean hastean.
c) Lantalde berriak sartzean.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**344.- Bereziki sentikorrak diren langileei (BSL) dagokienez, adierazi baieztapen OKERRA:**

a) Langile sanitarioek bereziki sentikorrak diren langileak identifikatzen dituzte, eta beren ezaugarri pertsonalak, egoera biologikoa edo desgaitasuna direla-eta arrisku-egoeran jar ditzaketen arriskuak ebaluatzen dituzte.
b) Besteen baldintza berberetan, pertsonak gizartean bete-betean eta eraginkortasunez parte hartzea eragotz dezakeen epe luzerako urritasun fisiko, mental, intelektual edo sentsorialak izatea da desgaitasuna.
c) Aitortutako desgaitasuna lanpostuko lehendikako arrisku-faktoreekin lotuta ez dagoen kasuetan, langilea ez da bereziki sentikortzat hartu beharko.
d) Desgaitasuna % 66tik gorakoa bada, langile bereziki sentikortzat hartuko da beti.

**345.- 298/2009 EDaren VIII. eranskinean jasotakoaren arabera, agente fisiko hauetako zein dago sartuta haurdun dagoen langileak esposizio-arriskurik ez duen agenteen eta lan-baldintzen zerrenda zehaztugabean?**

a) Talkak, bibrazioak edo mugimenduak.
b) Erradiazio ionizatzaileak.
c) Erradiazio ez ionizatzaileak.
d) Aurreko guztiak.

**346.- Jarduera hauetako zein EZ dago sartuta Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionalaren (LSOIN) Laneko Osasuna Sustatzeko Europako Sarean integratutako Osasuna Sustatzeko Programan (OSP), zeina MOVE Europa programan integratuta dagoen?**

a) Jarduera fisikoa.
b) Estresaren kudeaketa.
c) Gaixotasun kronikoaren kudeaketa.
d) Tabakismoaren prebentzioa.

**347.- Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionalak osasuna sustatzeko enpresa-jardunbide egokiak aitortzeari dagokionez, adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) “Osasungarri” gisa aitortua izan nahi duen enpresa batek lan-arriskuen prebentzioari buruz indarrean dagoen legedia bete beharko du, eta, hortik aurrera, osasuna eta ongizatea sustatzeko esku-hartzeak ezarri beharko ditu, legedia horretatik harago.
b) Aitorpena eskatzea borondatezkoa eta doakoa da.
c) Jardunbide egokiak aitortzeko prozesua hasteko, enpresak kalitate orokorreko galdetegia beteta izan behar du, % 50eko puntuazioarekin edo puntuazio txikiagoarekin.
d) Osasunaren Sustapeneko Jardunbide Egokiak Aitortzeko prozesu hori ez da auditoria bat, eta, beraz, hirugarrenek ezin dute ziurtapentzat hartu.

**348.- Lan-inguruneko aire-korronteei dagokienez, ingurumeneko arrisku-faktore gisa, adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) Lokal bateko aire-fluxua normalean zurrunbilotsua izaten da.
b) Abiadura konstantea da.
c) Aire-korronte baten pertzepzioa airearen abiaduraren araberakoa da.
d) Eraginpean egondako gorputz-eremuak korrontearen pertzepzio indibiduala baldintzatzen du.

**349.- Amiantoaren eraginpean dauden langileen kontrol biologikoari eta proba osagarriei dagokienez, adierazi erantzun OKERRA:**

a) TCAR da pleurako isuriak detektatzeko irudi sentikorrenaren bidezko diagnostiko-teknika.
b) Laneko osasun-azterketa prebentiboetan, ez da gomendagarria ohiko bronkio eta albeoloetako garbiketa sistematikoa.
c) Amiantoaren eraginpean dauden langileen mesotelioma goiz detektatzeko gomendatzen den biomarkatzailea antigeno kartzinoenbrionarioa da.
d) Kontrol biologikoa ezin da aplikatu amiantoaren eraginpean dauden langileen osasunaren zaintzan.

**350.- Kontingentzia profesionalen ondoriozko prozesuetan, guztiek eman ahal izango dituzte alta medikoaren parteak, SALBU ETA:**

a) Lan-arriskuen Prebentzio Zerbitzuko medikuak.
b) Itsasoko Gizarte Institutuaren medikuak.
c) Osasun Zerbitzu Publikoaren medikuak.
d) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren medikuak.

**351.- Osakidetzako Osasuna Zaintzeko Prozeduraren arabera, zein izango da Prebentzioko Oinarrizko Unitatearen (POU) jarduketa, langilea ez badago, aldi baterako ezintasun (ABE) dela eta?**

a) Laneko baja-aldian, langilearekin harremanetan jarriko da prozesuaren lan-jatorria ezarri edo baztertzeko, POUk aldez aurretik tratatu ez dituen prozesuetan.
b) Hiru hilabetetik gorako ABEa duen gaixotasunaren edo lan-istripuaren ondoren egingo da osasun-azterketa.
c) ABEren kasuan, osasuna zaintzeko jarduketa-prozedura protokolo espezifikoan ezarritakora egokituko da.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**352.- Ospitaleetan, kasu hauetan guztietan lanean irrati-maiztasunaren eraginpean egoteko aukera dago, SALBU ETA:**

a) Fisioterapia-zerbitzuetan.
b) Irudi bidezko diagnosian.
c) Germizida-lanparetan.
d) DBPtan.

**353.- Irrati-maiztasunaren eta mikrouhinaren eraginpean egoteak osasunean dituen ondorioei dagokienez, adierazi zein den ZUZENA:**

a) Eragina izan dezake esperma-ekoizpenean.
b) Osasunerako ondorio kaltegarriak, funtsean, ehunen tenperatura jaistearen ondorio dira.
c) Ehun baskularizatuenek dute arrisku handiena.
d) Ez dago erasanik maila oftalmologikoan.

**354.- Zentro sanitario batean, non gertatzen da irrati-maiztasunekiko eta mikrouhin-labearekiko esposizio-egoera posible nagusia?**

a) Esterilizazio-zerbitzuan.
b) Fisioterapia-zerbitzuan.
c) Ebakuntza-gelan.
d) Laborategietan.

**355.- Datuak bistaratzeko pantailak (DBP) dituzten ekipamenduak erabiltzearen ondoriozko arriskuak ebaluatzeko eta prebenitzeko LSOINren Gida Teknikoaren arabera, zein hartzen da ikusmena zuzentzeko gailu zuzentzaile berezitzat?**

a) Patologietarako, hala nola miopia eta astigmatismoa, erabiltzen direnak.
b) Islaren aurkako betaurrekoak.
c) Presbiziarako erabiltzen direnak.
d) Horietako bat ere ez da gailu zuzentzaile berezitzat hartzen.

**356.- Osasun eta Kontsumo Ministerioaren Osasunaren Zaintza Espezifikoko Protokoloaren arabera, zeina Datuak bistaratzeko pantailen (DBP) eraginpean egoteko arriskua duten langileentzat zuzendurik dagoen, langilearen hasierako miaketaren azterketa oftalmologikoa:**

a) Oftalmologo batek egin behar du nahitaez.
b) Zuzenketa daramaten kasuetan, ikusmen-zorroztasun binokularra eta zuzentasuna soilik egingo dira, hurbiletik eta, batez ere, urrutitik ikusteko.
c) Monoftalmia gaitasun-ezaren irizpidea da.
d) Zentzu kromatikoaren proba bat izango du.

**357.- Zer EZ du barne hartu behar mendekotasuna sortzen duten jokabideak prebenitzeko eta horiei laguntzeko programa batek?**

a) Diziplina-kontrola.
b) Bizi-ohitura osasungarrien programa.
c) Arrisku psikosozialeko faktoreen kontrola.
d) Tratamendu espezializaturako sarbidea.

**358.- Zein da laneko estresari dagokionez gehien kontsumitzen den substantzia?**

a) Haxixa.
b) Alkohola.
c) Bentzodiazepinak.
d) Kokaina.

**359.- Hipotesien kontraste-testei dagokienez:**

a) Laginaren aldakortasunak emaitza azal dezakeen maila kuantifikatzen dute
b) P-ren balioa azterlan-taldearen neurriaren araberakoa da.
c) Ohikoa da p-ren balioa adostasunez finkatzea; hori α-ren esanahi-atalaseari badagokio, $p \leq \%$ 5ean edo $p \leq \%$ 10ean finkatzen da.
d) Guztiak zuzenak dira.

**360.- Analisi epidemiologikoan:**

a) Aldagai jarraituek zerbaiten kantitatea adierazten dute.
b) Aldagai jarraituek emandako bi balioen artean baino ezin dituzte balio jakin batzuk hartu.
c) Aldagai diskretuek emandako bi balioen arteko balioaren kopuru oso handia, infinitua, har dezakete.
d) Tartea eta arrazoia aldagai diskretuen neurketa-eskala dira.

**361.- Kutsatzaile kimikoekiko esposizioagatiko arriskuaren ebaluazioari dagokionez:**

a) Ingurumen-kontrola erabiltzen da langilearen osasunean dituen ondorioak ebaluatzeko.
b) Zuzeneko irakurketaren bidez egindako neurketaren abantailarik handiena fidagarritasuna da.
c) Laginak hartu eta analizatzean, garraioa eta kontserbazioa dira alderdirik garrantzitsuenak.
d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**362.- TLW-STELari dagokionez:**

a) 30 minutuz denboran haztatutako batez besteko esposizioaren muga da.
b) STELekiko (Short-Term Exposure Limit) esposizioak ez dira egunean 4 aldiz baino gehiagotan errepikatu behar.
c) Esposizio-muga bat da, TLW-TWAtik bereizia eta independentea.
d) TLV balioa aipatzen denean, hori izan ohi da aipatzen den muga-baliorik bereizgarriena.

**363.- Hauek guztiak Ebaluazio Biologikoaren abantailak dira Kutsatzaileen Ingurumen-ebaluazioaren aldean, SALBU ETA:**

a) Ebaluazio biologikoak gizaki bat erabiltzen du laginketa-elementu gisa.
b) Ebaluazio biologikoak langile batek jasaten duen ebaluazio orokorraren berri ematen du (lan-esposizioa eta lanekoa ez dena).
c) Ebaluazio biologikoak agerian uzten ditu sentikortasun indibidualaren eta lan-ohituren arteko aldeak.
d) Ebaluazio biologikoak denbora gutxiago eskatzen du.

**364.- Agente kantzerigeno edo mutagenoen eraginpean dauden langileen osasunaren zaintzari dagokionez, zein da GEZURRA?**

a) Mediku arduradunak prebentzio- eta babes-neurri indibidualak proposatu ahal izango ditu eraginpean dagoen langile bakoitzarentzat.
b) Laneko historia klinikoa esposizioa gertatu eta 40 urtera arte gorde beharko da.
c) Agente kantzerigeno edo mutagenoen eraginpean dauden langileen osasunaren zaintza, enpresarekin lan-harremanik ez badago, mutualitatearen kontura izango da.
d) Enpresaburua behartuta dago agente kantzerigeno edo mutagenoekiko esposizioa duten jarduerak egiteaz arduratzen diren langileen zerrenda bat egitera.

**365.- Osasun Ministerioaren Agente Zitostatikoen Eraginpean dauden Langileentzako Zaintza Sanitario Espezifikoko Protokoloaren arabera:**

a) Aldizkako azterketa medikoak egiteko 2 urteko tartea gomendatzen da.
b) Erribabirina manipulatzen duten langileen kasuan, espirometria bat egin behar da azterketa medikoan.
c) Immunodeprimitutako langileak ez dira Gai, aldi baterako.
d) Historia medikoak esposizioa amaitu eta 30 urtera gorde behar dira.

**366.- Medikamentu hauetako zeinek EZ ditu betetzen medikamentu arriskutsutzat hartzeko irizpideak?**

a) Bleomizinak.
b) Karboplatinoak.
c) Zetuximabak.
d) Zisplatinoak.

**367.- Sendagai hauetako zeinek du arrisku kartzinogenetiko egiaztatua *International Agency for Research on Cancer* (IARC) erakundearen sailkapenaren arabera?**

a) Flukonazolak.
b) Azatioprinak.
c) Fenitoinak.
d) Paroxetinak.

**368.- Segurtasuneko eta Lan Osasuneko Batzordeari (SLOB) dagokionez:**

a) Erabiltzen duten informazioari dagokionez, SLOBko kideek isiltasun profesionala izateko duten betebeharra SLOBko kide izateari uzten diotenean amaitzen da.
b) Lan-arriskuen Prebentzio Zerbitzuaren eskumena da egindako txostenen kopia kontrolatua ematea SLOBko kideei.
c) SLOBren bileretara Osakidetzaz kanpoko prebentzio-teknikariak joan daitezke.
d) SLOBren bileretara ezin dira Osakidetzako langileak joan.

**369.- Beren eskumenak erabiliz, prebentzioko ordezkariek zer ahalmen dituzte?**

a) Prebentzio-teknikariei ebaluazioetan laguntzea.
b) Enpresaburuari prebentzio-neurriak proposatzea.
c) Langileen osasunean izandako kalteei buruzko informazioa jasotzea.
d) Guztiak zuzenak dira.

**370.- Langileek lan-arriskuen prebentzioan duten parte-hartzeari dagokionez:**

a) Enpresaburuak ez die zuzenean jakinaraziko langileei zer arriskuren eraginpean dauden, beti bere ordezkarien bidez egingo du.
b) Enpresaburuak langileekin kontsultatu beharko ditu larrialdi-neurriez arduratuko diren langileak izendatzeari buruzko erabakiak.
c) Enpresaburuak laneko segurtasunari eta osasunari eragiten dieten gaiak baino ez ditu kontsultatuko lan-arriskuen prebentzio-zerbitzuarekin.
d) Guztiak zuzenak dira.

**371.- Nola erabili beharko dira norbera babesteko ekipamenduak (NBE)?**

a) Arrisku bat babesteko NBE bat badago, erabili egin behar da.
b) Baliabide teknikoen bidez behar bezain beste mugatu ezin den arriskua badago.
c) Lan-prozeduren bidez behar bezain beste mugatu ezin den arriskua badago.
d) b) eta c) zuzenak dira.

**372.- Adierazi zein den ZUZENA sendagai arriskutsuak prestatzeko eta emateko, norbera eta taldea babesteko ekipamenduak erabiltzeari dagokionez:**

a) Maskara kirurgikoak erabiliko dira medikamentu zitostatikoak manipulatzeko.
b) I. motako Segurtasun Biologikoko Kabinak (SBK) erabiliko dira medikamentu arriskutsu antzuetarako.
c) Zipriztinen aurkako betaurrekoak erabiliko dira medikamentu zitostatikoak manipulatzeko.
d) Ahal dela, II motako kabinak erabiltzen dira II b motako Segurtasun Biologikoko Kabinak (SBK) baino, babes handiagoa dutelako.

**373.- Norbera Babesteko Ekipamendu (NBE) bat egokitu behar bazaio desgaitasunen bat duen langile bati, nork egin edo onartu beharko dute aldaketa?**

a) Lan-arriskuen Prebentzio Zerbitzuak.
b) Segurtasuneko eta Lan Osasun Batzordeak.
c) Fabrikatzaileak.
d) Enpresaburuak.

**374.- Nork du enpresan lan-arriskuen prebentzioa integratzeko betebeharra?**

a) Lan-arriskuen Prebentzio Zerbitzuak.
b) Segurtasuneko eta Lan Osasun Batzordeak (SLOB).
c) Enpresaburuak.
d) Guztiek.

**375.- Zeintzuk dira Lan-arriskuen Prebentzio Plana kudeatzeko eta aplikatzeko funtsezko tresnak?**

a) Lan-arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza.
b) Arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza.
c) Enpresaren lan-arriskuen antolaketa eta prebentzio-jardueraren plangintza.
d) Arriskuen ebaluazioa eta lan-istripuak aztertzea.

**376.- Lan-arriskuen Prebentzio-planari dagokionez:**

a) Lan-arriskuen prebentziorako tresnak baino ez ditu.
b) Enpresan prebentzio-plan bat edukitzea borondatezkoa da, eta enpresarentzat hobekuntza-plan bat da.
c) Arrisku larriko eta berehalako egoeretan lana etetea da arloko arduradunek egin beharreko eginkizunetako bat.
d) Goi-zuzendaritzaren erantzukizunetako bat indarrean dagoen legedia zenbateraino betetzen den aldizka egiaztatzea da.

**377.- Langileen osasuna zaintzeari dagokionez:**

a) Enpresak bere zerbitzura lanean ari diren langileen osasun-egoera aldian-aldian zainduko duela bermatuko du, lanak berak sortzen dituen arriskuak kontuan hartuta.
b) Zaintza hori ezin izango da inola ere egin, langileak baimena ematen ez badu.
c) Ez da beharrezkoa langileari osasunaren zaintzaren emaitza jakinaraztea, ohiz kanpoko inguruabarrik ez badago.
d) a) eta b) zuzenak dira.

**378.- Hauetako zein EZ da osasuna zaintzearen helburuetako bat, maila indibidualean?**

a) Lan-baldintzek osasunean dituzten ondorioen detekzio goiztiarra.
b) Arrisku batzuen aurrean bereziki sentikorrak diren langileak identifikatzea.

c) Zeregina norbanakoari egokitzea.
d) Enpresaren osasun-egoera baloratzea.

**379.- Lanaren arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, zein hartzen da administrazioko arau-hauste OSO ASTUNTZAT?**

a) Azterketa medikoak ez egitea.
b) Osasun-datuei buruzko konfidentzialtasun-betebeharra ez betetzea.
c) Osasunaren zaintzaren emaitzak langileei ez jakinaraztea.
d) Langileak beren ezaugarri pertsonal ezagunekin bateraezinak diren baldintzak dituzten lanpostuetara atxikitzea, horrek arrisku larri eta berehalakorik ez badakar.

**380.- Aukera hauetako zein ez da familia-medikuaren lanpostuaren eskakizun psikofisikotzat hartzen?**

a) Maiz egiten den doitasunezko lana.
b) Karga mental handiko eskakizunak.
c) Entzumen- eta ikusmen-betekizun neurosentsorial handiak.
d) Lan ez-sedentario arina.

**381.- Zer dosimetro mota da langileengan gehien erabiltzen dena, jasotako eta metatutako dosia irakurtzeko aukera ematen baitu denbora luzez (normalean hilabete bat)?**

a) Ionizazio-ganberakoa.
b) Argazki-filmekoa.
c) Termoluminiszentziakoa.
d) Digitalak.

**382.- Erradiazio ionizatzaileen eraginpean dauden langileentzako dosien mugei buruzko baieztapen hauetako zein da egiazkoa?**

a) Eraginpeko langileentzako dosi eraginkorraren muga 25 mSv-koa izango da urte ofizial bakoitzeko.
b) Kristalinorako dosi-muga baliokidea 120 mSv izango da ondoz ondoko bost urte ofizialetarako, eta 60 mSv-ko gehieneko dosia urte ofizial bakarrerako.
c) Larruazalerako dosi-muga baliokidea 100 mSv izango da urte ofizial bakoitzeko.
d) Gorputz-adar bakoitzaren dosi-muga baliokidea 500 mSv izango da urte ofizial bakoitzeko.

**383.- Funtzio hauetako zein EZ dagokio Babes Erradiologikoko Unitate Teknikoari?**

a) Norberaren osasuna zaintzearen arloan beharrezkoa den dokumentazioa prestatzea.
b) Lan-eremuen sailkapen erradiologikoa.
c) Eraginpean dauden langileen historia dosimetrikoak eguneratzea eta mantentzea.




d) Haurdun eta edoskitze aldian dauden langileen arriskuak ebaluatzea eta lan-baldintzak definitzea.

**384.- MAPO metodoari dagokionez, zer esan dezakegu?**

a) Haren siglek hau esan nahi dute: "Ospitaleratutako pazienteen mobilizazio aktiboa".
b) Ospitaleko unitate edo zerbitzu baten arriskuaren maila semaforoaren ereduaren arabera identifikatzeko aukera ematen du.
c) MAPO indizea 3tik gorakoa denean, arrisku maila handia dela jotzen da.
d) Asistentzia-kargaren ezaugarriak zehazteko, ez da beharrezkoa jakitea pazienteak eskuz manipulatzeko zenbat langile dauden lan-txanda bakoitzean.

**385.- Zein esplorazio-maniobrak bereizten ditu ziatalgia eta koxalgia?**

a) Schöver-en zeinuak.
b) McMurray-ren maniobrak.
c) Lasègue-ren proba diferentzialak.
d) Adams-en maniobrak.

**386.- Langileen Estatutuaren arabera, gaueko langileak:**

a) Gaueko 10etatik goizeko 6etara etengabe lan egiten du.
b) Gutxienez eguneroko laneko 3 ordu edo urteko lanaldiaren heren bat gaueko 10etatik goizeko 6etara bitartean ematen du.
c) Gutxienez eguneroko laneko 4 ordu edo urteko lanaldiaren erdia gaueko 10etatik goizeko 6etara bitartean ematen du.
d) Langileen Estatutuak gaueko lanaren kontzeptua bakarrik definitzen du, ez gaueko langilearena.

**387.- Normalean txandakako antolaketa-sistemetako zein erabiltzen da gehien ospitaleetan?**

a) Sistema etena.
b) Sistema erdijarraitua.
c) Sistema jarraitua.
d) Aurrekoetako bat bera ere ez.

**388.- Langileen zaintza epidemiologikoari dagokionez, aldagaiez ari bagara, aukera hauetako zein da GEZURRA?**

a) Aldagaitzat hartzen da neur daitekeen edozein ezaugarri, baldintza edo atributu; ezagutzen den neurketa-eskala bat erabiltzen da, eta behatzaileak neurtzen duen bakoitzean balio desberdina har dezake.
b) Neurketa-eskalaren arabera, aldagaiak jarraituak edo diskretuak izan daitezke.
c) Aldagai mota eta neurketa-eskala garrantzitsuak dira, egin beharreko estatistika- eta analisi-motak zehaztuko dituelako.
d) Ikasketa-maila etengabeko aldagaia da.

**389.- Adierazi zein den aukera ZUZENA ezbehar-tasaren maiztasun-indizeari dagokionez:**

a) Kalkuluan *in itinere* istripuak barne hartzen dira.
b) Urteko aldien arabera kalkula daiteke, baina ez hileko aldien arabera.
c) Lan egindako mila orduro gertatutako istripuen kopurua adierazten du.
d) Horiek kalkulatzeko, lan-arriskuarekiko esposizioa dagoen bitartean gertatutako istripuak bakarrik kontabilizatu behar dira.

**390.- 485/1997 Errege Dekretuaren arabera, zein dira ohartarazpen-seinaleak?**

a) Triangelu-forma, piktograma beltza hondo horiaren gainean.
b) Forma angeluzuzena, piktograma beltza hondo horiaren gainean.
c) Forma biribila, piktograma zuria hondo urdinaren gainean.
d) Forma angeluzuzena, piktograma beltza hondo horiaren gainean.

**391.- Euskadiko hondakin sanitarioen kudeaketari buruzko 21/2015 Dekretuaren arabera, zein taldetan sartzen dira formolean kontserbatutako hondakin anatomikoak?**

a) I. taldean.
b) II. taldean.
c) III. taldean.
d) Dekretu horren aplikazio-eremutik salbuetsita geratuko dira.

**392.- Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeari buruzko 21/2015 Dekretuaren arabera, hondakin infekzioso hauetako zein barne hartzen da I. eranskinean (IIA taldea)?**

a) Lassa Sukarra duen pazientearekin kontaktuan dagoen langile sanitario batek erabiltzen duen norbera babesteko ekipamendua.
b) Tularemia duen pazientearen gernua.
c) C hepatitisa duen pazientearen gorakoa.
d) GIBa duen pazientearen odolez zikindutako gasa.

**393.- III. taldeko hondakinak zentrotik kanpo kudeatzeari dagokionez, 21/2015 Dekretuaren arabera, zein da OKERRA?**

a) Hondakin horiek garraiatzeko ontziak dituzten hondakinaren arabera etiketatu beharko dira.
b) “III a) medikamentu zitotoxikoak” taldeko hondakinetarako, zentro ekoizlean bildu zirenetik tratatu arte igarotako denborak ezin izango du 3 hilabetetik gorakoa izan.
c) “III b) baztertutako medikamentuak” taldeko hondakinetarako, zentro ekoizlean bildu zirenetik tratatu arte igarotako denborak ezin izango du 1 urtetik gorakoa izan.
d) Kontuan hartu behar dira salgai arriskutsuen errepideko garraioari buruzko 97/2014 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak eta betekizunak.

**394.- Langile baten adierazle biologiko jakin baten neurriak dagokion muga-balio biologikoa gainditzen badu, zer ondorioztatu behar da?**

a) Zalantzarik gabe, langilea gehiegizko esposizioan dago.
b) Ingurumen-neurketa gaizki egin da, handia izango baita segurtasun osoz.
c) Desberdintasun indibidualak, biologikoak edo jokabidezkoak, bai lan-eremutik kanpo bai lan-eremuaren barruan, sendotasun ezaren iturri dira ingurumen-kontrolaren eta kontrol biologikoaren emaitzen artean, baina azalpen onargarri bat bilatu behar da, eta horren arabera jokatu.
d) Lanak berehala geldiarazi behar dira.

**395.- Agente kimiko hauetako zeinek EZ du adierazle biologikorik eta muga-balio biologikorik (MBB), Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionalaren 2023ko "Esposizio Profesionalaren Mugak" dokumentuaren arabera?**

a) Formaldehidoak.
b) Karbono monoxidoak.
c) Fenolak.
d) Trikloroetilenoak.

**396.- Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionalaren "Agente Kimikoentzako Esposizio Profesionalaren Mugak"egungo dokumentuaren arabera, zer da egia etileno oxidoari dagokionez?**

a) Muga-balio biologikoa du (MBB).
b) Eguneko ingurumen/esposizioko muga-balioa du (IMB-EE).
c) Iraupen laburreko ingurumen/esposizioko muga-balioa du (IMB-EL).
d) Guneko ingurumen/esposizioko muga-balioa du (IMB-EE), baita iraupen laburreko ingurumen/esposizioko muga-balioa ere.

**397.- Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen 486/1997 Errege Dekretuaren III. eranskinean lantokietako ingurumen-baldintzak ezartzen dira. Adierazi aukera ZUZENA:**

a) Bulego motako lan sedentarioak egiten diren lokaletako tenperatura 14 eta 27 ºC artekoa izango da.
b) Lan arinak egiten diren lokaletako tenperatura 14 eta 25 ºC artekoa izango da.
c) Giro beroak ez dituzten lanetarako, langileek ez dute maiz edo etengabe 0,10 m/s-tik gorako abiadura duten aire-korronteen eraginpean egon beharko.
d) Hezetasun erlatiboa % 50etik % 70era bitartekoa izango da edozein egoeratan.

**398.- Adierazi baieztapen hauetako zein den OKERRA:**

a) Langileen taldeak, behin eratu eta erakunde edo instituzio sanitarioek onartu ondoren, haien zuzendaritza-organoek eta kudeatzaileek aintzatetsi eta babestuko dituzte, bai eta haien jardueretan lagundu ere.
b) Langileek talde-lana banatzeko prozesuan esleitzen zaizkien zeregin eta eginkizunetan behar bezala jarduteko duten gaitasunaren erantzukizuna beren jarduera gauzatzen duten zentro eta erakundeena izango da.
c) Langileen talde baten barruan, jarduketak eskuordetu ahal izango dira, baldin eta eskuordetze hori gauzatzeko baldintzak aldez aurretik ezarrita badaude taldearen barruan.
d) Langileen talde batean barruan, erantzukizuna eragin duten zereginak eta funtzioak bere gain hartu dituzten taldekideena izango da, baldin eta eskuordetzaren baldintzak ezarritakora egokitzen badira.

**399.- Lan-metabolismoari dagokionez, zein da ZUZENA?**

a) Kontsumo metabolikoak karga fisikoa ebaluatzeko balio du, eta beharrezko aldagaia da eraso termikoa baloratzeko.
b) Metabolismo moderatuaren adibidea da esku eta besoetan egiten den lan iraunkorra (iltzeztatzea, betetzea).
c) Kontsumo metabolikoa parametro fisiologikoen neurketaren bidez zehazteko, oxigeno-kontsumoa eta bihotz-maiztasuna baloratzen dira.
d) Hiru erantzunak zuzenak dira.

**400.- Zentro sanitarioen eta osasun-zerbitzuen titularrek hitzarmenak eta itunak egin ahal izango dituzte Carlos III.a Osasun Institutuarekin, beste ikerketa-zentro publiko edo pribatu batzuekin eta ikerketa sanitarioan interesa duten beste erakunde batzuekin, honako hauetarako (adierazi erantzun OKERRA):**

a) Ikerketa-programak garatzeko.
b) Ikerketako tutoreak izendatzeko.
c) Establezimendu sanitarioak plaza lotuez edo ikertzaile-plaza espezifikoez hornitzeko.
d) Espezialista-titulua lortu aurreko aldian ikertzaileak prestatzeko sistema espezifikoak ezartzeko.

**401.- 39/1997 Errege Dekretuaren VII. eranskinean (agenteen, prozeduren eta lan baldintzen zerrenda ez zehatza, haurdun dauden langileen, erditu berri diren langileen edo bularra ematen ari diren langileen osasunean edo fetuaren osasunean eragin negatiboa izan dezaketenak ), agente hauetako zein sartzen da?**

a) Eragile fisikoak: muturreko hotza eta beroa.
b) Agente kimikoak: beruna eta deribatuak, agente horiek giza organismoak xurgatzeko modukoak diren neurrian.
c) Eragile fisikoak: gainpresio handiko atmosferetako lanak.
d) Agente kimikoak: Substantzien eta nahasketen sailkapenari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzko Erregelamenduak H362 gisa etiketatutako substantziak.




**402.- Lan egiten duzun ospitaleko erizain batek istripuzko ziztada bat izan du, orratz huts batekin, eta une horretan artatzen ari zen pazienteak birus-karga handiko GIB positiboa da. Kontsultan esan dizu haurdun geratu nahi duela. Zenbat denbora aholkatuko zenioke haurdunaldia saihesteko?**

a) Itxaron gabe haurdun gera daiteke.
b) Lau aste itxaron behar ditu.
c) 6 eta 12 aste artean itxaron behar du.
d) Gutxienez 6 hilabete itxaron behar ditu.

**403.- Agente biologiko hauetako zein EZ da transmititzen ama-fetuaren plazentaren bidez?**

a) Errubeola.
b) Zitomegalobirusa.
c) GIBa.
d) A hepatitisaren birusa.

**404.- Zein dira lan-istripuen indize nagusiak?**

a) Heriotza-indizea, larritasun-indizea eta maiztasun-indizea.
b) Maiztasun-indizea, larritasun-indizea eta probabilitate-indizea.
c) Maiztasun orokorraren indizea, larritasun-indizea eta probabilitate-indizea.
d) Intzidentzia-indizea, maiztasun-indizea eta larritasun-indizea.

**405.- Etengabeko prestakuntzako programak gauzatzeko akreditatutako zentro sanitarioei dagokienez:**

a) Egin beharreko jardueren arabera egokiak diren ikasketa-buruak, irakaskuntza-koordinatzaileak eta prestakuntza-tutoreak izan beharko dituzte, bai eta ikasleen defendatzaile bat ere.
b) Irakaskuntza-batzorde bat izan beharko dute, bai eta egin beharreko jardueren arabera egokiak diren ikasketa-buruak, irakaskuntza-koordinatzaileak eta prestakuntza-tutoreak ere.
c) Irakaskuntza-batzorde eta ikasleen defendatzaile bana izan beharko dituzte, bai eta egin beharreko jardueren arabera egokiak diren ikasketa-buruak, irakaskuntzako koordinatzaileak eta prestakuntzaren tutoreak ere.
d) Aurreko aukera guztiak okerrak dira.

**406.- Lan-arriskuen eraginpean egoteagatik amatasuna babesteko printzipioak Lan-arriskuen Prebentzioaren 31/1995 Legearen 26. artikuluan ezartzen dira. Arrisku horiek nola sailkatzen dira?**

a) Fisikoak, kimikoak, biologikoak eta prozedura industrialen bidezkoak.
b) Fisikoak, kimikoak, biologikoak eta psikosozialak.
c) Fisikoak, kimikoak, psikosozialak eta ingurumenekoak.
d) Fisikoak, kimikoak, biologikoak, psikosozialak eta prozedura industrialen bidezkoak.

**407.- Bereziki sentikorra den langilearen definizioak kontsiderazio hauek jasotzen ditu, bat IZAN EZIK:**

a) Ezaugarri pertsonalak edo egoera biologikoa.
b) Desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala.
c) Lan-arriskuak.
d) Lanpostua.

**408.- Zein dira asma bronkial baten balizko lan-harremanaren ezaugarriak?**

a) Bat-batean hastea (gaixotasun alergikoen aurrekaririk gabeko helduengan).
b) Goizez agertzeko joera du, eta sarritan arratsaldean hobera egiten du.
c) Langilearen beste lankide batzuek antzeko sintomak dituzte.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**409.- Asmaren kasuan, lan-agente baten sentikortasuna baieztatzeari dagokionez:**

a) Larruazaleko testak eginez detekta daiteke (Pricktest eta larruazal barneko erreakzioak).
b) Pricktesta sentikorragoa da, ez da hain espezifikoa eta merkeagoa da.
c) Larruazal barneko erreakzioak korrelazio hobea du probokazio-testekin.
d) IgE espezifikoa (RAST) determinatzeko probek ez dute baieztatzen larruazaleko testen bidez frogatutako sentikortasuna, eta korrelazio txikia dute horiekin.

**410.- Lan-esposizioa eta langilearengan duen eragina baloratzen duen azterlan epidemiologiko baten emaitzek eragina izan dezakete langile osasuntsuaren eraginean:**

a) Azterketa zeharkakoa bada.
b) Azterketa luzerakoa bada.
c) Azterketa biztanleria orokorra kontrolatzeko talde batekin egindako kohorteena bada.
d) a) eta c) zuzenak dira.

**411.- Zein dira langile sanitarioei zuzendutako txertaketa-programen helburuak?**

a) Saihestu egin behar dira gaixotasun infekziosoak immunokonprometituta dauden edo patologia kronikoak dituzten langileengan (bihotzekoak, biriketakoak, giltzurrunetakoak, etab.).
b) Lantokian edo lantokitik kanpo hartutako gaixotasun immunoprebentiboen ondorioz lan-absentismoa murriztea.
c) Profesionaltasuna eta eredugarritasuna erakustea herritarren aurrean.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**412.- Zein dira langile sanitario guztientzat gomendatutako txertoak?**

a) Elgorria, errubeola, parotiditisa, tetanosa, difteria, B hepatitisa, barizela eta gripea.
b) Elgorria, errubeola, parotiditisa, tetanosa, difteria, B hepatitisa, barizela eta gaixotasun meningokoziko inbaditzailea.
c) Poliomielitisa, gaixotasun meningokoziko inbaditzailea, kukutxeztula, A hepatitisa eta sukar tifoidea.
d) Elgorria, parotiditisa, tetanosa, difteria, B hepatitisa eta gripea.

**413.- Prebentzio-zerbitzu propio baterako, zer da nahitaezkoa?**

a) Lan-arriskuen prebentzio-sistemen auditoretzak.
b) Prebentzioa kudeatzeko ISO 45001 ziurtagiria.
c) Lan-arriskuen prebentzio-sistemaren auditoria eta prebentzioa kudeatzeko ISO 45001 ziurtagiria.
d) Aurrekoetako bat bera ere ez.

**414.- Prebentzio-zerbitzuek aholkularitza eta laguntza eman beharko diote enpresari, honako hauei dagokienez:**

a) Lehen sorospenak.
b) Larrialdi Planak.
c) a) eta b) zuzenak dira.
d) Aurrekoetako bat bera ere ez.

**415.- Enpresaburuak zer modalitateren arabera antolatuko ditu prebentzio-jarduerak garatzeko behar diren baliabideak?**

a) Jarduera hori pertsonalki bere gain hartuta.
b) Horretarako langile bat edo batzuk izendatuta.
c) Prebentzio-zerbitzu propioa edo kanpoko prebentzio-zerbitzu batera jota.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**416.- Metabolismo basalari dagokionez, adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) Neurriaren, pisuaren eta sexuaren araberakoa da, eta gorputzaren gainazalarekiko proportzionala da.
b) Gorputzeko organoak martxan mantentzeko behar den gutxieneko energia-kontsumoa da.
c) Lana egitearen edo ez egitearen arabera, aldatu egiten da.
d) Esperimentalki kalkulatu da 70 kiloko gizon batentzat 1.700 Kcal/eguneko dela gutxi gorabehera, eta 60 kiloko emakume batentzat 1.400 Kcal/eguneko.

**417.- Adierazi zein den erantzun OKERRA Laneko Segurtasunaren eta Higienearen Institutu Nazionalaren funtzioei dagokienez, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen arabera:**

a) Gidak eta beste dokumentu tekniko batzuk egitea, lan-arriskuak prebenitzeari buruzko araudia bete dadin.
b) Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko nazioarteko lankidetza-programak garatzea, izan aldebikoak edo alde anitzekoak.
c) Lan Baldintzen Estatuko Behatokia kudeatzea.
d) Prebentzio-zerbitzuek beren gain hartutako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzea eta erraztea.

**418.- Adierazi erantzun ZUZENA:**

a) Osasuna zaintzea borondatezkoa da beti.
b) Langile sanitarioek eta enpresaburuek soilik izango dute osasunaren arloko informazioa eskuratzeko aukera.
c) Langileak eskubidea du bere osasunaren zaintzari buruzko datuak ezagutzeko.
d) Osasuna zaintzea nahitaezkoa da.

**419.- Nolakoa izan behar du langile sanitarioen osasunaren zaintzak?**

a) Hasierakoa soilik, kontratazioaren unean egitekoa.
b) Hasierakoa eta urtekoa.
c) Arrisku biologikoen, erradiazio ionizatzaileen edota substantzia kimikoen eraginpean dauden langileentzat bakarrik egindakoa.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**420.- Zein fakultatibok has dezake gaixotasun profesional posible baten jakinarazpena?**

a) Osasun Sistema Nazionalaren fakultatiboek.
b) Prebentzio-zerbitzuetako fakultatiboek.
c) a) eta b) zuzenak dira.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**421.- Zein bakarrik hartzen dira lanaren ondoriozko kaltetzat?**

a) Lana dela-eta jasandako patologiak.
b) Lanean edo lana dela bide izandako lesioak, patologia edo gaixotasunak.
c) Lana dela-eta jasandako gaixotasunak.
d) Lana dela-eta jasandako lesioak.

**422.- Zein da biztanleria osoaren osasunarekin lotutako fenomeno baten prebalentzia neurtzeko azterlan bat?**

a) Zeharkako azterlana.
b) Landa saiakuntza.
c) Herritarretan esku hartzeko saiakuntza.
d) Kasuen eta kontrolen azterlana.

**423.- Nolakoak izan daitezke analisi epidemiologikoaren aldagai kuantitatiboak?**

a) Izendunak.
b) Ordinalak.
c) Zenbaketak edo kalkuluak.
d) Aurreko guztiak aldagai kualitatiboak edo diskretuak dira.

**424.- Laneko segurtasun- eta osasun-seinaleztapenari buruzko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen apirilaren 14ko 485/1997 Erre Dekretuak soinu-seinaleen ezaugarri hauek ezartzen ditu? Adierazi zein den erantzun OKERRA:**

a) Ingurumen-zarata handiegia denean, ez da soinu-seinalerik erabiliko.
b) Ez dira bi soinu-seinale erabili behar aldi berean.
c) Ebakuazio-seinale baten soinua aldizkakoa izan beharko da.
d) Soinu-seinaleak ingurumen-zaratarenak baino soinuaren maila handiagoa izan beharko du.

**425.- Zer jaso behar du prebentzio-zerbitzuak lan-arriskuei buruz langileei eman behar dien informazioak?**

a) Enpresaren eta lanpostuaren lan-arriskuak.
b) Lanpostuaren lan-arriskuak.
c) Enpresaren eta lanpostuaren lan-arriskuak, bai eta haren prebentzio-neurriak ere.
d) Lanpostuaren lan-arriskuak, eta haren prebentzio-neurriak.

**426.- Zein dira prebentzio-ordezkarien eskumenak?**

a) Enpresa-ekintzaren hobekuntza gidatzea.
b) Zaintza- eta kontrol-lanak egitea, lan-arriskuak prebenitzeari buruzko araudia bete dadin.
c) a) eta b) zuzenak dira.
d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.




**427.- Langileek norbanakoen babeserako ekipamenduak (NBE) erabiltzeari buruzko segurtasuneko eta osasuneko gutxiengo xedapenei buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren arabera, zeintzuk dira norbera babesteko ekipamenduak?**

a) Militarren, polizien eta ordena mantentzeko zerbitzuetako pertsonen norbera babesteko ekipamenduak.
b) Arriskuak eta eragozpen-faktoreak detektatzeko eta seinaleztatzeko aparatu eramangarriak.
c) Langile baten segurtasuna edo osasuna kolokan jar dezakeen arriskuen aurrean langileak bere burua babesteko ipinita eta eutsita eraman dezakeen edozein ekipamendu, bai eta helburu hori duen edozein osagarri zein gehigarri ere.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

**428.- 5. artikuluaren arabera, teknikoki ezinezkoa denean agente kantzerigenoa edo mutagenoa ordezkatzea, zer neurri hartu behar du lehentasunez enpresaburuak, lanaren antolaketari dagokionez?**

a) Norbera babesteko ekipamenduak (NBE) ematea eraginpean dauden langile guztiei.
b) Esposizioak esposizio profesionalaren muga-balioak gainditzen ez dituela bermatzea.
c) Agentearen ekoizpena, aplikazioa edo erabilera sistema itxi batean egiten dela ziurtatzea.
d) Eraginpeko langileen kopurua ahalik eta mailarik baxuenera murriztea.

**429.- Agente kantzerigeno edo mutagenoekiko esposizioa amaitu ondoren, zenbat denboran gorde behar da, gutxienez, langile baten historia mediko indibiduala?**

a) 5 urtez.
b) 10 urtez.
c) 20 urtez.
d) 40 urtez.

**430.- Enpresaburuak, agente kantzerigeno, mutageno edo erreprotoxikoengatik kutsatzeko arriskua dagoen jarduera orotan, beharrezko neurriak hartu beharko ditu langileen higiene pertsonaleko neurriei dagokienez. Baieztapen hauetako zein da enpresaburuaren betebehar bat?**

a) Langileek laneko arropa etxera eraman dezakete garbitzeko, ageriko arriskurik ez badago.
b) Enpresaburuak leku bereiziak izan behar ditu laneko arropa eta janzteko arropa gordetzeko.
c) Higiene pertsonalari emandako denbora lanalditik kenduko da.
d) Langileek beren babes ekipamenduak ordaindu behar dituzte, horiek hondatzen badira.




**431.- Agente kantzerigenoekiko esposizioari buruzko arriskuen identifikazioari eta ebaluazioari dagokionez, zein da erantzun ZUZENA?**

a) Arriskuak ebaluatuko dira, eta langileen esposizioaren izaera, maila eta iraupena zehaztuko dira.
b) Esposizio-bide guztiak hartu behar dira kontuan, baita larruazalaren edo larruazalaren bidezko xurgapena ere.
c) Arriskuen ebaluazioa eguneratuta eduki beharko da, eta aldian-aldian berrikusi beharko da.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**432.- Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, zenbat langiletik aurrera bideratuko da nahitaez lantaldearen parte-hartzea, ordezkarien eta arauan araututako ordezkaritza espezializatuaren bidez?**

a) 10 langiletik aurrera.
b) 50 langiletik aurrera.
c) 6 langiletik edo gehiagotik aurrera.
d) Edozein enpresatan, langileen kopurua edozein dela ere.

**433.- 30 langile arteko enpresetan, nork hartzen ditu bere gain prebentzio-ordezkariaren eginkizunak eta rola?**

a) Enpresaburuak berak zuzenean.
b) Langileen ordezkariak.
c) Lan Ikuskatzailetzak berariaz aukeratutako langile batek.
d) Kontratatutako kanpoko prebentzio-zerbitzu batek.

**434.- Nola definitzen da enpresa bateko Segurtasun eta Osasun Batzordearen osaera?**

a) Prebentzio-ordezkariek baino ez dute osatzen.
b) Langileen ordezkariek eta Enpresa Batzordeak osatzen dute.
c) Prebentzioko ordezkariek eta enpresaburuaren ordezkariek osatzen dute, ordezkari horien kopuru berean.
d) Lan Ikuskatzailetzako teknikariek eta enpresako erdi-mailako arduradunek osatzen dute.

**435.- Gutxieneko zein maiztasunez bildu behar da Segurtasun eta Osasun Batzordea, araudiak ezartzen duenaren arabera?**

a) Hilean behin.
b) Bi hilean behin.
c) Hiru hilean behin.
d) Sei hilean behin.

**436.- Elementu hauetako zien dago berariaz baztertuta "norbera babesteko ekipamendu" definiziotik?**

a) Langilea babesteko gehigarriak edo osagarriak.
b) Hainbat arrisku aldi berean babestea xede duten jantziak.
c) Arriskuak detektatzeko eta seinaleztatzeko aparatu eramangarriak.
d) Babes gehigarri gisa erabiltzen diren barrerako kremak eta lozioak.

**437.- Norbera babesteko ekipamenduak behar bezala aukeratzeko, zer jarduketa egin behar ditu enpresaburuak?**

a) Beste bide batzuetatik saihestu ezin diren arriskuak aztertu eta ebaluatu.
b) Norbera babesteko ekipamenduek beren funtzioa bermatzeko bete beharko dituzten ezaugarriak definitu.
c) Merkatuan kalitate/prezio erlazio onena duten ekipamenduak bilatu.
d) a) eta b) zuzenak dira.

**438.- Nola erabili, biltegiratu, mantendu, garbitu, desinfektatu eta konpondu behar dira NBEak?**

a) Zentroko segurtasun-arduradunak emandako barne-jarraibideen arabera.
b) Fabrikatzaileak emandako jarraibideen arabera soilik.
c) Enpresa Batzordeak hiru hilean behin ezarritako jarraibide orokorrei jarraituta.
d) Enpresako zuzendaritzak zehazten dituen irizpide ekonomikoen eta stockaren arabera.

**439.- 10. artikuluak zer betebehar espezifiko ezartzen die langileei norbera babesteko ekipamenduei dagokienez?**

a) Inguruabar jakin batzuetan, langileak erosi behar izatea; hala bada, diru-itzulketa eskatuko dio enpresari.
b) Ekipamendua, erabili ondoren, horretarako adierazitako lekuan jartzea.
c) Konpondu edo teknikoki aldatzea, anomalia txikiak detektatzen dituztenean.
d) Lanaldia amaitzen denean, norberaren etxean zaintzea.

**440.- Zein kolektibo EZ dago esplizituki sartuta Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean, bereziki sentikorrak diren edo sentikortasunaren arautze espezifikoak dituzten langileak babesteko esparruan?**

a) Desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten langileak.
b) Haurdunaldian edo edoskitze naturalean dauden langileak.
c) 18 urtetik beherakoak.
d) Urtebetetik gorako iraupen mugatuko kontratuak dituzten langileak.




**441.- Arriskuen ebaluazioari dagokionez, zer betebehar du enpresaburuak bereziki sentikorrak diren langileei dagokienez?**

a) Ez dira lanean hasiko beren ezaugarri pertsonalengatik, egoera biologikoagatik edo behar bezala aitortutako desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialagatik arriskuan jar daitezkeen lanpostuetan.
b) Enpresaburuak kontuan hartu behar ditu langileen ebaluazioetan ezagutzen diren ezaugarri pertsonalak edo egoera biologikoa.
c) Enpresaburuak ebaluazioetan kontuan hartu beharko ditu langilearen ugaltzeko eginkizunean eragina izan dezaketen arrisku-faktoreak.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**442.- Noiz arte luza daiteke edoskitze naturaleko arriskuagatiko lan-kontratuaren etenaldia?**

a) Bularreko haurrak 6 hilabete bete arte.
b) Bularreko haurrak 9 hilabete bete arte.
c) Beti adingabeak urtebete bete arte.
d) Hitzarmenean ezarritako lanpostua gordetzeko aldi osoa amaitu arte.

**443.- Zer ezartzen du Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 19. artikuluak laneko osasun eta segurtasunari buruzko prestakuntzaren kostu ekonomikoari buruz?**

a) Kostua erdibana banatu behar dute enpresaburuak eta langileak.
b) Prestakuntzaren kostua ezin izango zaie inoiz langileei egokitu.
c) Kostua langileak hartzen du bere gain, hileko nominan kenkariak eginez.
d) Sektoreko sindikatu nagusiek diruz laguntzen dute kostu osoa.

**444.- Espainiako zein lege-arauk arautzen ditu oinarrizko, bitarteko eta goi-mailako prebentzio-teknikari gisa jarduteko beharrezkoak diren gutxieneko funtzioak eta prestakuntza-programak?**

a) 486/1997 Errege Dekretuak, apirilaren 14koak, lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzak ezartzen dituenak.
b) Osasunari buruzko 14/1986 Lege Orokorrak
c) 39/1997 Dekretuak (Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua).
d) 33/2011 Lege Orokorrak, Osasun Publikoari buruzkoak.

**445.- 39/1997 Errege Dekretuaren arabera, zein dokumentuk barne hartu behar ditu prebentzioa enpresa sanitarioan integratzeko antolaketa-egitura, erantzunkizunak, funtzioak, praktikak, prozedurak eta prozesuak?**

a) Ospitaleko autobabes-planak.
b) ISO 45001 arauaren eskuliburuak.
c) Lan-arriskuen prebentziorako planak.
d) Segurtasun eta Osasun Batzordeko txostenak.

**446.- Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen arabera, zein da prebentzioa osasun-enpresa baten kudeaketa-sistema orokorrean integratzeko baldintza nagusia?**

a) Zuzendaritzako medikuak eta erizainak soilik inplikatu behar ditu.
b) Bere jarduera guztiak eta hierarkia-maila guztiak barne hartu behar ditu.
c) Modu hertsian mugatu behar da esposizio biologiko edo erradiologiko handia duten eremuetara.
d) Zentro guztietarako nahitaez kanpoko auditoretza bat kontratatu behar da.

**447.- Ebaluazioaren emaitzak agerian uzten badu osasun-zentro batean arrisku-egoerak daudela, enpresaburuak prebentzio-jarduera planifikatuko du, 39/1997 Errege Dekretuaren 8. artikuluaren arabera. Alderdi hauetako zein EZ da nahitaez xehe-xehe barne hartu behar plangintza-dokumentu horretan?**

a) Plangintza gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak.
b) Aurreikusitako neurriak aurrera eramateko esleitutako epeak.
c) Enpresaren fakturazio osoaren aurrekontu ekonomiko zehatza eta banakatua.
d) Helburuak lortzeko behar diren baliabide ekonomikoak.

**448.- Lan-arriskuen prebentziorako sistemaren auditoretzari dagokionez, zein da erantzun ZUZENA?**

a) Ebidentziak lortzeko eta objektiboki ebaluatzeko prozesu sistematiko, independente eta dokumentatua da, finkatutako irizpideak zenbateraino betetzen diren zehazteko.
b) Barnekoa, kanpokoa edo diskriminatzailea izan daiteke.
c) Barne-auditoretza erakundeak berak egiten du.
d) "Auditoretza-ebidentzia" eta "auditoretza-irizpideak" ISO 45001 arauan definitutako kontzeptuak dira.

**449.- ISO 45001 (Lanean segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemak. Horiek erabiltzeko orientazioa duten baldintzak) arauaren arabera, zer da "gorabehera" bat?**

a) Lanean gertatzen den gertakari bat da.
b) Betekizun bat ez betetzea da.
c) Lanean edo lanera bidean sortzen den gertakari bat da, eta lesioak eta osasunaren narriadura eragiten ditu.
d) Lanean edo lanera bidean sortzen den gertakari bat da, eta lesioak eta osasunaren narriadura eragiten ditu edo eragin ditzake.

**450.- ISO 45001:2018 arauaren arabera, barne-auditoretzari dagokionez, erakundeak zer egin behar du?**

a) Auditoreak hautatu, prozesuaren objektibotasuna eta inpartzialtasuna ziurtatzeko.
b) Informazio dokumentatua gorde, auditoretza-programaren inplementazioaren eta auditoretzen emaitzen ebidentzia gisa.
c) Auditorien emaitzak lan-agintaritza eskudunari jakinarazten zaizkiola ziurtatu.
d) a) eta b) zuzenak dira.

Osakidetza




## KASU KLINIKOAK

### 1. KASUA GALDERAK 451-460

**Sorkunde 32 urteko erizaina da, eta 4 urte doa OSAKIDETZAKO behin-behineko langile izaten. Duela 2 hilabetetik, bitarteko gisa lan egiten du akutuen ospitale bateko hematologiako ospitalizazioko solairuan.**
**Lan-osasunera joan da molestiak sentitzen dituelako eta begiek azkura ematen diotelako; izan ere, produktu zitostatiko baten zipriztin bat begira sartu zaio paziente baten bidera konektatzen ari zela hura manipulatzean.**
**Ez zekien zer egin behar zuen une horretan, inork ez du jakin azaltzen zer neurri hartu behar dituen. Garbiketa zerbitzura deitu du, zoruko isuria garbi dezaten.**

**451.- Laneko medikua zaren aldetik, zer hartu beharko zenuke kontuan lehenik eta behin? Aukeratu erantzun ZUZENA:**

a) Lesioak dituen lan-gertakari bat da, ikertzeko datuak jasoko ditugu eta langilea gertatutako lesioetatik tratatuko dugu.
b) Lan-gorabehera bat da. Berehala garbitu behar zaizkio begiak urarekin edo serum fisiologikoarekin hamabost minutuz, eta gero oftalmologoari kontsultatu.
c) Lan-istripu bat da. Berehala garbitu behar zaizkio begiak urarekin edo serum fisiologikoarekin hamabost minutuz, eta gero oftalmologoari kontsultatu. Gertakaria ikertzeko, datuak bildu behar dira.
d) Berehala garbitu behar zaizkio begiak urarekin edo serum fisiologikoarekin hamabost minutuz, eta gero oftalmologoari kontsultatu. Lanean gerta daitekeen zerbait da eta horrela onartu behar da.

**452.- Gertatutakoa ikertzeko prozesuan, garbiketa-zerbitzuak isuria garbitu duela egiaztatu duzu. Neurriren bat kontuan hartu behar zuten?**

a) Bai, NBEak erabili beharko lituzkete isuria jasotzean: kaltzak, mantal iragazgaitza, maskara kirurgikoa, latexezko eskularru pare bat mantalaren gainean, garbitzeko eskularruak aurrekoen gainean eta betaurrekoak.
b) Bai, NBEak erabili beharko lituzkete isuriak jasotzean: kaltzak, mantal iragazgaitza, FFP2 maskara, latexezko eskularru pare bat mantalaren gainean, garbitzeko eskularruak aurrekoen gainean eta betaurrekoak.
c) Ez da neurri gehigarririk hartu behar zitostatikoen isuria biltzeko.
d) Sortutako hondakinak arrisku biologikoaren edukiontzira eramango dira.

**Langilearekin izandako elkarrizketan, lanpostuaren arrisku espezifikoei buruzko prestakuntzarik eta informaziorik jaso duen galdetu zaio, eta esan du zerbitzuan egindako harreran zerbait esan ziotela eta eskuliburu bat artxibatuta dagoela, baina ez duela izan irakurtzeko denborarik. Halaber, esan du ez diotela azterketa medikorik egin Osakidetzan.**

**453.- Zer neurri zuzentzaile proposatuko zenituzke jakinarazitako egoeraren ikerketan jasotako datuekin?**

a) Langileek lanpostuko arriskuei eta horien prebentzioari buruzko informazioa jasotzen dutela bermatzea, bai zerbitzuaren harreran arduradunak emandakoan, bai Prebentzioko Oinarrizko Unitateko azterketa medikoan.
b) Prebentzioko Oinarrizko Unitateak azterketa medikoa egiten den unean lanpostuak dituen arriskuei buruzko informazioa ematen diola bermatzea da arlo horretako ardura nagusia.
c) Medikamentu arriskutsuen eraginpean dauden langileen arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza.
d) a) eta c) zuzenak dira.

**454.- Zein izango lirateke langilearekin elkarrizketa amaitu ondoren egin beharko liratekeen hurrengo urratsak? Aukeratu ZUZENA:**

a) Langileak Prebentzioko Karpeta Gorrian dagoen istripuaren edo gorabeheraren barne partea beteko du, bere gainetik dagoen arduradunari gertatutakoaren berri emango dio, eta parte hori Zuzendaritzari eta prebentzio-ordezkariei bidaliko diete, jakinaren gainean egon daitezen.
b) Prebentzioko Oinarrizko Unitateak txosten bat egingo du hori berriro ez gertatzeko neurri zuzentzaile edota prebentiboekin, eta langileari eta prebentzio-ordezkariei bidaliko die.
c) Gainetik dagoen arduradunak istripuaren edo gorabeheraren barne-partea beteko du, eta Prebentzioko Oinarrizko Unitatearekin eta prebentzio-ordezkariekin batera jardungo du ikerketan.
d) Ikerketa-dokumentua amaitutakoan, gainetik dagoen arduradunari, Langileen Zuzendaritzari eta Zuzendaritza Ekonomikoari bidaliko zaie, Osakidetzan osasun-arretan emandako zerbitzuak mutualitateari fakturatzeko.

**455.- Solairu horretan IARCk 2A gisa sailkatutako medikamentuak ematen dituzte. Zer esanahi du?**

a) Agentea kartzinogenoa da gizakiengan.
b) Seguruenik, agentea kartzinogenoa da gizakiengan.
c) Agentea kartzinogenoa izan liteke gizakiengan.
d) Seguruenik, agentea ez da kartzinogenoa gizakiengan.

**Azterketa medikoa egin aurretik lanpostuaren arriskuen ebaluazioa berrikusten dugu:**

| | |
|---|---|
| Pazienteak manipulatzen/mobilizatzen laguntzea. | **ARRISKU TXIKIA** |
| Nahasmendu muskulueskeletikoak izateko arriskua, sendaketak eta tratamenduak egitean gorputz-jarrera behartuak izateagatik. | **ARRISKU TXIKIA** |
| Zitostatikoarekiko esposizioa izateko arriskua isuria edota estrabasazioa dela eta. | **ARRISKU MODERATUA** |

| | |
|---|---|
| Aire bidezko transmisioko gaixotasunak (Tuberkulosia...) eta kontaktu bidezko gaixotasunak (Hep. A) direla eta, kutsatzeko arriskua. | **ARRISKU TXIKIA** |
| Orratzekin ziztadak egiteko edo tresna medikoekin ebakiak egiteko arriskua, etab. (GIBa, C hepatitisa, B hepatitisa). | **ARRISKU TXIKIA** |
| Zipriztinak eta kontaktua izateko arriskua, zauriak, odoljario handiak eta abar miatzean (hazteria, SARS, barizela, etab.) | **ARRISKU TXIKIA** |

**456.- Ebaluazio hori kontuan hartuta zer proba egin beharko lirateke osasunaren zaintzan, PT-VG06ren arabera? Aukeratu erantzunik ZUZENENA:**

a) Analitika orokorra (biokimika orokorra/gernuko biokimika sistematikoa/hematologia-morfologia). B hepatitisaren serologia (BHB). C hepatitisaren serologia (CHB). GIBaren serologia. Mantoux. A Hepatitisaren serologia. Barizelaren serologia.
b) Analitika orokorra (biokimika orokorra/gernuko biokimika sistematikoa/hematologia-morfologia). B hepatitisaren serologia (BHB). C hepatitisaren serologia (CHB). GIBaren serologia. Mantoux.
c) Analitika orokorra (biokimika orokorra/gernuko biokimika sistematikoa/hematologia-morfologia). B hepatitisaren serologia (BHB). C hepatitisaren serologia (CHB). GIBaren serologia. Mantoux. A Hepatitisaren serologia. Barizelaren serologia. Medikuaren usteen arabera, espirometria gehitu ahal izango litzateke, arnas mailan kalte egin dezakeen produktu zitostatikoa identifikatuz gero.
d) Analitika orokorra (biokimika orokorra/gernuko biokimika sistematikoa/hematologia-morfologia). B hepatitisaren serologia (BHB). C hepatitisaren serologia (CHB). GIBaren serologia.

**457.- Hematologiako solairuko erizain-lanpostu horretan kalkulatutako kontaktu zitotoxikoaren indizea 1,8 da. Zein maiztasun gomendatu behar da azterketa medikoa egiteko?**

a) Indize horrek ez du aldatzen gomendatutako maiztasuna, hau da, 3 urtekoa.
b) Maiztasunak urtekoa izan beharko luke.
c) Maiztasunak bi urtekoa izan beharko luke.
d) Gomendatutako maiztasuna sei hilekoa izan beharko litzateke.

**458.- Zenbat denboran gorde beharko da langile honen historial medikoa?**

a) Langile horien historia medikoak esposizioa amaitu eta 40 urtera gorde behar dira.
b) Erretiroa hartu arte gordeko da.
c) Langileak 75 urte bete arte gordeko dira.
d) Esposizioa amaitzen denetik 30 urte bete arte gorde behar da.

**459.- Azterketa medikorako hitzordua eman zaio, eta anamnesian aurrekari pertsonal gisa aipatzen du bularreko neoplasia bat izan duela, eta duela 3 urte kimioterapia eta erradioterapia bidezko tratamendua jaso zuela. Sei hilean behin egiten dituen kontroletan dena normal atera zaio. Aurrekari horrek haren lan-gaitasuna baldintzatuko luke? Aukeratu erantzun ZUZENA:**

a) Aurrekari pertsonal horrek ez du baldintzatzen egungo lanposturako duen lan-gaitasuna.
b) Bere aurrekari pertsonala dela eta, Osakidetzako erizain lanposturako Ez Gai iraunkor gisa kalifikatu beharko litzateke, eta bere kasua Gaitasunak Baloratzeko Batzordera bideratu.
c) Aurrekari pertsonala izan badu ere, bere egungo egoera normala da, eta, beraz, agente zitostatikoei dagokienez, zeregin hori egiteko Gai gisa hartuko litzateke.
d) Aurrekari pertsonala eta agente zitostatikoekiko esposizioa kontuan hartuta, pentsatuko beharko litzateke ez dituela lan horiek egin beharko, eta "Gai mugekin" gaitasun-agiria emango litzaioke haren arduradunari, hark jakin dezan eta zitostatikoekiko esposiziorik gabeko lanpostu batean jar dezan.

**460.- Langile horrek berak osasun-azterketaren anamnesian aipatu izan balu bularreko neoplasiaren aurrekari pertsonal bat zuela, baina erradioterapiarekin edo kimioterapiarekin tratatu gabea, zer kalifikazio izan beharko luke gaitasun-ziurtagiriaren ikuspegitik?**

a) Ez-gai iraunkorra.
b) Gai, murrizketarik gabe.
c) Gai, murrizketekin (bereziki sentikorra den langilea da).
d) Horietako bat bera ere ez.

## 2. KASUA GALDERAK 461-467

**Mari Carmenek 45 urte ditu, eta angiologiako eta kirurgia baskularreko fakultatiboa da Euskadiko hirugarren mailako ospitale batean. Haurdunaldirako eta edoskitzarorako arrisku-prestazioari buruzko informazioa jasotzera etorri zaizu. Haurdun egon arren, oraindik ez du bere zerbitzuan jakinarazi nahi hurrengo kontrol-ekografia egin arte. Haurdun edo edoskitze-aldian dagoen langile baten aurrean jarduteko protokoloari jarraikiz (PT-VG09).**

**461.- Zein da egin beharreko lehen urratsa?**

a) Haurdun dagoela jakinarazi behar dio nahitaez Prebentzioko Oinarrizko Unitateari.
b) Haurdun dagoela jakinarazi behar dio nahitaez erdi-mailako arduradunari.
c) Haurdunaldia formalki jakinarazitzat joko da jakinarazpena sinatzen duenean.
d) Aurreko guztiak.

**462.- Nork jakinarazi behar dio haurdunaldia erdi-mailako arduradunari?**

a) Prebentzioko Oinarrizko Unitateak.
b) Giza Baliabideen Zuzendaritzak.
c) Interesdunak.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

Arriskuen ebaluazioan honako zeregin hauek jasotzen dira:

**Kanpo-kontsultak:** Pazienteen lehen kontsultak, sendaketak eta berrikusketak (kontaktuko arrisku biologikoa).

**Ospitalizazioa:** Paziente horien kasuan, bisita-pasea ospitaleratutako pazienteei, ebakuntza egiteko zain daudenei eta SARM (kontaktu-arrisku biologikoa) intzidentzia-tasa handia dela eta bakartuta dauden ebakuntza ondoko pazienteei.

**Ebakuntza-gelak:** Interbentzio programatuak eta larrialdietakoak, zeinetan urtean sei miliSievert (>6 mSv/urte) baino gehiago jaso ditzaketen erradiazio.

**463.- Zeregin eta arrisku horien arabera, zer proposatu beharko dugu langile horrentzat?**

a) Ezin ditu bakartuta dauden pazienteak artatu, nahiz eta norbera babesteko ekipamenduak eraman.
b) Erradiazio ionizatzaileak erabil ditzake, baldin eta berunezko ekipamenduak erabiltzen baditu eta papar-hegaleko, eskumuturreko eta abdomeneko dosimetroa badarama.
c) Ohiko zeregin guztiak egin ditzake.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**464.- Nola sailkatzen dira lantokiak erradiazio ionizatzaileekiko esposizioaren arriskuaren arabera eta esposizio potentzialen probabilitatea eta magnitudea kontuan hartuta?**

a) Zaintzapeko eremua (urte ofizialean 1 mSv baino dosi eraginkorrak edo kristalinoaren, larruazalaren eta gorputz-adarren dosi baliokideen 1/10 baino dosi baliokide handiagoa jasotzeko aukera dago) eta kontrolpeko eremua (urte ofizialean 3 mSv baino dosi eraginkorrak edo kristalinoaren, larruazalaren eta gorputz-adarren dosi baliokideen 6/10 baino dosi baliokide handiagoa jasotzeko aukera dago).
b) Zaintzapeko eremua (urte ofizialean 1 mSv baino dosi eraginkorrak edo kristalinoaren, larruazalaren eta gorputz-adarren dosi baliokideen 1/10 baino dosi baliokide handiagoa jasotzeko aukera dago) eta kontrolpeko eremua (urte ofizialean 6 mSv baino dosi eraginkorrak edo kristalinoaren, larruazalaren eta gorputz-adarren dosi baliokideen 3/10 baino dosi baliokide handiagoa jasotzeko aukera dago).
c) Zaintzapeko eremua (urte ofizialean 6 mSv baino dosi eraginkorrak edo kristalinoaren, larruazalaren eta gorputz-adarren dosi baliokideen 3/10 baino dosi baliokide handiagoa jasotzeko aukera dago) eta kontrolpeko eremua (urte ofizialean 1 mSv baino dosi eraginkorrak edo kristalinoaren, larruazalaren eta gorputz-adarren dosi baliokideen 1/10 baino dosi baliokide handiagoa jasotzeko aukera dago).

d) Bat bera ere ez da zuzena.

**465.- Langile horrek aurretik bularreko minbizia izan balu egungo haurdunaldia baino lehen, nolakoa izan beharko zukeen lanpostu horretan duen egoerak?**

a) Egokituta egon beharko zukeen, A kategoriako erradiazio ionizatzaileekiko esposizioa duten lanak saihesteko.
b) Egokituta egon beharko zukeen, A kategoriako erradiazio ionizatzaileekiko esposizioa eta gas anastesikoekiko esposizioa duten lanak saihesteko.
c) Inolako murrizketarik gabe egingo zukeen lan.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**466.- Zer da A kategoriako erradiazio ionizatzaileen eraginpean dauden langileen osasuna zaintzea, erradiazio ionizatzaileen eraginpean dauden langileen osasuna zaintzeko protokoloaren arabera (PT-VG08)?**

a) Hasierakoa, bi urtean behingoa eta berezia, dosi-muga gainditzen bada.
b) Hasierakoa, urtean behingoa eta berezia, dosi-muga gainditzen bada.
c) Hasierakoa, urtean behingoa eta berezia, dosimetroa galtzen badu edo dosi-muga gainditzen bada.
d) Hasierakoa, hiru urtean behingoa eta berezia, dosi-muga gainditzen bada.

**467.- Zertan datza A kategoriako langileen osasun-azterketa, erradiazio ionizatzaileen eraginpean dauden langileen osasuna zaintzeko protokoloaren arabera (PT-VG08)?**

a) Urtero egitean, eta honako hauek barne hartzen ditu: egungo lanpostuaren deskribapena, historia kliniko espezifikoa, miaketa fisikoa, elektrokardiograma, espirometria, audiometria, ikusmen-zorroztasuna eta kristalinoaren azterketa.
b) Hiru urtero egitean, eta honako hauek barne hartzen ditu: egungo lanpostuaren deskribapena, historia kliniko espezifikoa, miaketa fisikoa, elektrokardiograma, espirometria, audiometria, ikusmen-zorroztasuna eta kristalinoaren azterketa. Horrez gain, proba osagarriak egiten dira gutxienez hiru urtean behin.
c) Urtero egitean, eta honako hauek barne hartzen ditu: egungo lanpostuaren deskribapena, historia kliniko espezifikoa, miaketa fisikoa eta kristalinoaren azterketa. Elektrokardiograma, espirometria, audiometria eta ikusmen-zorroztasuna gutxienez bost urtean behin egingo dira.

## 3. KASUA GALDERAK 468-477

**Maite F.G. administraria da Osakidetzako ospitale bateko kontabilitate zerbitzuan duela 14 hilabetetik.**
**POUra negarrez joan da, eta bere gainetik dagoen arduradunarekin izandako egoera bat aipatu du. Izan ere, hark beste behin aurpegira bota dio ez duela egin hark egitea nahi duen lana. Maite erantzuten saiatu da, esanez ez dela iristen hark egitea nahi dituen lanak egitera lehen estaltzen zuen zerbitzuko langileek lehen egiten zituen zeregin berak egitea eskatzen diotelako. Bere gainetik**

**dagoen arduradunak oihu egin dio gainerako zerbitzukideen aurrean, eta ez dio utzi hitz egiten.**
**POUn duzuen elkarrizketan, halaber, kontatzen dizu bere arduradunari behin baino gehiagotan eskatu diola lankideei berrantolaketa berri horren berri emateko, baina ez duela egin. Aitzitik, esan dizu lankide batzuek esan diotela berehalako arduradunak esan diela Maitek denera iritsi beharko duela, eraginkorragoa izan beharko duela eta hona lanera eta egin beharrekoa egitera datorrela.**
**Azken hiru hilabeteetan hori askotan gertatu dela adierazi du, gutxienez 5 aldiz.**
**POUko medikuak gertaeren kontakizuna idazteko eskatu dio, eta egun batzuk barru elkartuko dira berriro.**
**Gertakari horren hurrengo egunean, Maite bere LMako medikura joaten da, eta hark aldi baterako ezintasuna ematen dio, antsietate koadro bat duelako.**
**Osakidetzaren LAPren kudeaketa-sistemari dagokionez:**

**468.- Adierazi aukera ZUZENA:**

a) POUk berehala jakinarazi behar dio bere erakundeko langileen zuzendaritzari, lan-jazarpen kasu argia baita.
b) POUk langilearen agintearen berri emango dio hierarkian gorago dagoenari, gatazkak konpontzeko prozesuaren hasierako fasea hasteko.
c) Hasierako fase hori egin ondoren, hierarkian gorago dagoenak Gatazka Batzordeari aurkeztuko dio kasua, F1 dokumentuaren bidez.
d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**469.- Bi langileen arloko arduradunak egindako jarduketen ondoren, hark egoera konpontzeko neurriak proposatu ditu. Adierazi aukera ZUZENA:**

a) Neurriak antolaketakoak badira, gatazka-batzordearen oniritzia izan beharko dute.
b) Arloaren arduradunak F-0 dokumentuan erregistratu beharko ditu neurri horiek, eta dagokion zuzendaritzari jakinarazi beharko dizkio 30 eguneko epean.
c) Arloaren arduradunak F-1 dokumentuan erregistratu beharko ditu neurri horiek, eta dagokion zuzendaritzari jakinarazi beharko dizkio 30 eguneko epean.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**470.- Langilea eta harekin dagoen prebentzio-ordezkari bat ez daude ados hasierako fase honetan proposatutako neurriekin. Adierazi aukera ZUZENA:**

a) Langileak bakarrik aurkez diezaioke F-1 dokumentua Batzordeari.
b) Prebentzio-ordezkariak F-1 aurkez dezake, baldin eta langilearen baimena badu (ahozkoa edo idatzizkoa).
c) F-1 dokumentua nahikoa da batzordeak kudeaketa-prozesua hasteko.
d) Bat ere ez da zuzena.

**Badirudi hasierako fase horretako neurriek ez dutela egoera konpontzen, eta erakundearen zuzendaritzak uste du beharrezkoa dela Gatazka Batzordearen jardueraren bidez tratatzea.**

**471.- Nola abiarazten da Gatazka Batzorde bat erakundean?**

a) Zuzendaritza Gerentziak dokumentazioa jaso eta gehienez ere 10 eguneko epean deituko du.
b) Zuzendaritza Gerentziak dokumentazioa jaso eta gehienez ere 10-15 eguneko epean deituko du.
c) Zuzendaritza Gerentziak dokumentazioa jaso eta berehala deituko du.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**Batzordea eratu ondoren, lehen bileran aurkeztutako F-1 idazkia irakurri dute, eta, hori aztertu ondoren, kideek uste dute lan-gatazka baten aurrean egon daitezkeela, eta egoera hobeto ezagutu behar dutela.**
**Erantzun galdera hauei, zeinak, Protokoloari jarraituz (PT-VG05), zerikusia duten gatazka egoeren aurrean erakundeetan abian jartzen diren gatazka-batzordeetan deskribatutako prozesuarekin eta epeekin.**

**472.- Erakundearen gatazkak ebazteko batzordeari dagokionez:**

a) Erakundeko Zuzendaritza Gerentziari atxikita egongo da.
b) Batzordekideak teknikari juridiko bat eta Prebentzioko Oinarrizko Unitateko kideren bat izango dira.
c) Batzordeko idazkariak aktak eta alderdiei egindako jakinarazpenak idatzi beharko ditu, eta kasuaren dokumentazioa artxibatu eta zainduko du.
d) a) eta c) zuzenak dira.

**473.- Antolakundearen gatazkak konpontzeko Batzordea bildu ondoren, honako ekintza hauek egingo dira:**

a) F-1 eskabidearen kopia bidaliko zaio Osakidetzaren Giza Baliabideetako Zuzendaritzari.
b) Prebentzioko Oinarrizko Unitateari eskatuko zaio eragindako zerbitzu edo unitateko Arrisku Psikosozialen Ebaluazioaren kontsulta egiteko, edo, halakorik ez badago, berehala egiteko eskatuko zaio.
c) Prozesua amaitutakoan, agiri guztiak helaraziko zaizkio Zuzendaritzako Gerentziari, artxibo orokorrean sar ditzan.
d) a) eta c) zuzenak dira.

**474.- Batzordeak zer egin beharko du?**

a) Ikerketa-talde bat izendatu, zeinaren eraketak ez lituzkeen 10 egun baino gehiago hartu beharko Batzordearen bileratik.
b) Ebazpen-txostena egin (F-3) 15 egun igaro baino lehen, eta hor jarduteko eta jarraipena egiteko neurriak ere proposatuko ditu.
c) Ikertzaile talde bat izendatu, gehienez ere 6 asteko epean ebazpen-txosten bat (F-3) egin beharko duena.
d) a) eta c) zuzenak dira.

**Taldea eratu eta kideak izendatzeko, gehienez ere, 10 egun izango dituzte, batzordea kasua aztertzeko biltzen denetik aurrera.**
**Txosten hori aurkezteko, 6 asteko epea izango dute gehienez, ikerketa-taldea izendatzen denetik aurrera zenbatuta, baldin eta luzapena justifikatzen duten inguruabarrik ez balego, eta, hala ere, luzapena behar bezala argudiatu beharko dute.**

**475.- Gatazkak ebazteko batzordeak zer jakinaraziko du dokumentuan (F-2)?**

a) Ikerketa-taldeko kide izango diren pertsonak.
b) Kasua artxibatzea, Batzordean aztertzeko baldintzak betetzen ez baditu.
c) Zuzendaritza Gerentziari eskaera faltsua edo asmo txarrekoa dela jakinarazten zaionean.
d) Guztiak zuzenak dira.

**Zure erakundearen Segurtasun eta Osasun Batzordean egoera horretan jarraitzen den prozesuari buruzko informazioa ematean, prebentzio-ordezkariek gatazka-egoeretan jarduteko protokoloan (PT- VG05) jasotako beste gai batzuei buruz galdetzen dizute:**

**476.- Lan-gatazka edo -jazarpen egoeretan jarduteko PT-VG05 02 Protokoloaren aplikazio-eremuari dagokionez, zein da egia?**

a) Osakidetzan, barne-indarkeriaren izaera duten egoera guztiak protokolo horren bidez ikertuko dira.
b) Protokolo hori aplikagarria izango da, halaber, Osakidetzako bertako langileen eta kanpoko langileen arteko gatazka bada.
c) Egoerak kanpoko enpresetako langileei soilik eragiten badie, eragindako zerbitzu-erakundeko zuzendaritzak antzemandako egoeraren berri eman beharko die enpresei.
d) Guztiak okerrak dira.

**477.- Gatazkak ebazteko batzorde korporatiboari dagokionez:**

a) Prebentzio Zerbitzu Propioak aholkulari gisa baino ez du parte hartuko Batzordean.
b) Batzordekideetako bat gatazkak konpontzen aditua izan daiteke.
c) Bere eginkizunen artean dago OSAKIDETZAKO langileak arrisku psikosozialen inguruan kontzientziatzea.
d) Kideen artean prebentzio-ordezkari bat egongo da gutxienez, eta txandaka izendatuko da.

## 4. KASUA GALDERAK 478-487

**Maria zeladore bat da, eta gaur hasi da lanean Osakidetzaren Erakunde Sanitario Integratu (ESI) batean. Bitarteko arduradunak zuen Prebentzioko Oinarrizko Unitatera (POU) bidali du, osasun-azterketa egiteko. Gainera, Mariak galdera batzuk egin nahi zizkigun. Gure erakundean lan egiten duen lehen aldia da, eta esan digu zeladore-lanpostu bat beteko duela ospitalizazio medikoko solairu batean. POUko arduradunak esan dizu zu arduratzeko kasuaz, eta, aurretik, osasunaren zaintzari buruzko galdera bat egin dizu.Ç**

**478.- Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren 37. artikuluaren arabera, zer barne hartu behar du jarduera sanitarioak, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 22. artikuluan ezarritako baldintzetan?**

a) Osasunaren hasierako ebaluazioa, lanean hasi aurretik.
b) Osasunaren aldizkako ebaluazioa, gutxienez, 3 urtean behin.
c) Osasun-arrazoien ondorioz lanetik kanpo luze egon ondoren osasun-azterketa egitea, langileak babesteko ekintza egokia gomendatzeko.
d) Osasunaren ebaluazioa, arrisku berriak dakartzaten zereginak esleitu aurretik.

**Beste erakunde sanitario batzuetan lan egin badu ere, Mariak ez du OSAKIDETZAn zeladore gisa lan egin, eta, beraz, osasun azterketa bat egitea eta kontsultak egitea proposatzen diozu, eta, aurretik, lan egingo duen ospitaleratze unitatearen arriskua kontsultatzen duzu.**
**Ebaluazioak adierazten du langileak unitate horretan dituen arriskuak pazienteak mobilizatzea (arrisku MODERATUA) eta agente biologikoekiko esposizioa (arrisku ERTAINA) direla, Osakidetzako Prebentzio Kudeaketaren Zerbitzuari jarraituz egindako balorazioaren arabera. Lana goizeko txanda finkoan egiten da.**
**Osasun azterketa espezifikoan aplikatu beharreko protokoloak eta probak arautzerakoan, zer hartu beharko duzu kontuan?**

**479.- Osasuna zaintzeko protokoloan (PT-VG06) jasotzen den bezala, zeladorearen kasuan, hala nola adibidean, zer da GEZURRA?**

a) Gutxienez 2 urtean behin osasun muskuloeskeletikoaren zaintza espezifikoa egitea gomendatu beharko da.
b) Aireko arrisku biologikoa dela eta, *Mycobacterium* tuberkulosiaren aurreko egoera eta barizela-zoster birusaren aurreko serologia determinatu beharko da.
c) Osasunaren zaintzaren helburuetako bat izango da detektatzea ea langile bat bereziki sentikorra izan daitekeen lanaren arriskuren batekiko.
d) Tuberkulinaren proban negatibo faltsuak saihesteko, lehenengo probatik 7 eta 14 egunera egindako tuberkulinaren bigarren proba baten emaitza baloratuko da.

**480.- Tuberkulosiaren aurkako berariazko zaintzarako protokoloaren arabera (PT-VG02), Osakidetzako langileen artean:**

a) Mantoux-en proba positibotzat joko da >15 mm bada (ezaugarri bereziak dituztelako eta beste talde batekoak diren langileei dagokienez izan ezik).
b) Zeladoreak ez dira tuberkulosiaren eraginpean egon daitezkeen langiletzat hartzen.
c) Tuberkulosi aktibo batekin kontaktua izanez gero, kontaktuen azterketa egin behar da haren eraginpean dauden eta aurretik tuberkulinaren proba negatiboa duten langileen artean.
d) Tuberkulinaren bigarren proba bat egingo da, *booster efektua* ote dagoen egiaztatzeko, tuberkulinaren proba negatiboa duten eta arrisku ertain edo handikotzat jotzen den eremu batean lan egin duten langileen artean.

**Azaldu dugun kasu horretan, hasierako osasun-azterketaren ondoren, osasunaren zaintzaren maiztasun bat proposatu beharko duzu, aireko arriskuari dagokionez:**

**481.- Zin da arrisku ertaineko unitate horietako eta *M. Tuberkulosi* sentikorreko zeladoreentzako tuberkulosiaren aurkako zaintza espezifikoaren maiztasuna?**

a) Ez da gomendatzen aldizkako zaintza.
b) Urtean behin.
c) Bi urtean behin.
d) Sei hilabetean behin.

**Osasun-azterketa amaitu ondoren, POUko arduradunak galdera batzuk egin dizkizu, Osakidetzako Prebentzioa Kudeatzeko Sisteman azterketa mediko edo osasun-azterketa baten ondorengo GAITASUNARI buruz:**

**482.- Prebentzioa kudeatzeko gure sisteman, gaitasun-txostenari dagokionez, zein da GEZURRA?**

a) Erakundeko Giza Baliabideetako zuzendaritza eta langilea izango dira osasun-azterketatik eratorritako ondorioei buruzko informazioaren hartzaile bakarrak, gaitasunari edo lanpostuan hobekuntzak egiteko beharrari dagokienez.
b) Langileari eman beharreko txostenean lanpostua, osasun-azterketaren osteko ondorioa eta azterketa hori nahitaezkoa edo borondatezkoa den adieraziko da.
c) Gaitasunaren gehieneko indarraldia ere agertuko da.
d) Osasunaren zaintzan lortutako emaitzak langileari bakarrik jakinaraziko zaizkio.

**Proba medikoen emaitzak lortu ondoren, eta aurrekari pertsonalei eta osasun-azterketan agindutako miaketei buruzko informazioaren ondoren, Maria, lehen aipatutako zeladorea diabetikoa da, intsulinaren mende dagoena, eta gaur egun 8 hilabeteko alabari edoskitze naturala ematen ari zaio**.

**483.- Informazio horrekin, eta pazienteak eta agente biologikoak airez mobilizatzearen ondoriozko arriskuari buruz lehen deskribatutako balorazioa kontuan hartuta, zer gomendio eman behar zaizkio egoera horretan?**

a) Beste unitate batera aldatzea gomendatu beharko da, intsulinaren mendeko diabetesa duelako eta unitate horretan tuberkulosirako arrisku ERTAINA dagoelako.
b) Beste unitate batera aldatzea gomendatu beharko da, edoskitze naturala ematen duelako eta unitate horretan tuberkulosirako arrisku ERTAINA dagoelako.
c) Pazienteak mugitzeak ez dakar arriskurik edoskitzaroan, eta ez da egokitzapenik egin behar intsulinaren mendeko diabetesaren ondorioz.
d) Guztiak zuzenak dira.

**Lanpostu horretan gaixotasun profesionala izateko arriskua egon daiteke, eta, beraz:**

**484.- Gaixotasun profesionalen koadroa onartu eta horietarako irizpideak ezartzen dituen 1299/2006 Errege Dekretua kontuan hartuta, zein da ZUZENA?**

a) Gaixotasun profesionalaren kasuan, kontingentzia profesionalen babesa bere gain hartzen duen erakunde kudeatzaileak edo laguntzaileak lanbide-gaixotasunaren partea egin eta izapidetuko du.
b) Kontingentzia profesionalaren babesa bere gain hartzen duen erakunde laguntzaileari dagokio gaixotasun bat profesionaltzat jotzea.
c) Osasun Ministerioak aldatu egingo du gaixotasun profesionalen taula, zeina Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearen aurretiazko txostena beharko baitu.
d) Gaixotasun profesionalen Europako Zerrendan sartutako gaixotasunak: Osasun Ministerioak gaixotasun profesionalen koadroan sartuko ditu, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak txostena egin ondoren.

**485.- Aire bidez –eta ez tanten bidez– transmititzen den agente biologiko batek honako gaixotasunetako bat eragiten du. Zein?**

a) Errubeola.
b) Elgorria.
c) Gripea.
d) *Neisseria meningitidis*ek eragindako gaixotasun inbaditzailea.

**Kontratu berri batean, Anatomia Patologikoko lanpostu bat proposatu diote Mariari, non arrisku ebaluazioaren arabera formaldehidoaren eraginpean egon daitekeen. Arrisku-balorazioan TXIKIA kualifikazioa du lanak.**
**Informazio hori izanda, nola aholka diezaiokegu bularra ematen ari den langileari?**

**486.- Formaldehidoak haurduntzan eta edoskitzean dituen ondorioei dagokienez, zer esan dezakegu?**

a) Formaldehidoa teratogenoa da.
b) Haurdun dagoen emakumearengan dituen ondorioak biztanleria osoarengan dituen ondorioen antzekoak dira.
c) Haurdun dauden emakume guztiei mugatu behar zaizkie haren eraginpean egoteko arriskua dakarten zereginak.
d) Fitxa teknikoan, edoskitzerako arriskuari buruzko R64 eta R65 esaldiak ditu.

**487.- Osasunaren Zaintzako prozedurak (P-PRL02_02) jasotzen duenez, zein da egokia?**

a) Osasunaren zaintzaz arduratzen den pertsonak gaitasunaren baliozkotasun-aldi bat definitu beharko du beti.
b) “GAI, mugekin” ondorioa duen neurria baliozkotzat jotzen da gehienez 2 urterako.
c) “EZ-GAI iragankor” gisa katalogatutako kasuetan, Gaitasunak Baloratzeko Batzordeak zehaztuko du gaitasunaren gehieneko iraupena.

d) Guztiak zuzenak dira.

## 5. KASUA GALDERAK 488-500

**Ainhoak 45 urte ditu eta anestesista da Osakidetzako ospitale batean. Paziente bati likido zefalorrakideoa ateratzen dio gerrialdeko ziztada baten bidez, eta erabilitako orratza manipulatzen ari zela, ezkerreko eskua ziztatu du. Ateratako likidoak tonu pixka bat hematikoa du. Langileak eskularruak zeramatzan, eta tresnerian ez da odolik ikusten.**
**Lanaldia amaitu eta hiru ordu igaro ondoren, Prebentzioko Oinarrizko Unitatera joan zen gertakariaren berri ematera.**

**488.- Istripu biologikoaren inguruko baieztapen hauetako zein da ZUZENA?**

a) Likido zefalorrakideoa denez, ez da istripu biologikotzat hartzen.
b) Likido zefalorrakideoa eduki hematikoz kutsatuta badago soilik joko da istripu biologikotzat.
c) Tresnerian (orratza) odola ikusten bada bakarrik joko da istripu biologikotzat.
d) Tresnerian odola dagoen edo erauzitako likidoa kutsatzen duen alde batera utzita, likido zefalorrakideoa denez, istripu biologikotzat hartzen da.

**Istripua izan duen langileak pazientearen izena eta historia zenbakia aurkeztu ditu POUn. Pazientea oraindik anestesia ondokoan (oraindik lo) zegoenez, langileak ez du pazientearen baimenik aurkeztu dagokion analitika egiteko.**

**489.- Istripuaren iturriaren ebaluazioari dagokionez, adierazi egiazkotzat jotzen dituzun alderdiak:**

a) Iturriak ez badu baimenik ematen, edo iturria ezezaguna bada, istripua izan duen profesionalaren jarduerari eta jarraipenari begira, iturria positiboa balitz bezala tratatuko da.
b) Iturriaren baimena eskatu behar da, idatziz (ahal dela) edo ahoz, bai serologiak egiteko, bai historia klinikoa ikusteko.
c) Pazientearen ezintasunaren kasuan eta ordezkari legala egongo dela aurreikusten ez denean, istripua izan duen pertsonarekin jokabide egokia bermatzeko, pazientearen ardura duen fakultatiboak proba egiteko ardura izango du, haren ordezkari gisara.
d) Guztiak zuzenak dira.

**Istripuaren ezaugarrien azterketan honako hau ikusten da:**

**Langileak nitrilozko eskularru pare bikoitza zeraman. Egiaztatu da B hepatitisaren aurkako txertoa jarri diotela, baina duela urtebete erantzun gabekotzat jo zuten, bi txertaketa-pauta osoren ondoren ez baitzuen lortu edo gainditu txertaketa osteko kontroletan Anti Hbsen 10 mUI/ml-ko titulua. Serologia basalean, gainera, langilea GIBarentzat eta CHBarentzat negatiboa dela egiaztatzen da.**

**490.- Hasierako zein proba analitiko egin behar dira?**

a) Pazienteari: CHBaren, BHBaren eta GIBaren serologia, GIBaren birus-karga eta proteina - erreaktiboa.
b) Istripua izan duen profesionalari: B hepatitisaren serologia, GIB, CHB eta GOT (AST) eta GPT (ALT).
c) a) eta b) zuzenak dira.
d) Aurrekoetatik bat bera ere ez da zuzena.

**Iturburu-pazientearen datuak aztertuta, honako hauei buruz hauek ikus daitezke:**

- **B hepatitisa: HBs Ag positiboa, Anti HBe positiboa eta anti HBc positiboa.**
- **GIBa: Anti GIB positiboa. Birus-karga handia.**
- **C hepatitisa: anti CHB positiboa eta CHBaren RNA positiboa.**

**491.- Zer jarduketa (profilaxia) egin behar da B hepatitisaren aurrean?**

a) Tratamendurik ez.
b) Giza immunoglobulinaren dosi bat, B antihepatitisaren aurkakoa, eta berriz txertatzen hastea.
c) B motako antihepatitisaren aurkako giza immunoglobulinaren bi dosi, hilabete bateko tartean bereizita.
d) b) eta c) zuzenak dira.

**492.- Pazientearengandik eta langilearengandik lortutako serologiak kontuan hartuta, zein izango da C hepatitisaren aurkako jarduketa (esposizioaren osteko jarraipena), Osakidetzaren material biologikoarekin gertatutako lan-istripuen ondorengo jarduteko protokoloaren arabera?**

a) Langileari kontrolak egitea 6, 12 eta 24 astetan.
b) Langileari kontrolak egitea 6, 12, 24 eta 52 astetan.
c) Langileari kontrolean 6 astera RNA-CHB eskatzea. Anti CHB + GPT eskatzea gainerako kontroletan, eta GPT handia badu, RNA-CHB eskatzea.
d) b) eta c) zuzenak dira.

**493.- Pazientearen eta langilearen serologiak (basala) kontuan hartuta, zein izango da GIBaren aurrean egin beharreko jarduketa (esposizioaren osteko jarraipena) langilearentzat?**

a) Esposizioaren osteko profilaxia (EOP) hasi bada, kontrol basalaz gain, kontrolak egitea 6, 12 eta 24 asteetan.
b) Esposizioaren osteko profilaxia (EOP) hasi bada, kontrol basalaz gain, kontrolak egitea 2, 6, 12, 24 eta 52 asteetan.
c) Esposizioaren osteko profilaxia hasi edo ez, kontrol basalaz gain, kontrolak egin behar dira 4, 8, 16 eta 32 asteetan.
d) Bat bera ere ez da zuzena.

**494.- Langilearen GIBaren aurreko esposizioaren osteko profilaxiari (EOP) dagokionez, zer da egia?**

a) Ziztadatik 2 ordu baino gehiago igaro direnez, EOP egitea baztertzen da.
b) Tresnerian odol ikusgarririk ez dagoenez eta eskularru bikoitza daramanez, EOP egitea baztertzen da.
c) Istripua izan duen langileak hartuko du Prebentzio Zerbitzuko profesionalak emandako informazioarekin EOP hasteko erabakia.
d) Pazientearen birus-karga txikia edo detektaezina bada, EOP egitea baztertu egingo da.

**495.- Azkenik, esposizioaren osteko profilaxia (EOP) hasten da. Osakidetzako material biologikoarekin gertatutako lan-istripuen ondorengo jarduketa-protokoloaren arabera, adierazi zein den erantzun OKERRA tratamenduari dagokionez:**

a) Jarraipen-aldian, bereziki lehen 6-12 asteen artean, gomendatzen da bularra ematen duten emakumeek ez elikatzea beren seme-alabak ama-esnearekin (edoskitze naturala).
b) EOP terapia hirukoitzarekin hastea gomendatzen da: nukleosido/nukleotidoaren alderantzizko transkriptasaren inhibitzaile analogo bat), eta proteasaren bi inhibitzaile, erritonabir edo antzeko konbinazio batekin indartuak.
c) Haurdunaldiaren kasuan, nahiz eta komeni den tratamendua aditu batekin kontsultatzea, EOPen hasierako jarraibidea premiazko tratamenduan gomendatutako jarraibide bera izan daiteke.
d) EOP hartune bidezko kontroletan egin beharreko analisiak hemograma, GOT, GPT, glukosa, kreatinina, amilasa eta gernu-sistematikoa barne hartzen ditu.

**496.- Jarraipen-aldiko gomendioen artean, zein daude?**

a) Odola, plasma, ehunak, organoak edo semena ematea saihestea.
b) Preserbatiborik gabeko sexu-harremanak saihestea.
c) Aho-higieneko materiala ez partekatzea.
d) Guztiak zuzenak dira.

**Dagokion osasun-azterketa baliatuz, istripua izan duen langileari emandako txertoen egoera berrikusten da**.

**497.- Txertaketa hirukoitz birikoari dagokionez, langileak EZ daki txertoa jarri dioten edo ez:**

a) Adinagatik immunizatutzat jotzen da.
b) Adinagatik, agian ez dago txertatuta edo ez dago jasota hala dagoenik. Ez badago gaixotasunik jasota, txerto hirukoitz birikoa jarri behar zaio (bi dosi bereizi, gutxienez hilabete batez).
c) Haurdunaldian ere txertoa jar daiteke, gaixotasun-arriskua bigarren mailako ondorioak izateko arriskua baino handiagoa baita.
d) Langileak arrautzaren proteinari alergia badio ere, txertoa har dezake.

**Prebentzioko oinarrizko unitateak proposatu du SARS-CoV-2aren aurkako txertaketa osoa dutenen artean Covid kasuen azterketa egitea.**

**Ikusi da urtebeteko epean, 1.000 kasu izan direla txertatutako langileen artean (txertaketa osoa duten 5.000 langileen artean), eta 400 kasu txertatu gabeko langileen artean (txertorik jaso ez duten 800 langileen artean).**

**498.- Zein da erantzun ZUZENA?**

a) Urtebetean metatutako intzidentzia txertatutako 100 langileko 20 kasukoa da.
b) Txertatu gabeko langileen intzidentzia 100 langileko 40 kasukoa da.
c) Metatutako intzidentzia eta intzidentzia-tasa lotura-neurriak dira.
d) Guztiak zuzenak dira.

**499.- Txertaketak Covid kasuen agerpenean duen eragina zehaztu nahiko bagenu, zein izango litzateke lotura-neurri epidemiologikoa?**

a) Aukera-arrazoia.
b) Bariantza-analisia.
c) Arrisku erlatiboa.
d) b) eta c) zuzenak dira.

**500.- Zer baiezta liteke?**

a) Intzidentzia 2,5 aldiz handiagoa da txertorik ez dutenen artean txertatutakoen artean baino.
b) Txertatuta ez egotea arrisku faktore bat da COVID-19a hartzeko.
c) Ezin da ondoriorik atera.
d) a) eta b) zuzenak dira.